

# **OINARRIZKO CURRÍCULO DISEINUA**

**GORPUTZ ETA KIROL-  
EKINTZAK SUSTATZEKO GOI  
MAILAKO TEKNIKARIA**

## AURKIBIDEA

1. Tituluaren identifikazioa.....	4
1.1. Izena.....	4
1.2. Maila.....	4
1.3. Heziketa-zikloaren iraupena .....	4
2. Erreferentea (lanbide-perfila) .....	4
2.1. Gaitasun orokorra .....	4
2.1.1. Lanbide gaitasunak .....	4
2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia.....	5
2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak .....	5
2.3. Produkzio-prozesuko kokapena.....	6
3. Irakaskuntzak.....	7
3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.....	7
3.2. Lanbide-moduluak.....	8
Lanbide-moduloa 1: Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisidoak.....	8
Lanbide moduloa 2: Gorputz-eta kirol-ekintza indibidualak .....	13
Lanbide-moduloa 3: Taldeko gorputz-eta kirol-ekintzak.....	20
Lanbide moduloa 4: Tresna bidezko gorputz-eta kirol-ekintzak .....	24
Lanbide moduloa 5: Oinarri biologikoak eta egokitzapen fisikoaren oinarriak.....	28
Lanbide moduloa 6: Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa.....	37
Lanbide moduloa 7: Lehen laguntzak eta uretako sorospena .....	44
Lanbide moduloa 8: Talde dinamda eta-animazioa .....	53
Lanbide moduloa 9: Gorputz eta kirol-ekintzen metodologia didaktikoa.....	57
Lanbide moduloa 10: Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintza fisikoak.....	63
Lanbide moduloa 11: Lan-prestakuntza eta orientabidea .....	67
Lanbide moduloa 12: Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.....	71
Lanbide moduloa 13: Lantokiko prestakuntza .....	72
3.3. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak.....	75
3.3.1. Iraupenak.....	75
3.3.2. Sekuentziazioa .....	76
4. Irakasleak.....	76
4.1. "Gorputz- eta kirol-ekintzak sustatzea" heziketa-zikloko lanbide-moduluetan irakaskuntza-atribuzioa duten irakalkeen espezialitateak.....	76
4.2. Titulazioen baliokidetasunak irakaskuntzan aritzeko.....	76
5. Irakaskuntza hauek emateko gutxieneko baldintzak .....	77
5.1. Espazioak.....	77
6. Sarbideak eta/edo ibilbideak.....	77

6.1. Unibertsitate-ikasketetarako sebidea .....	78
7. Konbalidazioak eta korrespondentziak.....	78
7.1. Lanerako Lanbide Heziketarekin konbalida daitezkeen lanbide-moduluak.....	78
7.2. Lan praktikarekin korrespondentzia izan dezaketen lanbide-moduluak .....	78

## **1. Tituluaren identifikazioa**

- 1.1. Izena: "Gorputz- eta kirol-ekintzak sustatzea".
- 1.2. Maila: Goi-mailako Berariazko Lanbide Heziketa.
- 1.3. Iraupena: 2.000 ordu.

## **2. Erreferentea (lanbide-perfila)**

### 2.1. Gaitasun orokorra

Hona hemen produkzio-sistemaren lanbide-prestakuntzarako eskakizun orokorrak teknikari honentzat:

- Jokoak, jolaserako gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak, taldekoak eta tresna bidezkoak eta oinarriko egokitzapen fisikoko ekintzak irakatsi eta dinamizatzea ingurunearen eta parte-hartzaileen ezaugarrietara egokituta, erabiltzailearen asebetetzea eta kalitateko lehiakortasun-maila lortuz eta aurreikusitako kostu-mugen barruan.

Teknikari honek, betiere, bere esku-hartzearen esparruetan espezialistak diren lizentziatuen eta/edo diplomatuen ikuskapenarekin jardungo du.

#### 2.1.1. Lanbide-gaitasunak

- Ekintzen helburuak, edukiak, baliabideak, metodoak, denboralizazioa eta ebaluazioa –programazio orokorraren arabera–, parte-hartzaileen eta ingurunearen ezaugarriak eta, hala badagokio, jasotako norabideak zehaztea.
- Jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintzak burutzean norbanakoak edo taldeak antolatu, zuzendu eta aholkatzea segurtasun-baldintzak bermatuta.
- Ekintzak dinamizatzea erakargarriak eta motibagarriak izan daitezen eta parte-hartzaileengan programarekiko atxikidura susta dezaten.
- Ekintzen berezko teknikak irakastea ekipo eta material egokiak erabilia, mugimenduak erakutsita eta parte-hartzaileek burutzapenean egindako akatsak zuzenduta.
- Beheragoko maila bateko beste teknikari batzuen lana antolatu eta zuzentzea jasotako norabideei jarraiki.
- Bere lanari lotutako azken ekarpen tekniko edo zientifikoei buruzko informazioa lortzea teknika eta joera berriak bereganatzearen, eta sektoreko ekipo eta material berriak erabiltzea.
- Bere lanbide-jardueran eragina duten teknologia-, antolamendu-, ekonomia- eta gizarte-aldaketetara moldatzea.
- Zerbitzua egiteko prozesuaren ikuspegi globala eta integratua izatea, instalazioen eta ekipoen funtzioa eta bere lanaren giza dimentsioak, teknikoak, antolamenduzkoak eta ekonomikoak ulertuz.
- Bere lanaren berezko teknikak aplikatzea zerbitzuaren prestazioa optimizatzeko (eraginkortasun-, segurtasun- eta garrantzi-irizpideen arabera), eta bezeroaren iguripenak betetzea.
- Balizko larrialdi-baldintzetan alarma-seinaleak bizkortasun eta lasaitasunez transmititzea eta ezarritako segurtasun-baliabideak aplikatzea.
- Pertsonen, instalazioen, ekipoen edo materialei dagokienez agertzen diren kontingentziak konpontzea eta, ondorioek bere jarduketa-esparrua gainditzin dutenean, erabakiak kontsultatzea.
- Barne hartuta dagoeneko lan-taldeko kideekin harreman eraginkorrak edukitzea, taldeari esleitzen zaizkion helburuak lortzen lagunduz, besteen lana errespetatuz, zeregin kolektiboen antolaketan eta garapenean aktiboki parte hartuz, sortzen diren zailtasunak gainditzin lagunduz eta bere lankide eta menpekoei ideiekiko jarrera baikorra azalduz.
- Zerbitzuaren prestazioan eragina duten sekzio edo departamentu guztiekin komunikatzea eta era koordinatuan jardutea aurreikusitako helburuak lortzearen.

## 2.1.2. Erantzukizuna eta autonomia

Teknikari honi, goragoko maila duten teknikariek esleitutako funtzioen eta helburuen esparruan eta dagozkion lanerako arloetan, oro har, ondoko autonomia-gaitasunak eskatuko zaizkio:

- Programazio orokorretik abiatuta, lan-plana eta saioak landu eta ebaluatzea.
- Bezero/erabiltzaileei gorputz- eta kirol-ekintzen praktikari lotutako alderdiei buruzko informazioa ematea.
- Bere eguneroko lanerako eta/edo etengabeko prestakuntzarako informazio-iturriak aukeratzea.
- Ekintzak ingurunearen eta erabiltzaileen ezaugarrietara moldatzea.
- Programa indibidualizatuak zehaztea.
- Ekintza segurtasun-baldintzetan antolatu eta burutzea.
- Ekintzak irakatsi eta sustatzea.
- Talde-dinamizazioan jardutea.
- Istripu edo gaixotasunaren kasuan lehen laguntzak ematea.
- Bere mailan, jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ikuskizunak antolatu, zuzendu eta garatzea.

## 2.2. Lanbide-burutzapenak eta lanbide-portaerak

Ondokoak dira profesionalak burutu eta/edo azaldu behar dituen burutzapen eta portaera esanguratsuenak:

### *1. Jokoak eta jolas-ekintza fisikoak programatu, irakatsi eta dinamizatzea.*

- Programazio orokorretik abiatuta, erabiltzaileen eta ingurunearen ezaugarriei eta interesei egokitutako jolas-ekintzak zehaztea.
- Instalazio eta baliabideen erabilgarritasuna bermatzea eta prest dauden ikuskatzea eta beren egokitasuna, segurtasuna eta, hala badagokio, erabilera-parametroen balio zuzenak ziurtatzea.
- Jokoen arauak eta burutzeko modua irakastea eta jokoak beren eta parte-hartzaileen ezaugarrietara moldatzea.
- Bere mailan, jolas- eta kirol-txapelketak, -lehiaketak eta -ikuskizunak antolatu, garatu eta zuzentzea.

### *2. Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak programatu, irakatsi eta dinamizatzea.*

- Programazio orokorretik abiatuta, erabiltzaile-talde baten ezaugarri eta beharrei egokitutako gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak programatzea.
- Instalazio eta baliabideen erabilgarritasuna bermatzea eta prest dauden ikuskatzea eta beren egokitasuna, segurtasuna eta, hala badagokio, erabilera-parametroen balio zuzenak ziurtatzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak saioak antolatu, zuzendu eta dinamizatzea animazio-metodologiarik egokiena erabilita.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak irakastea metodologia didaktikorik egokiena erabilita.
- Pertsona bat ur-inguruetik igeri egiten erreskatatzea laguntza jasotzen duenarentzako nahiz erreskatatzen duenarentzako arriskuak minimizatuz.
- Gaixoei eta istripua izan dutenei lehen laguntzak ematea eta, beharrezkoa izanez gero, lekualdaketa koordinatzea.

### *3. Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak programatu, irakatsi eta dinamizatzea.*

- Programazio orokorretik abiatuta, erabiltzaile-talde baten ezaugarri eta beharrei egokitutako taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak programatzea.
- Instalazio eta baliabideen erabilgarritasuna bermatzea eta prest dauden ikuskatzea eta beren egokitasuna, segurtasuna eta, hala badagokio, erabilera-parametroen balio zuzenak ziurtatzea.
- Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzetako saioak antolatu, zuzendu eta dinamizatzea animazio-metodologiarik egokiena erabilita.

- Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak irakastea metodologia didaktikorik egokiena erabilia.

#### 4. *Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzak programatu, irakatsi eta dinamizatzea.*

- Programazio orokorretik abiatuta, erabiltzaile-talde baten ezaugarri eta beharrei egokitutako taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak programatzea.
- Instalazio eta baliabideen erabilgarritasuna bermatzea eta prest dauden ikuskatzea eta beren egokitasuna, segurtasuna eta, hala badagokio, erabilera-parametroen balio zuzenak ziurtatzea.
- Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzetako saioak antolatu, zuzendu eta dinamizatzea animazio-metodologiarik egokiena erabilia.
- Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzak irakastea metodologia didaktikorik egokiena erabilia.

#### 5. *Egokitzapen fisikoko oinarrizko ekintzak programatu, irakatsi eta dinamizatzea.*

- Programazio orokorretik abiatuta, erabiltzaile-talde baten ezaugarri eta beharrei egokitutako egokitzapen fisikoko oinarrizko ekintzak zehaztea.
- Instalazioak eta baliabideak prest dauden ikuskatzea eta beren egokitasuna, segurtasuna eta, hala badagokio, erabilera-parametroen balio zuzenak ziurtatzea.
- Egokitzapen fisikoko oinarrizko ekintzetako saioak antolatu, zuzendu eta dinamizatzea erabiltzaile bakoitzaren parte-hartzea sustatuta.
- Egoera fisikoa garatzeko oinarrizko ariketak irakastea metodologia didaktikorik egokiena erabilia.

#### 6. *Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikiak antolatu eta kudeatzea.*

- Sektoreko enpresa txiki, eremu edo departamentu bat jartzeko eta/edo helburuak eta eskain daitezkeen jarduerak ezartzeko aukera ebaluatzea ahalbidetuko duten ikasketak egiteko beharrezkoa den informazioa lortu, antolatu eta baloratzea prozedura eta teknika egokiak erabilia.
- Sektoreko enpresa txiki baten eraketa finkatu eta kudeatzea indarrean dagoen legeria betez.
- Jardueren programa orokorra definitzea ezarritako helburuei eta eskuragarri dauden baliabideei jarraiki.
- Giza baliabideak, materialak eta ekonomikoak antolatu eta kudeatzea eta baliabide horien esleipena ezarritako helburuei jarraiki optimizatzea.
- Jardueraren garapenak sortutako dokumentazioa kudeatu eta antolatzea, prozedura administratiboak aplikatuz eta indarrean dagoen legeriari jarraiki.
- Jardueren programa kontrolatu eta ebaluatzea eta bere burutzapen zuzena eta egin beharreko zerbitzuaren kalitatea ziurtatzea.
- Sustapen-ekintzak kudeatu eta kontrolatzea aurrekontuari eta ezarritako helburuei jarraiki.

### 2.3. *Produkzio-prozesuko kokapena*

- Lanbide- eta lan-ingurunea

Lanbide-irudi honek “gorputz- eta kirol-ekintzen” alorrean burutuko du bere jarduna, eta jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintzak egiteko taldeen edo erabiltzaileen programazio-, animazio- eta zuzendaritza-zerbitzuak egingo ditu.

Bere lana ondoko enpresa- eta entitate-motetan garatu ahal izango du:

- Kirol-zerbitzuetako enpresak.
- Kirol-patronatuak edo udaleko kirol-entitateak.
- Kirol-klubak edo -elkartek.
- Gizarte-klubak edo -elkartek.
- Enpresa turistikoak: hotelak, kanpinak, bainu-etxeak...
- Enplegatuentzat kirol-zerbitzuak dituzten enpresa handiak.
- Zentro geriatrikoak edo gizarte-izaerakoak.

- Kirol-federazioak.
- Kirol-organismo publikoak (aldundiak, kirol-zuzendaritza nagusiak eta abar).
- Ingurune funtzionala eta teknologikoa

Lanbide-irudi hau ekintzen programazio, irakaskuntza, dinamizazio eta ebaluazioari, taldeen zuzendaritza eta animazioari eta egoera fisikoaren ebaluazioari lotutako funtzio/azpifuntzioetan kokatzen da.

Tekniketan eta ezagutza teknologikoetan ondoko esparruak barne hartzen dira:

- Taldeen animazioa eta dinamika.
- Gorputz-ekintzaren didaktika.
- Egoera fisikoaren balorazioa eta garapena.
- Portaeraren zientziak.
- Anatomia funtzionala eta ariketaren fisiologia.
- Higienea eta lehen laguntzak.
- Besteak beste, atletismo, saskibalo, badminton, futbol, igeriketa eta teniseko gorputz- eta kirol-ekintzak egiteko teknikak.
- Informatika-programen erabilera.
- Lanbideak, ereduzko lanposturik garrantzitsuenak

Adibide moduan eta lanbide-orientazioko helburua izanik, tituluaren perfilean definitutako lanbide-gaitasuna eskuratu ondoren bete daitezkeen lanbideak eta lanpostuak aipatuko ditugu jarraian.

- Gorputz- eta kirol-ekintzen sustatzailea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzen animatzailea.
- Kirol anitzetako ekintzen koordinatzailea.
- Jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintza indibidualen, taldekoen eta tresna bidezkoen monitorea.

### **3. Irakaskuntzak**

#### **3.1. Heziketa-zikloaren helburu orokorrak**

- I. Bidezko prozedurak eta oinarri zientifiko eta didaktikoak aplikatuta, gorputz- eta kirol-ekintza indibidualen, taldekoen eta tresna bidezkoen irakaskuntza- eta animazio-programazioak landu eta inplementatzea.
- II. Kirol indibidualen, taldekoen eta tresna bidezkoen berariazko eta oinarrizko mugimen-trebetasunen ikaskuntza optimizatzeo irakaskuntzan kontuan hartu beharreko oinarri zientifiko eta didaktikoak aplikatzea.
- III. Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak, taldekoak eta tresna bidezkoak garatzeko beharrezkoak diren eragiketak aztertu eta burutzea.
- IV. Zientifikoki eta didaktikoki oinarritutako egokitzapen fisikoko oinarrizko ekintzen programazioak landu eta inplementatzea, zuzenduta daudeneko jendearen ezaugarriak eta garatuko direneko ingurunearen baldintzak kontuan hartuta.
- V. Gimnasio, kiroldegi eta igerilekuetako segurtasun eta higienerari buruz indarrean dagoen legeria aplikagarria eta ezbeharren kasuan jarraitu beharreko prozedura ezagutzea eta ebaquaziorako, uretako erreskaterako eta lehen laguntzak emateko teknikak menperatzea.
- VI. Giza zientzietatik sortutako oinarri teorikoak aplikatzea pertsonen arteko harremanak optimizatzen dituzten eta ariketaren eta osasunaren aldeko jarrerak eta azturak sustatzen dituzten gorputz- eta kirol-egokitzapeneko saioren dinamizatzaile gisa esku hartzeko.
- VII. Hainbat motatako jokoak zehaztea mugimen-ikaskuntzak edo bestelako esparruetakoak optimizatzeo baliabide gisa, eta kirol-animazioko jolas-metodologia baloratzea.

- VIII. Gorputz- eta kirol-ekintzetako animatzailearen lanbidea zehaztea eta esku-hartze sozialeko, aisialdiko, jolaseko eta turismoko esparruen testuinguruan jartzea.
- IX. Burutu den ekintzaren kalitatea egiaztatzea, aurreikusita zeuden emaitzak lortu diren emaitzekin alderatuz, eta bezeroek emandako eta ezarritako beste baliabideekin lortutako informazioa interpretatzea, aurreikusitakoarekin egon daitezkeen desbiderapenen kausak edo arrazoiak baloratuz eta markatuta zeuden helburuak lortzeko xedez bidezkotzat jotzen diren zuzenketak sartuz.
- X. Gorputz- eta kirol-animazio eta jolaseko lanbide-jarduerak erregulatu eta baldintzatzen dituen lege-, ekonomia- eta antolamendu-esparrua ulertzea, lan-harremanetatik eratorritako eskubide eta betebeharrak identifikatuz eta ezarritako prozedurei jarraitzeko eta ager daitezkeen kontingentzien aurrean eraginkortasunez jokatzeko gaitasuna eskuratuz.
- XI. Ahozko, idatzizko eta keinuzko komunikazio eraginkorra ezartzea informazioa zuzen transmititu eta jasotzeko eta egoera gatazkatsuak konpontzeko, hala lan-giroko harremanen esparruan nola bezeroekiko harremanen esparruan.
- XII. Lanbidearen jardunari lotuta dauden eta gorputz- eta/edo kirol-ekintzen sektorea ezagutzea eta bertan lan-munduratzeko eta lanbide-gaitasun propioak eboluzionatzea eta bizitza aktiboan gertatuko diren teknologia- eta antolamendu-aldaketetara egokitzea ahalbidetuko duten informazio- eta prestakuntza-iturriak bilatu eta erabiltzea.
- XIII. Eremu edo sektore honetan garatu beharreko prozesuetan soluzioak ezartzen lagundu eta parte hartzea ingurumenarekiko eragin negatiboak txikiagotzeko, eta lanbide-jardunaren bidez prozesuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan parte hartzea.

### 3.2. Lanbide-moduluak

#### 1. lanbide-modulua. ANIMAZIORAKO JOKOAK ETA JOLAS-EKINTZA FISIKOAK

##### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Jokoek jolas-ekintza fisikoen animaziorako egiten duten ekarpena aztertzea eta beren izaera ludikoa baloratzea.
2. Parte-hartzaileen ezaugarri, interes eta/edo beharretara egokituko den jokoen programa bat egitea.
3. Joko-mota desberdinak gidatu eta dinamizatzea eta animaziorako metodologia behar bezala aplikatzea.

##### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Jokoek jolas-ekintza fisikoen animaziorako egiten duten ekarpena aztertzean eta beren izaera ludikoa baloratzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Jokoaren eta kirolaren arteko erlazioa adieraztea jolasaren esparruaren testuinguruan jarrita.
- Joko-mota desberdinak –herrikoiak edo tradizionalak, kirol alternatiboak, aurrekirolekoak...– eta hauen sailkapenak, ezaugarriak eta edukiak deskribatzea.
- Hainbat joko beren helburuekin eta burutzeko baldintzekin –jokoaren arauak, garapena, metodologia, denboralizazioa, materiala, segurtasun-arauak...– erlazionatzea.
- Populazio-multzo desberdinetarako joko-motarik egokienak adieraztea beren aukerak eta interesak kontuan hartuta.
- Jokoak eduki jakin batzuk lantzeko baliabide metodologiko gisa eta gorputz- eta/edo kirol-ekintzen berezko eduki gisa ematen dituen aukerak bereitzea.
- Jokoari dagokion metodologia identifikatzea eta animazioan duen erabilera justifikatzea.
- Alderdi ludikoak garapen psikomotor, kognitibo, afektibo eta sozialean eta pertsonaren orekan duen garrantzia azaltzea.
- Metodologia ludikorako prestasun positiboa erakustea.



## 2. Parte-hartzaileen ezaugarri, interes eta/edo beharretara egokituko den jokoan programa bat egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Mota desberdineko jokoan ezaugarriak, aplikagarritasuna eta garapena jasoko dituen fitxa-eredu bat sortzea.
- Zentzumenezko eta mugimenezko jokoak zehaztea fitxa-eredu jakin baten jarraibideak kontuan hartuta.
- Jokoan fitxategi bat egitea hainbat sailkapen erabilita:
  - Garatzen direneko ingurunearen edo instalazioen arabera.
  - Parte-hartzaileen adinaren eta ezaugarrien arabera.
  - Helburuen arabera.
- Erabiltzaileen, ingurunearen eta instalazioen ezaugarriak behar bezala identifikatzen direneko suposizio batean:
  - Programan garatuko diren jokoak aukeratu eta sekuentziaztea.
  - Beharrezkoak diren baliabideak aurreikustea eta/edo eskura daudenen artean egokienak aukeratzea.
  - Beharren eta burutzapen-mailaren arabera, jantzi eta osagarri egokiak finkatzea.
  - Jokoan programa parte-hartzaileek ikasteko eta/edo burutzeko dituzten interes, behar eta aukeretara eta garatzen direneko testuingurura egokitzeko beharra justifikatzea.
  - Erabiltzaileen parte-hartzea ahalbidetzen duten ikuskizunak aukeratzea eta guztien parte-hartzea eta interes indibidualetikiko errespetua bultzatzea.
  - Programara egokitutako eta erabiltzaileek parte hartzeko moduko ikuskizun edo txapelketa bat asmatzea eta bere inplementazioa deskribatzea.
  - Programatutako jokoan irakaskuntzan eta/edo animazioan jarraitu beharreko prozesu osoa azaltzea eta taldearen harremanak dinamizatzeke eta aurreikusitako helburuak lortzeko hartutako erabakiak justifikatzea.
  - Programa alternatiboak ezartzea ager daitezkeen kontingentzietara aurrea hartuta.
  - Aurreikusitako helburuen lorpena eta parte-hartzaileen gogobetetze-maila ondorioztatzea ahalbidetzen duten faktoreak finkatzea.
  - Irakaskuntza indibidualizatzea parte-hartzailearen egoera fisikoa, burutzapen-maila eta interesa kontuan hartuta.

## 3. Joko-mota desberdinak gidatu eta dinamizatzean eta animaziorako metodologia behar bezala aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Erabiltzailearena egingo duten pertsona batzuekin adierazpen-jokoak, herrikoiak, aurrekirolekoak, kirol tradizionalak eta kirol alternatiboak praktikan jartzea eta ondoko alderdiak azpimarratzea:
  - Jokoaren garapena eta arauak modu garbi, zehatz eta estimulatzaile batean azaltzea.
  - Jokoa ulertzeko beharrezkoak diren erakustaldiak egitea.
  - Ekintzak hala eskatzen duenean, beroketa- eta errekupeazio-aldiak programatu eta zuzentzea.
  - Ekintza hasi aurretik jarduera, instalazioak eta materialak ikuskatzea: erabilgarritasuna, egoera, egokitasuna, parte-hartzaileen ezaugarrietara egokitzeko beharra...
  - Parte-hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta, ekipoak osatzea eta espazioak eta materiala banatzea.
  - Parte-hartzea estimulatzeke modu desinhibitu batean interpretatzea, inprobisatzea eta hitzez eta gorputzez adieraztea.
  - Jokoa garatzean gorabeherak detektatzea, konpontzeko bidezkoak diren argibideak ematea eta kontingentziak egokiro konpontzea.
  - Intentsitate- eta zailtasun-maila parte-hartzaileen ezaugarri errealekara eta zirkunstantzietara egokitzea.
  - Jokoeziko jarrera positiboa erakustea eta jokoetan desinhibituta parte hartzea.
  - Ekintza antolatu eta garatzean parte-hartzaileen segurtasuna zaintzea eta hauei behar bezala laguntzea.
  - Parte-hartzaileak ekintzari buruzko iritziak adierazteke motibatzea.
  - Parte-hartzaileei beren aurrerapen eta akatsen berri ematea eta beren eboluzioa eta gozamen-maila baloratzea.

### c) Edukiak

## I. multzoa: JOKOAREN FUNTS TEORIKOA. INTERESAK ETA ERABILERAK

### Prozedurazkoak:

- Jokoak diren ekintzak bereiztea.
- Testuinguru edo egoera bakoitzean jokoaren beharrak justifikatzea.
- Turismo-inguruneetarako eta beste lanbide-testuinguru batzuetarako kirol, jolas-izaerako kirol-ekintza eta jokorik garrantzitsuenak zehaztea.
- Eboluzio-etapetako jokoaren beharrak bereiztea eta lotzea.
- Pertsonari dagozkion esparruak bereiztea eta eduki ludikoekin erlazionatzea.
- Edukiak aldatzea aldagai ludikoarekin eta aldagai hori gabe tratatuz.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jokoaren kontzeptua.
- Haurren eta helduen jokoaren ezaugarriak.
- Jokoaren jatorriari buruzko teoriak eta jokoaren erabilerak gaur egun.
- EAEko jokoei eta jolas-ekintzei lotutako berezitasun kulturalak, tokikoak, soziologikoak eta ekonomikoak.
- Eboluzio-etapak eta jokoak.
- Planteamendu ludikoa eta pertsonari dagozkion esparruen garapena.
- Jokoaren eta jolas gisako kirolaren arteko desberdintasunak eta antzekotasunak. Jokoa gorputz- eta kirol-ekintzak lantzeko baliabide metodologiko gisa.
- Ondoko lanbide-testuinguruetako erabiltzaileen jolas- eta kirol-interesak:
  - Hotelak, opor-zentroak eta enpresa turistikoak.
  - Ingurune naturala.
  - Kiroldegiak.
  - Geriatrikoak.
  - Ikastetxeak.
  - Gizarte-klubak.
  - Beste batzuk.
- Jokoen bidez eta jokorik gabe landutako zeregin/edukietan aplikatzeko eta hauek egokitze aldagai ludikoak.

### Jarrerazkoak:

- Ludikoa dena giza izaerari datzekion faktore gisa identifikatzea.
- Jokoaren baliotasun eta beharraren estimazio positiboa eboluzio-etapak eta pertsonari dagozkion esparruak lantzerakoan.
- Alderdi ludikoa aplikazio ugarietarako baliabide gisa baloratzea: garapen psikomotor, kognitibo, afektibo eta sozialerako faktorea, pertsonaren orekarako interesa duen aldagai eta abar.
- Zorroztasuna jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak aukeratzeko eta lanbide-egoerei edo -interesei egokitze irizpideetan.

## II. multzoa: JOKOAK ETA JOLAS-IZAERAKO KIROL-EKINTZAK ERREGISTRATU, SAILKATU ETA USTIATZEKO TEKNIKAK

### Prozedurazkoak:

- Joko-mota bakoitzaren berezko ezaugarriak aztertu eta deskribatzea.
- Jokoak irizpideen arabera sailkatzea.
- Fitxa/erregistro oso eta funtzional bat diseinatzea eta informazioaren edukia, espazio-antolamendua eta ustiapen-behar guztiak baloratzea.
- Lanbide-jardunean baliagarriak eta ohikoak diren jokoak antolatu eta sailkatzeko irizpideak finkatzea. Kasu bakoitzaren helburua azaltzea.
- Joko eta jolas-izaerako kirol-ekintza bakoitzerako fitxa bat egitea ezarritako ereduari jarraiki.
- Joko eta fitxa bakoitzari buruzko datuak eta informazioa erregistratzea.
- Fitxak ondoko alderdien arabera sailkatzea:
  - Helburu psikosomatikoak.

- Parte-hartzaileen adina eta ezaugarriak.
- Behar dituzten baliabide materialak.
- Beharrezkoak diren musika-baliabideak.
- Taldearen antolamendua.
- Bestelako irizpideak: jatorria.
- Jokoen fitxategia gaurkotasuna eta funtzionaltasuna bermatzeko moduan mantentzea.
- Jokoen fitxategia ustiatzea eta, planteatutako beharretan oinarrituta, beharrezkoak diren fitxak, datuak eta informazioa antolatu, sailkatu, bilatu eta aukeratzeko.
- Jokoen fitxak egin, erregistratu eta sailkatzerakoan informatika-baliabideak erabiltzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jokoei eta jolas-izaerako kirol-ekintzei buruzko informazioaren ustiapenean aplikatutako datu-baseak. Menuak eta funtzioak. Lanbide-perfilarekin eta sektoreko jarduerarekin bat datozen helburuak.
- Jokoen fitxa: funtzioak, ezaugarriak eta diseinua.
- Fitxaren aldaketak aldagairik ohikoenen arabera.
- Mota eta aplikazio-esparru desberdineko jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak:
  - Mugimenezko jokoak.
  - Garapen anatomikoko jokoak.
  - Zentzumenezko jokoak.
  - Adierazpen-jokoak eta musika-euskarri bidezkoak.
  - Lankidetzak-jokoak.
  - Joko herrikoak eta/edo tradizionalak: euskal jokoak.
  - Aurrekirol-jokoak.
  - Kirol alternatiboak.
  - Bestelako jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak.
- Joko-mota desberdinen aplikagarritasuna eta aztertze moduko elementuak, ondoko alderdiei dagokienez:
  - Garapen psikosomatikoaren alderdiak.
  - Eboluzio-etapak.
  - Garatu beharreko kalitate fisikoa.
  - Gidaritza- eta arau-maila.
  - Mugimenezko ekintza nagusia.
  - Saioareen zatiak.
  - Ikuskizunak.
  - Espazio fisikoa, materiala, instalazioak, jantziak eta osagarriak.
  - Bestelako faktoreak edo aldagaiak.
- Animatzailearen jokoen fitxategia: egitura eta antolamendua, beharrak, funtzioak.

#### Jarrerazkoak:

- Informatika-baliabideekiko eta garatu beharreko prozesuetan duten aplikazioarekiko interesa.
- Zorroztasuna eta jarrera kritikoa fitxak diseinatzerakoan. Beren funtzionaltasunarekiko eta egungo eta etorkizuneko beharretarako moldagarritasunarekiko interesa.
- Zorroztasuna landutako eta eskura dagoen datu-basea egin eta ustiatzerakoan.
- Etengabe operatibo den datu-basearen eguneratze eta mantentzearekiko interesa.

### III. multzoa: JOKOAK ETA JOLAS-IZAERAKO KIROL-EKINTZAK SUSTATU/GIDATU ETA ESPERIMENTATZEKO TEKNIKAK

#### Prozedurazkoak:

- Ahozko eta keinuzko komunikazioko teknikak aplikatu eta bereiztea jokoak aurkeztu, sustatu eta gidatzeko.
- Pertsona eta osatutako talde bakoitzari rolak eta zereginak esleitzea beren ezaugarrien arabera.
- Jokoen garapenari arreta eskaintzea aldagaiak kontrolatuz eta guztia kontuan hartuta jokatzeko. Programan barne hartutako monitorearen “feedback” delakoa.
- Jokoen programetan desinhibizioz integratzea.
- Dinamismorik gabe helburuak lortzeko, parte-hartzaileak gogobetetzeko eta gorabeherak konpontzeko giza baliabideak, baliabide materialak eta metodologikoak erabiltzea.

- Egoerak hobetzeko sormena, barietatea eta inprobisazio-ahalmena bermatuko duten teknikak aplikatzea.
- Askotariko jokoak eta jolas-izaerako kirol-ekintzak esperimentatu eta praktikan jartzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Teknikaria joko-animatzaile eta/edo jokoen bidezko animatzaile gisa. Animatzailearen funtzioak jokoaren esparruan.
- Joko eta jolas-izaerako kirol-ekintza bakoitzari egokitutako arauak eta teknikak.
- Jokoaren garapena behatzeko irizpideak.
- Parte-hartzaileen eta animatzailearen espazio-antolaketa ekintza azaldu edo aurkeztu, jarraitu eta bideratzerakoan. Estrategia baliagarriak.
- Argibideak, zuzenketak eta abar ahoz azaltzeko eta egiteko prozedurak eta teknikak.
- Keinuzko informazio osagarriko prozedurak eta teknikak erakustaldietan, argibideetan eta komunikazioetan oro har.
- Ekipoak osatu eta baliabideak optimizatzeko irizpideak ondoko helburuetan oinarrituta:
  - Indarren eta abilezien arteko oreka.
  - Adiskidetasuna, talde-identifikazioa.
  - Espazioen erabilgarritasuna.
  - Giza mugak eta muga materialak.
- Materialaren banaketa eta erabilera udako zentroetan, hoteletan eta gainerako turismo-instalazioetan, ikastetxeetan, ingurune naturalean, kiroldegietan, geriatrikoetan, klubetan, elkarteetan eta abar. Ezaugarriak.
- Animazioaren eta gidaritzaren ezaugarriak eta dinamika.
- Jokoen eta/edo jokoen bidezko animatzaile/gidariak garatu beharreko metodologiak eta teknikak.
- Inprobisazioa eta sormena.

#### Jarrerazkoak:

- Erakutsitako hitzezko eta keinuzko komunikaziorako gaitasuna baloratzea ondorengo garapenaren arrakastarako oinarri gisa.
- Metodologia eta teknika ludikoek animaziorako eta askotariko aplikazioetarako baliabide gisa duten garrantzia baloratzea.
- Jokoarekin identifikatzea eta jokoan integratzea.
- Desinhibizioz integratu eta parte hartzea animazio eta arbitrajeko eta parte-hartzearen eta sormenaren estimulaziorako beharrezkotzat hartzea.
- Etengabeko prestakuntzarekiko eta sektoreko behar aldakorretarako egokitzapenarekiko interesa.

### IV. multzoa: JOKOEN, JOLAS-IZAERAKO KIROL-EKINTZEN ETA IKUSKIZUN LUDIKOEN PROGRAMAZIOA ETA ANTOLAKETA TESTUINGURU DESBERDINETAN

#### Prozedurazkoak:

- Jokoak helburuen arabera aukeratu eta bereiztea.
- Joko bakoitzerako egokiena den saioaren zatia identifikatzea.
- Jokoak sekuentziatzea eta parte-hartzaileen eta eskura dauden baliabide materialen ezaugarrietara egokitzea.
- Jolas- eta kirol-ikuskitzuna koherentziaz, programa kontuan hartuta, eskura dauden instalazioak baloratuta eta lanbide-testuinguruan oinarrituta antolatzea.
- Jolas- eta kirol-ikuskitzuna antolatzeko beharrezkoa den dokumentazioa eta informazioa aztertu eta erabiltzea.
- Diseinatutako programarako ebaluazio-tresna egokiak eta eraginkorrak aukeratzea.
- Jokoen saioa garbi eta koherentziaz justifikatzea, erabili beharreko baliabideak eta lortu beharreko helburuak azalduz eta erlazionatuz.
- Jokoen saioen gidaritza simulatzea.
- Saioa eta programa ebaluatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jokoen saioen egitura. Faseak. Intentsitateak. Helburuak.

- Saioaren fase bakoitzerako joko egokiak. Aukeraketa- eta banaketa-irizpideak.
- Programazioaren oinarriak. Saio sekuentziatuen ereduak.
- Jolas- eta kirol-ikuskizunak:
  - Ikuskizun-motak eta jokoen programa baterako baliotasuna.
  - Protokolo-ekitaldiak.
  - Pertsonala eta funtzioak.
  - Dokumentazioa eta publizitatea.
  - Jokoen eta ikuskizunen arautegia eta kalifikazioa.
  - Turismo-instalazio baten ereduazko ezaugarriak.
- Jokoen saioa gidatzeko oinarriak.
- Saioak behatzeko irizpideak.
- Jokoen programak eta ikuskizunak ebaluatzeko oinarriak.

#### Jarrerazkoak:

- Zorroztasuna jokoak sekuentziatzerakoan, proposatzen diren helburuetarako egokitzapena kontuan hartuta.
- Garatu beharreko programarako metodologia aukeratu eta aplikatzea.
- Programaren antolaketa eta aplikazioaren lidergoa bere gain hartzea.
- Programatutako joko-dinamikan integratzeko interesa.
- Objektibotasuna ebaluatzerakoan.
- Etengabeko prestakuntzarekiko eta sektoreko behar aldakorretarako egokitzapenarekiko interesa.

## 2. lanbide-modulua. GORPUTZ- ETA KIROL-EKINTZA INDIBIDUALAK

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Egokitzapen fisiko orokorreko ariketak, oinarritzko eta berariazko trebetasunak eta gorputz- eta kirol-ekintza indibidualetan aplikatzeko moduko joko orokorrak eta aurrekirolekoak aztertzea eta aukeratzea.
2. Ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsona-talde batzuentzako gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak irakatsi eta sustatzeko programak egitea.
3. Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualen antolamendua, kontrola eta burutzapena aztertzea.
4. Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualetarako instalazioen eta materialaren oinarritzko arauak eta ezaugarriak aztertzea.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Egokitzapen fisiko orokorreko ariketak, oinarritzko eta berariazko trebetasunak eta gorputz- eta kirol-ekintza indibidualetan aplikatzeko moduko joko orokorrak eta aurrekirolekoak aztertzean eta aukeratzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Atletismoaren, igeriketaren eta lantzen diren bertako ekintza indibidualen mugimenezko zereginik ohikoenak burutzeko konplexutasuna eta zailtasuna aztertzea.
- Atletismoaren, igeriketaren eta lantzen diren bertako ekintza indibidualen mugimenezko zereginak burutzeko teknika eraginkorrenak aztertzea.
- Atletismoaren, igeriketaren eta lantzen diren bertako ekintza indibidualen mugimendu teknikoak burutzeko faseak deskribatzea.
- Suposizio praktiko batean, parte-hartzaileen ezaugarriak, interesak eta beharrak ezagunak izanik, ondokoak zerrendatu eta deskribatzea:
  - Atletismoaren, igeriketaren eta lantzen diren bertako ekintza indibidualen oinarritzko egokitzapen fisikoan aplikatu beharreko ariketak.
  - Atletismoaren, igeriketaren eta lantzen diren bertako ekintza indibidualen oinarritzko eta berariazko trebetasunak garatzeko zereginak.

- Atletismoan, igeriketan eta lantzen diren bertako ekintza indibidualetan aplika daitezkeen joko orokorrak eta aurrekirolekoak.

2. Ezaugarri jakin batzuk dituzten pertsona-talde batzuentzako gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak irakatsi eta sustatzeko programak egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Ondokoak ebaluatzeko kontuan hartu beharreko parametroak adierazi eta zehaztea:
  - Mugimenezko garapenaren maila.
  - Trebetasun-maila.
  - Egoera fisikoaren maila.
  - Motibazio-maila.
- Pertsona-talde baten aurrean, pertsona bakoitzak atletismoaren, igeriketaren eta lantzen diren bertako ekintza indibidualen mugimenezko trebetasunen garapenari, egoera fisikoari, motibazioari eta burutzapenari dagokienez dituen mailak ezagutzea.
- Erabiltzaile-talde bat behar bezala zehaztuta agertzen den suposizioetan:
  - Helburu operatiboak erabiltzaileen ezaugarri, interes eta beharren arabera eta dauden baliabideei eta denborari jarraiki formulatzea.
  - Helburuak lortzeko beharrezkoa den saio bakoitzaren edukiak zerrendatzea.
  - Atletismoan aplikatu eta asimilatzeko ariketak eta/edo jokoak ezarri eta sekuentziaztea.
  - Garatu beharreko igeriketaren faseetarako (ohitura, flotazioa, arnasketa eta propulzioa) ariketa eta/edo jokoak ezartzea.
  - Lantzen diren bertako ekintza indibidualetan aplikatu eta asimilatzeko ariketak eta/edo jokoak ezarri eta sekuentziaztea.
  - Aukeratutako asimilazio-, aplikazio- edo motibazio-jokoaren garapena deskribatzea.
  - Irakasteko estiloren egokienaren aukeraketa justifikatzea identifikatutako aldagai guztiak kontuan hartuta.
  - Programatutako ekintzen praktiketarako beharrezkoak diren baliabide didaktikoak eta instalazioak zerrendatzea.

3. Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualen antolamendua, kontrola eta burutzapena aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Parte hartzen duen pertsona eta taldea motibatuzko erabil daitezkeen baliabideak adieraztea.
- Atletismoa, igeriketa eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualak irakatsi eta ikasteko prozesuari euskarria emateko erabil daitezkeen baliabideak aztertzea: erakustaldia, laguntza bisuala, ikus-entzunezko baliabideak, deskribapenak, eskuzko laguntzak eta laguntza mekanikoak.
- Atletismoko, igeriketako eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualetako mugimendu teknikoak egiteko modua erakustea.
- Mugimendu teknikoaren irudi erreal eta grafikoak erabiliz, fase bakoitzean burutzapen-akatsak detektatzea biomekanikoki egokia den ereduareferente izanik.
- Atletismoko, igeriketako eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualetako mugimendu teknikoetan izaten diren zailtasunak eta hauek murrizteko estrategiak eta burutzapen-akatsik ohikoak, hauen arrazoiak eta saihesteko eta/edo zuzentzeko modua adieraztea.
- Atletismoko eta igeriketako ekintzak eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualak garatzean ager daitezkeen arrisku-egoerak deskribatzea.
- Saioaren garapena ebaluatzeko kontuan hartu behar diren parametroak adieraztea.
- Atletismoa, igeriketa eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualak irakatsi eta ikasteko eta/edo sustatzeko egoera simulatu batzuen aurrean:
  - Saioaren helburu eta edukiei buruzko informazio garbia eta zehatza ematea.
  - Taldearekin komunikazioa erraztuko duen lekua hartzea.
  - Taldea kontrolatu eta motibatzea ahalbidetuko dion jarrera egokia hartzea.
  - Parte-hartzaileen eboluzioak behatzea eta beren aurrerapen edo hutsegiteei buruzko informazio egokia ematea.
  - Taldekideek parte hartzeko dituzten mugak eta aukerak ezagutzea.

4. Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualetarako instalazioen eta materialaren oinarrizko arauak eta ezaugarriak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Atletismoaren, igeriketaren eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualen oinarrizko arauak zuzen interpretatzea.
- Atletismoaren, igeriketaren eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualen berariazko materialaren eta material osagarriaren ezaugarriak definitzea.
- Atletismoan, igeriketan eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualetan aplikatu daitezkeen material alternatiboa eta jokoena zerrendatzea.
- Parte-hartzaile simulatu batzuk eta programaren helburuak zehaztuta, atletismoko, igeriketako eta bertakoak diren eta/edo gure ingurunean praktika zabala duten ekintza indibidualetako lehiaketa batean aplikatu beharreko arauak definitzea.
- Parte-hartzaileen ezaugarriak eta irakaskuntza- eta jolas-programa definituta agertzen diren suposizio praktikoen batean:
  - Saio bakoitzean erabiliko den materiala finkatzea.
  - Instalazioen aldaketak proposatzea ikaskuntza eta jolasa erraztu dezaten.
  - Jokoaren eta/edo lehiaketaren arautegian egiten diren egokitzapenak justifikatzea.

c) Edukiak

## I. multzoa: KIROL-EKINTZA INDIBIDUAL BAKOITZERAKO MUGIMENEZKO ZEREGINEN ETA EREDU TEKNIKOEN ANALISIA

Prozedurazkoak:

- Atletismoa, igeriketa eta bertakoak diren eta/edo ingurunean praktika zabala duten gorputz- eta kirol-ekintza indibidual guztiak zehaztea.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualeko modalitate bakoitzean ondokoak aztertu eta sailkatzea:
  - Egokitzapen fisikoko ariketak.
  - Inplikaturako oinarrizko trebetasunak garatzeko burutu beharreko zereginak.
  - Ekintza- eta modalitate-mota bakoitzari lotutako berariazko trebetasunak garatzeko burutu beharreko zereginak.
  - Ekintza eta modalitate bakoitzean aplikatu daitezkeen jokoak eta aurrekirolak.
- Mugimenezko zereginik ohikoenak aztertzea (gorputz- eta kirol-ekintza indibidualeko modalitate bakoitzean). Beren konplexutasuna eta burutzeko zailtasuna baloratzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualeko modalitate bakoitza burutzeko teknikak aztertzea.
- Landutako ekintza eta modalitate bakoitzean inplikaturako mugimendu tekniko bakoitzaren burutzapen-faseak identifikatu eta aztertzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualeko modalitate bakoitzean ondokoak esperimentatzea:
  - Egokitzapen fisikoko ariketak.
  - Beharrezkoak diren oinarrizko eta berariazko trebetasunak garatzeko burutu beharreko zereginak.
  - Joko eta aurrekirol aplikagarriak.
  - Kasu bakoitzerako burutzapen-teknika egokiak.
  - Bereizitako burutzapen-faseak.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

ATLETISMOA

- Modalitate bakoitzean esku hartzen duten mugimenezko trebetasunak eta zereginak.
- Burutzapen-teknikak: eraginkortasuna modalitate bakoitzean.
- Burutzapen-mekanismoak: pertzepzioa, erabakia eta burutzapena.
- Trebetasun-motak: oinarrizkoak eta berariazkoak.
- Egoera fisikoa. Garapen orokorra eta berariazkoa.
- Modalitate bakoitzari lotutako jokoak: orokorrak eta aurrekirolekoak.
- Atletismoko lasterketak.
  - Orokortasunak.
  - Oinkada baten faseak: zangoak, enborra eta besoak.
  - Abiadura-lasterketen ezaugarriak.

- Iraupen erdiko eta iraupeneko lasterketen ezaugarriak.
- Irteera. Motak eta ezaugarriak.
- Errelebuak: lekukoa emateko teknikak. Motak: laburra eta luzea.
- Hesiak. Hesi-igarotzearen ezaugarriak. Hesi altu eta baxuen arteko desberdintasunak.
- Ibilketa. Orokortasunak eta ezaugarriak.
- Atletismoko jauziak:
  - Luzera-jauzia. Korrikaldiaren, batidaren, hegaldiaren eta erorketaren ezaugarriak.
  - Altuera-jauzia. Korrikaldiaren, batidaren eta listoi-igarotzearen ezaugarriak.
  - Pertika-jauzia. Heltzearen, korrikaldiaren, batidaren, biribilkatzearen, listoi gaineko biraketaren eta erorketaren ezaugarriak.
  - Jauzi hirukoitza. Korrikaldiaren, batiden, hegaldien eta erorketaren ezaugarriak.
- Atletismoko jaurtiketak:
  - Pisu-jaurtiketa. Heltzearen, desplazamenduaren eta jaurtiketaren ezaugarriak.
  - Disko-jaurtiketa. Heltzearen, aurretiazko bulkaden, biraketaren eta jaurtiketaren ezaugarriak.
  - Xabalina-jaurtiketa. Heltzearen, korrikaldiaren, azken urratsen, gurutzaketaren eta jaurtiketaren ezaugarriak.
  - Mailu-jaurtiketa. Heltzearen, iraulketen, biraketaren eta jaurtiketaren ezaugarriak.

## IGERIKETA

- Ur-ingurunearekin ohitzea.
- Flotazioa, arnasketa eta propulsioa.
- Igeriketa-estiloak: crawl, bular-estiloa, bizkar-estiloa eta tximeleta-estiloa.
  - Estiloen ezaugarriak eta alderdi interesgarriak.
  - Gorputzaren posizioa estilo bakoitzean.
  - Zango-mugimendua.
  - Beso-mugimendua.
  - Estilo osoaren koordinazioa modalitate bakoitzean.
  - Crawl. Ezaugarriak. Gorputzaren posizioa. Zango-mugimendua. Beso-mugimendua. Estilo osoaren koordinazioa.
  - Bular-estiloa. Ezaugarriak. Gorputzaren posizioa. Zango-mugimendua. Beso-mugimendua. Estilo osoaren koordinazioa.
  - Bizkar-estiloa. Ezaugarriak. Gorputzaren posizioa. Zango-mugimendua. Beso-mugimendua. Estilo osoaren koordinazioa.
  - Tximeleta-estiloa. Gorputzaren posizioa. Zango-mugimendua. Beso-mugimendua. Estilo osoaren koordinazioa.
- Irteera eta biraketak. Ezaugarriak eta motak.
- Burutzapen-teknikak: eraginkortasuna modalitate bakoitzean.
- Burutzapen-mekanismoak: pertzepzioa, erabakia eta burutzapena.
- Trebetasun-motak: oinarrizkoak eta berariazkoak.
- Egoera fisikoa. Garapen orokorra eta berariazkoa.
- Modalitate bakoitzari lotutako joko eta ekintza ludikoak. Zirkuituak.

## BERTAKOAK DIREN ETA/EDO ERKIDEGOAN BEREZIKI ERROTUTA DAUDEN GORPUTZ-ETA KIROL-EKINTZA INDIBIDUALAK

- Ekintzaren jatorria eta egungo egoera.
- Ekintzaren ezaugarriak eta berezitasunak.
- Ekintzaren berezko teknikak. Estiloa. Mugimenezko zereginak.
- Ekintza praktikatzeko beharrezkoak diren trebetasunak.
  - Ekintzarako oinarrizko trebetasun egokiak lantzeko zereginak.
  - Berariazko trebetasunak lantzeko zereginak.
- Ekintza praktikatzeko beharrezkoa den egoera fisikoa:
  - Egokitzapen-ariketa egokiak. Helburuak.
- Esku hartzen duten burutzapen-mekanismoak. Esku-hartzearen maila.
- Burutzapen-faseak. Mugimendu teknikoak.
- Joko orokor eta aurrekirol-joko aplikagarriak.

## Jarrerazkoak:



- Erraztasuna, segurtasuna eta eraginkortasuna eredu teknikoak azaltzerakoan.
- Alderdi berriekiko interesa eta onarpena.
- Hobetzeko ahalegina behar adina menperatzen ez diren alderdietan.

## II. multzoa: APLIKAZIOARI, ASIMILAZIOARI ETA MOTIBAZIOARI LOTUTAKO EDUKIAK, JOKOAK ETA ARIKETAK GORPUTZ- ETA KIROL-EKINTZA INDIBIDUALEN PROGRAMAZIOAN

### Prozedurazkoak:

- Parte-hartzaileen ezaugarrien arabera eta dauden baliabideei eta denborari jarraiki, helburu operatiboak formulatzea.
- Programazioaren helburuak lortzeko programa baten eta saio bakoitzaren eduki egokiak aztertu eta baloratzea.
- Lanbide-moduluaren xede diren gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak ikasi eta sustatzeko joko orokor, aurrekirol-joko eta asimilazio-ariketa egokiak aukeratu eta sekuentziatzea.
- Lanbide-moduluaren xede den gorputz- eta kirol-ekintza indibidualako modalitate bakoitzerako aukeratutako asimilazio-, aplikazio- eta motibazio-jokoak aztertzea.
- Ezarritako helburuak lortzeko zereginak finkatu eta prestatzea.
- Programazioa ondo egiteko beharrezkoak diren baliabide didaktikoak zerrendatu eta justifikatzea.
- Ezarritako programa garatzeko beharrezkoak diren materialak eta instalazioak aztertzea.
- Atletismoaren esparruko “lasterketak”, “jauziak” eta “jaurtiketak” ikasi eta sustatzeko programazioak egitea.
- Ikasi eta sustatzeko programazioak egitea, ur-inguruneari egokitzekoak eta igeriketako “lau estiloak” ikasi eta hobetzekoak hain zuzen ere.
- Moduluaren xede diren ekintza indibidualako gainerako modalitateak ikasi eta sustatzeko programazioak egitea.
- Programazio bakoitzean ezinduen arreta eta integraziorako beharrezkoak diren egokitzapenak finkatzea.
- Edukiak, gaitasunak, trebetasunak, eskatutako maila teknikoa eta kirol-modalitate indibidual bakoitzean ebalua daitezkeen eta programazioan barne har daitezkeen gainerako alderdiak finkatzea.
- Egungo informatika-baliabideen bidez, eraginkortasun eta kalitatearekin eta kirol-modalitate bakoitzean, ekintzen fitxak diseinatu eta egitea.
- Kirol-modalitate bakoitzerako balorazio- eta ebaluazio-test egokiak egitea.
- Informazioa eguneratzeko teknikak aplikatzea informazio horren mantentze eguneratua bermatzeko.
- Informazioaren segurtasun-teknikak bidezkoa den aldizkakotasunarekin aplikatzea.
- Ariketak eta jokoak sekuentziatu, antolatu eta aukeratzea erabilitako informatika-baliabideez baliatuta.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualako modalitate bakoitzaren helburu operatiboak.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualako modalitate bakoitza ikasi eta sustatzeko programa batean barne hartu beharreko edukiak.
- Kasu bakoitzean eta modalitate bakoitzerako erabili beharreko baliabide didaktikoak.
- Ekintzen fitxak eta programazioari lotutako informazioa informatizatzeko alderdi interesgarriak.
- Programa batean barne hartu beharreko ohitzeko ariketak eta jokoak:
  - Atletismokoak.
  - Uretakoak.
  - Moduluaren xede diren bertako eta/edo ingurunean errotutako ekintza indibidualei lotutakoak.
- Atletismoko teknikekin, flotazio, arnasketa eta propulsiorekin eta lanbidearen xede den bertako edo interes orokorreko ekintza indibidualako modalitate bakoitzaren berezko teknikekin hasteko eta programa batean barne hartu beharreko ariketak.
- Atletismoko teknikak, igeriketako lau estiloak eta lantzen diren gainerako kirol-modalitateen berezko teknikak hobetzeko eta programa batean barne hartu beharreko ariketak.
- Atletismoa, igeriketa... ezintasunak dituzten pertsonentzat: kategoriak eta espezialitateak; ezaugarriak eta berariazko egokitzapenak.
- Ezarritako programazioan oinarrituta gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak ebaluatzeko beharrezkoak diren edukiak, irizpideak eta baliabideak.

### Jarrerazkoak:

- Antolamenduarekiko eta eraginkortasunarekiko kezka programazioan.
- Zorroztasuna ekintzen fitxak diseinatu, landu, mantendu eta ustiatzerakoan. Eraginkortasun, funtzionaltasun eta kalitatearekiko gustua.
- Informazioaren gaurkotetasun eta segurtasunaren balorazioa, eta zorroztasuna hori lortzeko teknikak aplikatzerakoan.
- Originaltasuna ekintzak eta ariketak programatzerakoan.
- Heldutasuna kirol-modalitate indibidual bakoitza ikasteko programa definitzen duten helburuak finkatu eta edukiak eta ariketak aukeratzerakoan.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualen programak lantzerakoan eredu tekniko eta teorikoak atsegin bihurtzeko gaitasuna eta interesa.

### III. multzoa: IRAKASKUNTZA/ANIMAZIOA: PARTE-HARTZAILEEN MAILA ETA METODOLOGIA

#### Prozedurazkoak:

- Parte hartzen duten pertsonen eta taldeen gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak —oro har— eta irakatsi eta ikasteko prozesuaren xede den berriazko modalitate bakoitza praktikatzeko duten motibazioa baloratzeko teknikak aztertzea.
- Parte-hartzaileen beharrak eta interesak identifikatzea.
- Parte-hartzaileen maila erreala finkatzea.
- Ezarritako programa batean, alde aurretik finkatutako helburu batzuetan, baliabide material eta denbora-baliabide batzuetan eta parte-hartzaile batzuegan oinarrituta, modalitate eta ekintza bakoitzean beharrezkoa den mugimenezko garapenaren, trebetasunaren eta egoera fisikoaren maila baloratzeko teknikak aztertzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualen modalitate bakoitzean, programan barne hartutako jokoak, ariketak eta ekintzak parte-hartzaileen aukera eta mugetara egokitzea.
- Ezarritako ikasi eta sustatzeko programazioak praktikan jartzea parte-hartzaileak eta baliabideak kontuan hartuta egindako egokitzapenekin:
  - Atletismoan: lasterketak, jauziak, jaurtiketak.
  - Igeriketan: ur-ingurunearekiko egokitzapena, igeriketa-estiloak.
  - Moduluaren xede diren ekintza indibidualen gainerako modalitateetan.
- Kirol-ekintza eta -modalitate bakoitza ikasi eta sustatzeko une bakoitzean egokiena den irakasteko estiloa aplikatu eta justifikatzea.
- Programazioan ezarrita dauden eta animazioarekin eta hastapenekin bat datozen baliabide didaktikoak aplikatzea.
- Irakaskuntzan eta animazioan ekintza, modalitate eta zirkunstantzia bakoitzarekin bat datozen jarrerazko baliabideak aplikatzea.
- Kirol-ekintza eta -modalitate bakoitza ikasi eta sustatzeko programa garatzen materialak eta instalazioak erabiltzea eta beren erabilera eta zaintza irakastea.
- Kirol-ekintza eta -modalitate indibidual bakoitzeko mugimendu teknikoaren erakustaldi praktikoa egitea ondokoak abiapuntutzat hartuta:
  - Zuzeneko erakustaldia eta azalpena.
  - Irudi erreal eta/edo grafikoaren proiektzioa eta aurkezpena.
- Burutzapen-akatsak identifikatu eta detektatzea:
  - Zuzeneko behaketa eginez.
  - Bideoak ikusiz.
  - Parte-hartzaile bakoitzaren iruzkinak eta mezuak kontuan hartuz.
- Ekintza eta modalitate bakoitzaren praktikan izandako burutzapen-akats teknikoak zuzentzea.
  - Gizakiaren organismoaren behar energetikoak, funtzionalak eta estrukturalak.
  - Metabolismoa eta elikadura. Energia-balantzea: ekarpen eta despentsa kalorikoa.
- Elikadura-beharrak, energia-ekarpen eta -kontsumoa, hidratazioa:
  - Pertsona sedentarioentzat.
  - Jardun “normaleko” pertsonentzat.
  - Gorputz- eta kirol-ekintzak garatu ohi dituzten pertsonentzat –praktikaren aurretik, praktikan bertan eta praktikaren ondoren–.
- Dieta. Elikadura-dietak. Ezaugarriak. Ondorioak.
- Energia-gastuaren, ekintzaren eta dieta orekatuaren arteko erlazioa. Taulak eta neurtzeko bestelako elementuak.
- Gorputz- eta kirol-ekintzek eta dieta orekatuek pisuaren kontrolean duten eragina.
- Ekintza fisiko, ariketa fisiko, forma fisiko, aisia, jolas eta kirolaren oinarriko kontzeptuak osasunaren ikuspuntutik.

- Ekintza fisikoak egungo gizartean:
  - Fitness izenekoak. Funtsa eta xedea.
  - Musika-euskarria duten ekintza fisikoek oinarrizko egokitzapen fisikorako dituzten posibilitateak.
  - Eskari handiko beste ekintza batzuk. Ezaugarriak eta xedea.
- Ekintza fisikoak osasunean dituen ondorio positiboak:
  - Higienea eta osasuna. Azturak eta jokabideak: dietetikoak, gorputzaren jarrerari lotutakoak, orokorrak.
  - Gorputz- eta kirol-ekintzen praktikak dakartzan onurak:
    - \* Gaixotasunak, alterazioak eta disfuntzioak hobetzeko (kardiopatia koronarioak, asma-prozesuak, diabetesa, osteoporosia, epilepsia, estresa eta afekzio psikologikoak, obesitatea, muturreko argaltasuna, hipertentsioa...).
    - \* Estetika eta irudia hobetzeko.
    - \* Koordinazioa, oreka, desinhibizioa eta abar hobetzeko.
    - \* Egoera fisiko orokorra hobetzeko.
- Osasunerako arriskuak:
  - Kontsumo-elementuek eta gizarteko beste faktore batzuek eragindakoak:
    - \* Estresak, alkoholak, estupefazianteek eta bestelako substantziek nerbio-sisteman eragiten dituzten ondorioak.
    - \* Tabakismoa eta aireztapena. Gastu kardiakoa.
    - \* Gorputz- eta kirol-ekintzen praktikan duten eragin negatiboa.
  - Gorputz- eta kirol-ekintzen praktikari lotuak:
    - \* Ondorio azpimarragarriak.
    - \* Prebentzio-metodoak eta -teknikak.
    - \* Kontraindikazioak (erabatekoak eta partzialak) ekintza fisikoen praktikan.
- Nekea: motak eta arrazoiak, detektatzeko irizpideak. Errekuperazioa.
- Errekuperazio fisiologikorako teknikak eta sistemak. Kontzeptua, organismoan dituzten ondorioak, eman beharreko urratsak eta jarraibideak, teknikak, material eta produktu osagarriak, indikazioak eta kontraindikazioak:
  - Luzatze-ariketak.
  - Masajea.
  - Saunak (finlandiarra, suediarra...).
  - Hidroterapia. (Kontrasteak, zorrotadak, talasoterapia...).
  - Erlaxazio-metodoak (Jacobson ...).
  - Errekuperazio-ariketak.

#### Jarrerazkoak:

- Errealismoa, interesa eta irmotasuna ondokoek egokitasuna egiaztatzean (pertsonekin):
  - Dietak.
  - Errekuperazio-teknikak.
- Zorroztasuna neke-seinaleak edo bestelako alterazioak behatu eta detektatzerakoan.
- Segurtasuna eta heldutasuna erabakiak hartzean.
- Errespetua eta kontu handia oharrak jakinaraztean.
- Profesionaltasuna taulak eta neurtzeko eredu estandarrek erabiltzean.
- Ikasteko prestasuna eta irekitasuna ekintzan aplikatu beharreko teknika, metodo eta baliabideen aurrean.
- Ezarritako harreman profesional/pertsonalaren ondorioz pertsonengandik jasotako informazioa erabili eta tratatzean zuhurtasuna baloratzea.
- Izpiritu ez diskriminatzailea.

### III. multzoa: INSTALAZIOAK, MATERIALAK ETA MAKINERIA EGOKITZAPEN FISIKOAN

#### Prozedurazkoak:

- Merkatuan gorputz- eta kirol-ekintzak eta egokitzapen fisikokoak garatzeko dauden baliabideak eta aukerak baloratzea. Ezaugarriak aztertzea. Kostua baloratzea.
- Instalazioak, makineria eta eskura dauden baliabide osagarriak baloratzea.
- Akatsak, alterazioak, arazoak eta/edo matxurak detektatzea.

- Egiteko eta aholkatzeko moduko aldaketak eta egokitzapenak eta dauden birjarpen-, berriztapen- eta inbertsio-beharrak finkatzea.
- Oinarrizko konponketak eta doikuntzak egitea, funtzionamenduan jartzea eta funtzionaltasuna eta egokitasuna egiaztatzea.
- Instalazioak prestatu, mantendu eta egokitzea;
  - Ariketa eta ekintza bakoitza garatzeko makineria eta baliabide osagarriak aukeratu, egokitu eta doitzea.
  - Baliabide materialak ekintza garatzeko eremu egokian kokatzea edo bertara eramatea.
- Material alternatiboa eraiki eta egokitzea:
  - Material alternatiboaren ezaugarriak eta lortu nahi diren helburuak identifikatzea.
  - Eskura dauden baliabideak identifikatzea eta beharrezkoak diren baliabideak zehaztea.
  - Eraiki beharreko materiala diseinatzea.
  - Diseinuari hobekien egokitzen zaizkion baliabideak eta materiala aukeratzea.
  - Materiala eraiki eta egokitzea.
  - Emaizta eta aurreikusitako helburuen lorpenarekin bat datorren baloratzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Merkatuan gorputz- eta kirol-ekintzak eta egokitzapen fisikokoak garatzeko dauden baliabideak eta aukerak (instalazioak, makineria, baliabide osagarriak). Ezaugarriak. Osatzen dituzten elementuak eta/edo materialak. Kostua. Soluzio alternatiboak. Bestelako alderdiak.
- Egokitzapen fisikorako instalazioak, konbentzionalak eta ez-konbentzionalak: motak; dimentsioak; kokapena; ezaugarri teknikoak eta segurtasunari buruzkoak; egoera eta funtzionaltasuna; erabilera-kostua; bestelako ezaugarri interesgarriak.
- Euskal Herriko eta inguruko ingurune naturala egokitzapen fisikoari eta gorputz- eta kirol-ekintzen praktikari begira. Puntu sendoak eta ahulak instalazio konbentzionalen aurrean. Aire zabalean egiteko ekintzarik egokienak.
- Egokitzapen fisikoko ekintzetarako material, makina eta elementu osagarri egokiak. Motak, ezaugarriak eta funtzioak. Bestelako alderdiak.
- Instalazioen erabilera aplikatu beharreko araudia. Egokitzapen fisikoko ekintzetan eta gorputz- eta kirol-ekintzen praktikan makinak eta baliabide materialak erabiltzeko arauak.

#### Jarrerazkoak:

- Materiala eta instalazioak erabiltzean arauak errespetatzea.
- Materiala eta instalazioak kontserbatzeko konpromisoa.
- Ekipamendua eta baliabide materialak pertsonari egokitzeko interesa.
- Gorputz- eta kirol-ekintzak eta egokitzapen fisikokoak praktikatzeko makinak, materialak eta gainerako elementu osagarriak aukeratu, erabili eta gomendatzean osasuna eta segurtasuna errespetatzea.
- Izpiritu ez-diskriminatzailea eta baliabide materialak, espazioak eta abar esleitu eta banatzeko interesa azaltzea.
- Ingurune naturalean gorputz- eta kirol-ekintzak eta egokitzapen fisikokoak garatzean, ingurunearekiko konpromisoa eta errespetua azaltzea.
- Informazio eta dokumentazioarekiko interesa eta gustua, prestatzeko eta merkatuko baliabide eta berrikuntzei etengabe egokitzeko bidetzat hartuta.

## IV. multzoa: EGOKITZAPEN FISIKOA ETA GORPUTZ- ETA KIROL-EKINTZEN PRAKTIKA OSASUN-BALDINTZETAN

#### Prozedurazkoak:

- Ebaluatze moduko alderdiak finkatzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzetan parte hartzen duenaren egoera fisiko eta funtzionala eta osasun-egoera baloratzea, ondokoan bitartez:
  - Behaketa.
  - Medikuntza- eta kirol-txostenak eta gaitasun-agiriak interpretatzea.
  - Balorazio-testak aplikatzea materiala prestatu eta protokoloak azaldu ondoren. Burutzapena ikuskatzea. Datuak hartu eta erregistratzea. Emaizak baloratzea.
  - Odol-presioa, maiztasun kardiakoa eta arnasketa-maiztasuna identifikatu eta neurtzea.

- Koordinazio- eta baldintzapen-gaitasunak neurtu eta baloratzea.
- Egoera fisikoa baloratzeko tresnak erabiltzea (erloju-pultsometroa...).
- Dauden lehen eta bigarren mailako arriskuak zehaztea.
- Datu interesgarriak (adina, pisua, sexua, egiten dituen kirol-ekintzak, historiala, lesioak, gaixotasunak, alergiak eta abar) bilduko dituzten fitxa pertsonalak diseinatu, egin eta erabiltzea.
- Ekintza bakoitzaren ezaugarriak eta berau garatzen deneko baldintzak (intentsitatea, zailtasuna, iraupena, garapen-faseak, beharrezko baliabideak, ingurumen-baldintzak...) identifikatzea.
- Ikaskuntzaren eta egokitzapen fisikoaren progresioak diseinatzea:
  - Taldekideen maila aztertzea.
  - Lortu beharreko mailak eta helburuak finkatzea (baldintzapen- eta koordinazio-gaitasunen garapena, giharrak garatzeko berariazko lana, egokitzapen fisiko orokorra...).
  - Pertsona baten gaitasun fisikoak emanda eta ezagutza fisiologikoak aplikatuta, ariketak eta ekintzak diseinatu eta/edo aukeratzea.
  - Beharrezkoak diren baliabideak, makineria eta materiala zehaztea eta erabiltzaileari egokitzea.
  - Ariketak eta ekintzak ordenatu eta sekuentziatzea.
  - Errepikapenen kopurua eta ariketa edo ekintza bakoitzaren iraupena eta intentsitatea finkatzea.
  - Grafikoak, txostenak eta fitxak egungo baliabideekin egitea.
- Ariketak eta ekintzak aztertzea:
  - Eman beharreko informazioa zehaztea.
  - Hartzailearen edo taldearen ezaugarriak identifikatzea eta bere egoera baloratzea.
  - Harreman eta komunikaziorako teknika eta estrategia egokia aukeratzea.
  - Mezua, informazioa edo komunikazioa igortzea.
  - Erakustaldi baterako beharrezkoak diren baldintzak baloratzea eta lekua aukeratzea.
  - Parte-hartzaileen ikuspena egiaztatzea.
  - Fase bakoitza astiro eta bereiz burutzea eta, aldi berean, dagokion azalpen tekniko eta taktikoa ematea.
  - Informazioaren harrera eta ulermena eta erakustaldia bera kontrolatzea.
- Ekintzari, berau egiten deneko instalazio edo inguruneari, ekintzaren exijentzia-mailari eta pertsonen eta taldearen perfilari egokitutako berariazko segurtasun- eta prebentzio-neurriak hartzea.
- Burutzapen-fasean, egokitzapen fisikoa eta/edo parte-hartzaileen ekintzaren garapena planifikatu, antolatu, zuzendu eta kontrolatzea:
  - Ikusteko leku egokia aukeratzea.
  - Ekintzaren jarraipena egitea eta parte-hartzaile bakoitza behatzea.
  - Akatsak, neke-sintomak edo lesio-arriskua detektatzea.
  - Behaketaren ondoren lorpenak, hutsegiteak eta gainerako ondorioak jakinaraztea, arrazoiak azaldu eta frogatzea eta egon daitezkeen soluzioetarako orientabidea ematea.
- Egindako ahaleginaren eredu zuzko erantzuna taulen, pultsuaren eta pultsometroaren bidez neurtzea.
- Programatutako gorputz- eta kirol-ekintzetan parte hartzen duenaren egoera fisiko eta funtzionalaren eboluzioa eta osasun-egoera aldizka baloratzea.
- Emaizak eta eboluzioa jakinaraztea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Egoera fisikoa eta mugimenezkoa:
  - Gaitasun fisikoa. Zehaztapena, sailkapena. Gaitasun fisikoak garatzeko oinarri metodologikoak.
  - Barne- eta kanpo-karga.
  - Egoera fisikorako eta mugimenezko egoerarako entrenamenduaren printzipioak eta osagaiak: zehaztapena eta sailkapena.
  - Baldintzapen-gaitasunak: indarra, erresistentzia, abiadura eta malgutasuna. Motak, funtsezko faktoreak, printzipioak.
  - Koordinazio-gaitasunak: oreka eta bizkortasuna.
- Metabolismoa eta ahalegina. Energia-iturriak, ATP sortzeko sistema aerobiko eta anaerobikoak.
- Lan aerobiko eta anaerobikorako muskulu-egokitzapenak.
- Ekintza fisikoak ondokoetan dituzten ondorioak:
  - Bihotzean eta sistema baskularrean —“Stady-State”, oxigeno-defizita, maiztasun kardiakoa, bolumen sistolikoa—.
  - Arnasketa-sisteman.
  - Nerbio-sisteman.

- Sistema endokrinoan.
- Arnas aparatua ariketarekin jasaten dituen alterazioak:
  - Arnasketarako airearen banaketa biriketan eta espirometria.
  - Arnasketa-bolumena, arnasketa-maiztasuna eta minutuko aireztapena.
  - Aireztapen albeolarra.
  - Bizi-gaitasuna.
  - Gehieneko oxigeno-kontsumoa.
- Arnasa hartu eta botatzeko giharrak.
- Egokitzapen fisikoko ekintzak eta gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi, jarraitu, kontrolatu, egokitu eta ebaluatzeko teknikak.
- Gorputz- eta kirol-ekintzaren ebaluazio eta kontrolaren kontzeptua. Ezaugarriak eta helburuak.
- Ebaluazio- eta kontrol-testa. Testaren ezaugarriak: baliotasuna, fidagarritasuna, objektibotasuna eta estandarizazioa.
- Test-sortak. Aukeratzeko era erabiltzeko irizpideak.
- Pertsona baten egoera fisikoa baloratzeko tresna interesgarriak:
  - Erloju-pultsometroa. Erabilera- eta irakurketa-sistema. Datuak pultsometroaren memoriatik ordenagailu batera eramateko modua. Fidagarritasuna.
  - Ahalegin-probak: motak, xedea, fidagarritasuna eta arriskuak.

#### Jarrerazkoak:

- Irmotasuna eta sistematizazioa emaitzak egiaztatzean eta akatsak detektatu eta zuzentzean.
- Parte-hartzaileen ezaugarriak eta dauden baliabideak emanda, errealismoa eta interesa programazioen egokitasuna egiaztatzerakoan eta programazioak egokitzerakoan.
- Parte-hartzailearekin, egoera fisikoaren hobekuntza eta pertsonen arteko harremanetan gogobetetzea bilatzea.
- Parte-hartzaileen ezaugarriak emanda, ordena eta metodoa lanean: programatutako ekintzak antolatu, sekuentziatu eta lehenestean, denbora banatzean, helburuak zehaztean.
- Errespetua eta lankidetzaren pertsonak eta lan-taldeak koordinatzeko funtzioetan.
- Ordutegiarekiko konpromisoa, ekintzan emandako denbora aprobetxatuta.
- Motibazioa gorputz- eta kirol-ekintzen praktikan eta ekintzak sustatzeko funtzioaren aurrean.
- Ahalmen sortzailea eta originaltasuna ekintzak eta ariketak programatzean.
- Emaitzak hobetzeko interesa.
- Osasunarekiko, ingurumenarekiko eta segurtasunarekiko errespetua.
- Interes eta izpiritu ez-diskriminatzailea.
- Ezarritako arauarekiko errespetua parte-hartzaileei arreta eskaintzerakoan.
- Parte-hartzaileen iritziekiko errespetua eta arreta.
- Amultsutasuna, errespetua, kontua, tolerantzia, malgutasuna eta adeitasuna parte-hartzaileekiko tratuan eta komunikazioan.
- Besteengandik ikasteko prestasuna eta irekitasuna teknika, prozesu, ariketa, ekintza eta alderdi berrien aurrean.

## 6. lanbide-modulua. ASTIALDIKO ETA GIZARTE-HEZIKETAKO ENPRESA TXIKIEN ANTOLAMENDUA ETA KUDEAKETA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Enpresa txikiei, organismoiei eta kolektiboiei buruzko sektoreko azterlanak egiteko garaian, beharrezko informazioa lortu eta baloratzeko prozedura eta teknika egokiak aplikatzea.
2. Indarrean dagoen legeriaren arabera, sektoreko enpresa txiki bat eratu eta martxan jartzeko prozedurak aztertzea.
3. Sektoreko jardueretako enpresa txiki batean barne hartutako zerbitzuak egiteko baliabideen antolamendua eta kudeaketa aztertzea.
4. Enpresa txiki baten kudeaketari buruzko oinarriko administrazio-prozedurak aztertzea eta sortutako dokumentazioa interpretatzea eta/edo lantzea, indarrean dagoen legeria aplikatuta.
5. Gorputz- eta kirol-ekintzetako enpresa batean gara daitezkeen sustapen-ekintzak aztertzea.

## b) Ebaluazio-irizpideak

1. Enpresa txikiei, organismoiei eta kolektiboei buruzko sektoreko azterlanak egiteko garaian beharrezko informazioa lortu eta baloratzeko prozedura eta teknika egokiak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gizarte- eta merkatu-ikerketarako gehien erabiltzen diren tekniken ezaugarri eta aplikazio nagusiak deskribatzea.
- Lehen mailako, bigarren mailako, zuzeneko eta zeharkako iturriaren kontzeptua azaltzea eta iturri bakoitzetik informazioa ateratzeko prozedurak zehaztea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzetako enpresa txiki baten ezarpenak eskatzen dituen parametroak zehaztea.
- Ekintzen eskaintza orokor bat zehazteko beharrezkoa den informazioa eta hura lantzeko irizpideak eta prozedurak adieraztea.
- Jarduerak garatzean egindako zerbitzuaren kalitatea baloratzea ahalbidetuko duten parametroak identifikatzea.
- Egindako zerbitzuaren kalitatea ebaluatu ahal izateko informazioa biltzeko teknikak deskribatzea.
- Ingurunearen egoerari buruzko informazioa ematen duten parametroei buruzko behar bezala ezaugarritutako datu batzuetatik abiatuta:
  - Ingurunearen egoerari buruzko informazioa emango duten datu estatistikoak aplikatzea.
  - Lortutako emaitzak estatistikoki interpretatu eta aztertzea eta ondorioak ateratzea.
  - Ateratako ondorioetatik abiatuta, ezar daitezkeen jarduerak eta zerbitzuak zehaztea.
- Behar bezala ezaugarritutako suposizio batetik abiatuta, sektoreko enpresa txiki baten ezarpenari buruzko azterketa bat egitea beharrezkoa izanik:
  - Azterketan eragina duten aldagaiak identifikatzea.
  - Informazio-iturriak eta hura lortzeko prozedurak identifikatu eta aukeratzea.
  - Informazio-beharretara egokituko den datuak biltzeko formatua lantzea.
  - Bildutako informazioa interpretatzea, beharrezko teknikak aplikatuta.
  - Ezarpeneko beharrezkotzat jotzen diren baliabideak identifikatzea.
  - Enpresa sortzeko bideragarritasuna ebaluatzea.
- Helburuak, populazioa, baliabideak eta ereduak zenbait jardura (baldintzak, helburuak eta abar barne direla) behar bezala identifikatuko dituen suposizio batetik abiatuta, jardura eta zerbitzuen eskaintza baten aukeraketa justifikatzea.
- Populazio-segmentu jakin baterako zehaztutako informazio-beharrak agertzen dituen suposizio batetik abiatuta:
  - Segmentuaren lagin adierazgarria definitzea.
  - Horretarako informazio egokiena lortzeko aukeratutako teknika justifikatzea.
  - Eskatutako datuak biltzeko galdera-sorta bat lantzea.
  - Informazioa lortzea, horretarako aukeratutako teknikak aplikatuta.
  - Bildutako informazioa interpretatzeko trataera estatistiko egokiena aukeratu eta aplikatzea.
  - Azterlanaren ondoren ateratako ondorioak bilduko dituen txostena lantzea.
  - Lana lortu eta aurkezteko informatika-aplikazio egokiak erabiltzea, horretarako emandako jarraibideak betez.
- Aldaketak edo alternatibak emateko ekimena eta izaera kritikoa izatea.
- Lanak egitean autonomia izatea.

2. Indarrean dagoen legeriaren arabera sektoreko enpresa txiki bat eratu eta martxan jartzeko prozedurak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Enpresaren forma juridikoak bereiztea eta kasu bakoitzean hura eratzeko erantzukizun-maila eta gutxieneko legezko baldintzak identifikatzea.
- Indarrean dagoen legeriak enpresa bat eratu eta ezartzeko eskatzen dituen izapideak deskribatzea, beharrezko dokumentuak, horiek bideratzeko organismoak eta ezarritako forma eta epea zehaztuta.
- Sektoreko enpresa txiki baten jardura arautzen duen berariazko legeria interpretatzea.
- Sektoreko enpresa txiki bat eratu eta martxan jartzeko behar bezala ezaugarritutako suposizio praktikoa batetik abiatuta:
  - Zehaztutako suposizioan aplikatu beharreko indarreko legeria identifikatu eta interpretatzea.

- Eskatutako dokumentazioa bideratzen duten organismo ofizialak identifikatzea eta hura lortzeko kudeaketak egitea.
- Eskatutako dokumentazioa behar bezala betetzea eta hura bideratzeko prozesua deskribatzea.
- Dagokion mailan, egoera edo arazo jakin batzuen aurrean erabaki koherenteak hartzeko jarrera azaltzea.
- Sektoreko ereduzko enpresetan aplika daitezkeen joera eta lan-modu berritzaile edo desberdinak behatzeko interesa azaltzea.

3. Sektoreko jardueretako enpresa txiki batean barne hartutako zerbitzuak egiteko baliabideen antolamendua eta kudeaketa aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektoreko ereduzko enpresa baten funtzio-arloak eta horien arteko erlazio funtzionala deskribatzea.
- Enpresa-antolamendua zuzentzen duten printzipioak eta haren hierarkizazioa deskribatzea: errentagarritasuna, produktibitatea, eraginkortasuna, kalitatea, segurtasuna, bideragarritasuna.
- Antolamendua eraginkor egiten duten elementuak eta faktoreak adieraztea.
- Sektoreko enpresa baten egitura azaltzea eta bere ereduzko sail baten funtzioak deskribatzea.
- Sektoreko jardueren sail edo eremu batean lana antolatzeko kontuan izan beharreko funtsezko aldagaiak identifikatzea.
- Alde batetik inbertsioaren, gastuaren eta ordainketaren eta bestetik sarreraren eta kobrantzaren arteko desberdintasunak zehaztea.
- “Aktibo”, “pasibo galdagarri” eta “garbi” kontzeptuak definitzea eta horien arteko funtsezko erlazioa zehaztea.
- Sektoreko ereduzko enpresa txiki batek ibilgetuan inbertitzeko dituen funtsezko beharrak identifikatzea.
- Aurrekontu bat lantzeko prozedura deskribatzea.
- Sektoreko enpresa baten ondare-egoera baloratzeko gehien erabiltzen diren ekonomia- eta finantzarioek ematen duten informazioa interpretatzea.
- Lan-kontratuetakota mota desberdinen oinarritzko ezaugarriak deskribatzea eta horien baldintzak, iraupena, lanaldia, formalizazio-izapideak eta, hala badagokio, dirulaguntzak eta salbuespenak identifikatzea.
- Sektoreko hitzarmen kolektiboa arautzen duten lan-aldagaiak zehaztea.
- Enpresari autonomoaren lan-betebeharrak zehaztea eta eskatutako dokumentazioa eta izapideak, prozedurak eta ezarritako epeak identifikatzea.
- Sektoreko finantzaketa-iturriak eta -moduak deskribatzea.
- Kreditu-entitateek eskaintzen dituzten finantzaketa-alternatibei buruz ematen duten informazioa interpretatzea eta alternatiba bakoitzak dituen abantailak eta eragozpenak ondorioztatzea.
- Bezeroekin eta hornitzaileekin negoziatzeko eta bezeroari erantzuteko tekniken oinarritzko printzipioak azaltzea.
- Merkatuan dauden jardueren, zerbitzuen eta produktuen eskaintzetatik abiatuta, horietatik onuragarriena zein den zehaztea, ondoko parametroak kontuan izanda:
  - Merkatuko prezioak.
  - Ordutegi-zabaltasuna.
  - Jardueren katalogoa eta egutegia.
  - Eskariari entregatzeko eta/edo erantzuteko epeak.
  - Kalitateak.
  - Deskontuak eta ordainketa-baldintzak.
  - Bermea.
  - Saldu ondoko arreta tekniko-profesionala.
- Behar bezala ezaugarritutako jardueren programa batetik abiatuta:
  - Programarako antolamendu-egiturarik egokiena deskribatzea.
  - Programa burutzeko giza baliabiderik egokienak eta kontratazio-modua identifikatzea.
  - Beharrezko baliabide materialak ondorioztatzea.
  - Merkatuari buruzko informazioa biltzea eta dagokion programarako gutxi gorabeherako aurrekontua egitea.
  - Dagokion programarako finantzaketa-motarik egokiena identifikatzea.
- Betiere, garatzen duen lanaren erantzukizuna hartzea.

4. Enpresa txiki baten kudeaketari buruzko oinarriko administrazio-prozedurak aztertzean eta sortutako dokumentazioa interpretatzean eta/edo lantzean (indarrean dagoen legeria aplikatuta), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Enpresaren trafikoan eragina duten zeharkako zergen eta etekinen gaineko zuzeneko zergen ezaugarriak deskribatzea.
- Banakako enpresei eta sozietateei dagokien zerga-egutegia zehaztea.
- BEZaren zerga-erregimenak eta horiek zein subjektu pasibori aplikatzen zaizkion azaltzea.
- Indarrean dagoen araudiaren arabera, enpresak nahitaez bete behar dituen liburuak eta dokumentuak adieraztea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzetako enpresa txiki baten jardueran sortzen diren oinarriko merkataritza-dokumentuak identifikatu eta ezaugarritzea eta horien funtzioa eta bete behar dituzten legezko baldintzak bereiztea.
- Ondasun higiezinak salerosi eta alokatzeko kontratuen oinarriko lege-baldintzak identifikatzea.
- Nomina batek barne hartzen duen informazioa eta gizarte-segurantzarako kotizazio-dokumentuak identifikatu eta interpretatzea.
- Ekonomia- eta finantza-informazioaren kontabilitate-prozesuak dituen faseak deskribatzea.
- Kontu korronteak eta aurrezkiak likidatzean, merkataritza-efektuen kobrantza eta deskontua kudeatzean eta bankuko maileguak eta kreditu-lineak eman eta amortizatzean jarraitzen den prozedura azaltzea.
- Hornitzaileen eskaintzak aukeratzean kontuan hartu behar diren eta negoziatu daitezkeen parametro garrantzitsuak deskribatzea.
- Enpresaren jarduerak duen errentagarritasunari buruzko informazioa lortzeko bide ematen duten ratio nagusiak azaltzea.
- Egoera-balantzeak eta emaitzen kontuak ematen duten funtsezko informazioa interpretatu eta deskribatzea.
- Behar bezala ezaugarritutako salerosketa-eragiketetatik abiatuta eta dokumentu-eredu eta informatika-programa egokiak erabilia, ondoko dokumentu hauek egokiak lantzea:
  - Eskaera-oharrak.
  - Albaranak eta fakturak.
  - Kanbio-letrak.
  - Ordainagiriak.
  - Txekuek.
  - Jarduerari lotutako berariazko beste batzuk.
- Jarduerari lotutako dokumentazioaren izapideak eta kudeaketa kudeatu eta ikuskatzea.
- Aldaketak edo alternatibak emateko ekimena eta izaera kritikoa izatea.
- Lanak egitean autonomia izatea.

5. Gorputz- eta kirol-ekintzetako enpresa batean gara daitezkeen sustapen-ekintzak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektorean erabili ohi diren sustapen-tresnak edo -baliabideak identifikatu eta deskribatzea.
- Sustapen-baliabideak helburuekin eta xede den publikoarekin erlazionatzea.
- Sustapen-tresna gisa erabili daitezkeen publizitate-baliabideak, -euskarriak eta -moduak deskribatzea.
- Publizitate-jarduera diseinatzeko aplikatzen diren teknika psikologiko nagusiak deskribatzea.
- Emaiza egokia lortzeko, sustapen-kanpaina batean kontrolatu beharreko aldagaiak zehaztea.
- Publizitatearen eraginkortasuna neurtzeko metodo nagusiak aztertzea eta horien abantailak eta eragozpenak azaltzea.
- Enpresa jakin baten jarduera-programa orokorrari buruzko behar bezala ezaugarritutako suposizio praktikoa batean:
  - Zehaztutako suposizioari egokitutako sustapen-baliabideren bat aztertzea.
  - Sustapen-baliabide egokia aukeratzea eta dagokion enpresaren xede gisa hartutako publikoarengan horrek sor ditzakeen eragin psikologikoak azaltzea.
  - Sustapen-mezuaren edukia eta forma zehaztea.
- Betiere, garatzen duen lanaren erantzukizuna hartzea.
- Aldaketak edo alternatibak emateko ekimena eta izaera kritikoa izatea.



## c) Edukiak

### I. multzoa: GORPUTZ- ETA KIROL-EKINTZETAKO ENPRESA TXIKI BATEN ERAKETA ETA ANTOLAMENDUA

#### Prozedurazkoak:

- Gizarte- eta merkatu-ikerketan informazioa lortzeko teknika edo prozedura egokiak identifikatzea.
- Estatistika gizarte- eta merkatu-ikerketan aplikatzea.
- Bidezko teknikak eta prozedurak aplikatuta, sektoreari eta merkatuari buruzko informazioa lortu eta baloratzea.
- Bidezko teknikak eta prozedurak aplikatuta, sektorearen egungo eskaintza eta etorkizuneko joera osatzen duten jarduera, zerbitzu eta produktuei buruzko informazioa lortu eta baloratzea.
- Ereduzko enpresa baten eta bere ingurunearen egitura funtzionala eta antolamenduzkoa aztertzea.
- Sektorearen erregulazioan oinarritzekoak diren legeria-alderdiak bereizi eta aztertzea. Lege-hutsuneak baloratzea.
- Sektoreko enpresa bat eratu eta martxan jartzeko beharrezkoak diren prozedurak aztertzea.
- Hainbat helburu eta zirkunstantzia kontuan hartuta, sektoreko enpresa batentzako forma juridiko egokia finkatzea.
- Sektoreko enpresak sortzeko beharrezkoak diren giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak zehaztea.
- Sektoreko enpresa bat eratu eta martxan jartzeko beharrezkoak diren organismoak eta entitateak eta enpresaren kokapena identifikatzea.
- Sektorean aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak aztertzea.
- Kontratuak, nominak eta gizarte-aseguruak aztertu eta bereiztea.
- Giza baliabideen arloko beharrak finkatzea. Ezaugarriak identifikatzea. Kostua kuantifikatzea.
- Enpresa-jardueran eragina duten zerga-betebeharrak identifikatzea.
- Jarduerari eta sektoreari lotutako laguntza eta kapital-dirulaguntza ofizialak baloratzea.
- Enpresaren merkataritza-estrategia finkatzea:
  - Aurreikus daitekeen merkatu-kuota eta fakturazio-bolumena baloratzea.
  - Xede diren bezeroen ezaugarrien estimazioa egitea.
  - Enpresa-politikak (produktu edo zerbitzuari, prezioei, komunikazioari eta abarri buruzkoak) zehaztea.
- Ekonomia- eta finantza-plan bat zehaztea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzetako ereduazko enpresa bat eratu, antolatu eta martxan jartzen dela simulatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Merkatuen ikerketa:
  - Ikerketaren helburuak.
  - Ikerketaren plangintza.
  - Informazioa biltzeko teknikak: behaketa, inkesta, elkarrizketa...
  - Merkataritza-ikerketan aplikatzeko soziologia.
  - Merkataritza-ikerketan aplikatzeko psikologia.
  - Merkataritza-ikerketan aplikatzeko estatistika.
- Enpresa gorputz- eta kirol-ekintzen sektorean:
  - Kontzeptua, helburuak eta funtzioak.
  - Enpresa-motak.
  - Sektorean aplikatzeko legeria-alderdiak.
  - Sektoreko ereduazko enpresen forma juridikoak:
    - \* Enpresari indibiduala eta ondasun-erkidegoak.
    - \* Merkataritza-sozietateak.
  - Enpresa baten ereduazko organigrama.
- Enpresa legeztatzeko izapide ofizialak –aurkeztu beharreko dokumentazioa, zein organismo eta lekura jo behar den, baloratu beharreko kontsiderazioak– eta dokumentazioa:
  - Enpresari indibiduala eta ondasun-erkidegoa.
    - \* Aldez aurreko kontsulta Eusko Jaurlaritzako dagokion lurralde-ordezkaritzarekin.

- \* Aldez aurreko hirigintza-kontsulta.
- \* Ondare Eskualdaketen gaineko Zergaren likidazioa.
- \* Borondatezko inskripzioa Merkataritza Erregistroan.
- \* Inskripzioa Industria Jabetzaren Erregistroan (jarduera propioa, jardueran aplikatzeko moduko produktu baten eredia eta abar erregistratu behar izanez gero soilik).
- \* Inskripzioa Higiezinaren Jabetza Erregistroan (jabetzako lokalen kasuan).
- \* Udal-baimenak: obra-lizentziaren eskaera, jarduera gogaikarriei buruzko espedientea, iragarki, errotulu, erakusleho eta abarretarako bestelako baimenak, irekiera-lizentziaren eskaera.
- \* Ondasun-erkidegoa sortzeko kontratu zibila sinatzea.
- \* Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren eskaera.
- \* Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartzea.
- \* BEZ zergan alta hartzea eta BEZaren eta sarrera eta gastuen liburuak eskuratzea.
- \* Matrikula eta Bisita Liburuak eskuratu eta legezztatzea.
- \* Lantokiaren irekierari buruzko komunikazioa.
- \* Merkataritza-liburuak (inbentario, balantze, egunkari, akta eta abarrenak) eskuratu eta legezztatzea.
- \* Gizarte Segurantzako autonomoen erregimen berezian alta hartzea.
- Merkataritza-sozietatea:
  - \* Aldez aurreko kontsulta Eusko Jaurlaritzako dagokion lurralde-ordezkaritzarekin.
  - \* Aldez aurreko hirigintza-kontsulta.
  - \* Izen bereko beste sozietaterik ez dagoela ziurtatzen duen agiriaren eskaera.
  - \* Eraketari eta Estatutuei buruzko eskritura.
  - \* Ondare Eskualdaketa eta Agiri bidezko Egintza Juridikoen gaineko Zergaren likidazioa.
  - \* Inskripzioa Merkataritza Erregistroan.
  - \* Inskripzioa Industria Jabetzaren Erregistroan (jarduera propioa, jardueran aplikatzeko moduko produktu baten eredia eta abar erregistratu behar izanez gero soilik).
  - \* Lokalaren inskripzioa Higiezinaren Jabetza Erregistroan (jabetzako lokalen kasuan).
  - \* Udal-baimenak: obra-lizentziaren eskaera, jarduera gogaikarriei buruzko espedientea, iragarki, errotulu, erakusleho eta abarretarako bestelako baimenak, irekiera-lizentziaren eskaera.
  - \* Identifikazio Fiskaleko Zenbakiaren eskaera.
  - \* Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta hartzea.
  - \* BEZ zergan alta hartzea eta BEZaren eta sarrera eta gastuen liburuak eskuratzea.
  - \* Enpresaren inskripzioa Gizarte Segurantzako eta patronal-zenbakiaren lorpena.
  - \* Enpresa Gizarte Segurantzako Lan Istripuetarako eta Gaixotasun Profesionaletarako Erregimenean edo mutualitate patronal batean alta hartzea.
  - \* Kontratututako langileak Gizarte Segurantzako afiliatzea.
  - \* Matrikula eta Bisita Liburuak eskuratu eta legezztatzea.
  - \* Lantokiaren irekierari buruzko komunikazioa.
  - \* Merkataritza-liburuak eskuratu eta legezztatzea.
  - \* Tokiko hainbat zerga eta tasatan alta hartzea.
  - \* Berriazko beste batzuk.
- Sozietate kooperatiboen berezitasunak.
- Enpresa sortzeko giza baliabideak eta baliabide materialak eta ekonomikoak:
  - Lokalen, eraikinen eta lurren errentamendua, eskualdaketa edo erosketa.
  - Altzariak, makineria eta bestelako baliabide materialak –erosketa, alokairua, leasing (eros-alogera)–. Kantitateak, kalitatea...
  - Langileen ezaugarriak. Funtzioak.
- Laneko harremanak:
  - Lan-kontratuak:
    - \* Kontzeptua.
    - \* Motak. Berezitasunak.
  - Gizarte Segurantzako afiliazioa:
    - \* Alta.
    - \* Baja.
    - \* Sektorean eta jardueran aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboak.
  - Nominak eta gizarte-aseguruak:
    - \* Soldaten ordainagiria.

- \* TC1.
- \* TC2.
- \* TC2/1.

#### Jarrerazkoak:

- Zorroztasuna datuak eta informazioa tratatu eta interpretatzean.
- Objektibotasuna antolamendu-egitura zehazteko, informazioa lortzeko eta forma juridiko egokia aukeratzeko garaian dauden aukerak zehaztean.
- Ekimena eta izaera kritikoa ideiak edo alternatibak ematean.
- Autonomia erabakiak betetzean.
- Erabaki koherenteak hartzeko jarrera, hala eskatzen duten egoeren eta arazoaren aurrean.

## II. multzoa: GORPUTZ- ETA KIROL-EKINTZETAKO ENPRESA TXIKI BATEN KUDEAKETA

#### Prozedurazkoak:

- Sektoreko enpresen jardura kudeatzeko teknikak identifikatzea.
- Administrazio-kudeaketa egokia ahalbidetuko duten administrazio-dokumentazioa, merkataritza-liburuak, banku-zerbitzuak eta artxibatze-teknikak identifikatzea.
- Enpresaren zerga-betebeharren (BEZ, PFEZ) likidazioak kalkulatzeko.
- Sozietateen gaineko Zergaren oinarritzako analisia egitea.
- Enpresa txiki baten jarduerari lotutako finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta bestelako laguntzak aztertzea.
- Enpresaren ekonomia- eta finantza-ratioak informatikoki kalkulatzeko.
- Salerosketan negoziatzeko teknikak identifikatzea.
- Bezeroaren psikologia aztertzea eta bezeroari arreta eskaintzeko teknikak finkatzea.
- Eskura dauden baliabideetan oinarrituta, sustapen-tresnak konbinatzea.
- Erabilitako sustapen-ekintzaren eraginkortasuna aztertzea.
- Ereduzko jardueren eta zerbitzuen eskaintza bat lantzea.
- Jardueraren eta egindako zerbitzuen kalitatea neurtzea.
- Beharrezko informatika-programak erabilita, enpresa baten kudeaketa simulatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Administrazio-kudeaketa:
  - Merkataritza-dokumentuak:
    - \* Merkataritza-gutunak.
    - \* Eskaera.
    - \* Emate-agiria.
    - \* Faktura.
    - \* Kanbio-letra.
    - \* Txekeak.
    - \* Jardueraren beste berariazko batzuk.
  - Merkataritza-liburuak:
    - \* Egunkaria.
    - \* Nagusia.
    - \* Inbentarioak eta balantzeak.
    - \* Igorritako eta jasotako fakturak.
    - \* Kutxako osagarria.
    - \* Bankuetako osagarria.
    - \* Korrespondentziaren sarrera eta irteera.
  - Enpresa txikirako banku-zerbitzua:
    - \* Kontu korrontea.
    - \* Aurrezki-kontua.
    - \* Letra-deskontua.
    - \* Ondasun higiezinak alokatu eta salerosteko kontratuak.
  - Artxiboa.

- Enpresaren finantza-kudeaketa:
  - Finantzaketa-iturriak:
    - \* Propioa.
    - \* Kanpokoak:
      - ⇒ Ustiapenerako dirulaguntzak.
      - ⇒ Maileguak:
        - ◆ Baloratu beharreko baldintzak: interes-tasa, komisioak, gastuak...
        - ◆ Amortizazioak: amortizazio konstantea, urteko konstantea...
- Merkataritza-kudeaketa:
  - Kontsumitzailearen psikologia.
  - Negoziazio-prozesuaren analisisia.
  - Negoziazioaren oinarriko osagaiak:
    - \* Elkarrizketa.
    - \* Limurtasuna.
    - \* Xedea.
    - \* Akordioa.
  - Negoziazio-teknikak:
    - \* Hornitzailearen/bezeroaren tipologia.
    - \* Produktuen tipologia.
    - \* Giroa.
  - Negoziazioa finkatzea:
    - \* Akordio-puntuak.
    - \* Itxieraren unea.
    - \* Arazoak itxieran.
  - Bezeroarentzako arreta-teknikak.
  - Sustapena:
    - \* Definizioa, funtzioak eta publizitate-motak.
    - \* Sustapen-ekintzaren teknika psikologikoak:
      - ⇒ Kontsumitzailearentzako pizgarriak.
      - ⇒ Sustapen-mezuak.
- Sektorean aplikatutako kalitatea:
  - Oinarriko printzipioak.
  - Teknikak eta aldagaiak.
- Zerga-betebeharrak:
  - BEZ.
  - PFEZ.
  - Sozietateen gaineko Zerga.
- Informatika:
  - Testu-prozesadorea.
  - Datu-basea.
  - Kalkulu-orria.
  - Administrazio-, merkataritza- eta kontabilitate-kudeaketarako softwarea.

#### Jarrerazkoak:

- Zuhurtasuna jardun-planak lantzean, intereseko kolektibora hurbiltzea ahaztu gabe.
- Ordena eta metodoa zereginak esleitu eta garatzean eta dokumentazioa lantzean.
- Egiten duen lanarekiko erantzukizuna.
- Enpresa-esparruan indarrean dagoen araudia errespetatzea.
- Limurtasuna eta ezagutza-datuak baloratzea.

## 7. lanbide-modulua. LEHEN LAGUNTZAK ETA URETAKO SOROSPENA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Lesio edo gaixotasun bakoitzean eman beharreko lehen laguntzak identifikatzea.
2. Istripu- edo lesio-motaren arabera eta ezarritako protokoloei jarraiki, lehen laguntzetako teknikak aplikatzea.
3. Instalazio eta ur-zona naturaletako arrisku-posibilitateak eta uretako erreskatea egiteko jarraitu beharreko prozedurak aztertzea.
4. Uretako salbamenduko maniobrak segurtasun eta eraginkortasunez egitea.

## b) Ebaluazio-irizpideak

1. Lesio edo gaixotasun bakoitzean eman beharreko lehen laguntzak identifikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lesio edo traumatismorik esanguratsuenen kasuan, ondokoak adieraztea:
  - Prebentziorako kontuan hartu beharreko alderdiak, ekintza garatzen deneko ingurunearen arabera.
  - Eragiten dituzten kausak.
  - Sintomak.
  - Jarraibideak.
- Istripu bat izan duena zaintzeko jarraitu beharreko prozedura azaltzea.
- Ingurunearen eta ekintza fisikoaren arabera, istripu eta lesiorik ohikoenak deskribatzea.
- Arriskua gehiegizkoa izateagatik edota esku-hartzea beste profesional batzuen berariazko zeregina izateagatik zuzenean ez esku hartzea eskatzen duten kasuak eta/edo zirkunstantziak bereiztea.
- Larrialdietarako botikin baten gutxieneko edukia eta substantzien eta sendagaien oharrak deskribatzea.

2. Istripu- edo lesio-motaren arabera eta ezarritako protokoloei jarraiki lehen laguntzetako teknikak aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Arriskua gehiegizkoa izateagatik edota esku-hartzea beste profesional batzuen berariazkoa izateagatik modu autonomo batean aplikatu behar ez diren teknikak bereiztea.
- Hainbat lesio- edo istripu-mota agertzen direneko egoeretan ondokoak finkatzea:
- Jarduteko lehentasunak, larritasunaren eta lesio-motaren arabera.
- Aplikatu beharreko lehen laguntzetako teknikak.
- Hainbat suposiziotan eta simulazioa erabilita, ondokoak egitea:
  - Inmobilizazio-teknikak.
  - Heskailurik egokienak.
  - Gorputz arrotzak ateratzea.
  - Odoljariora eteteko maniobrak.
  - Gaixoa edo istripu bat izan duen pertsona lekualdatzeko maniobrak.
- Gaixoak eta/edo istripuren bat izan dutenak immobilizatzeko eta garraiatzeko ohatilak eta sistemak prestatzea eta, horretarako, material konbentzionalak eta material ez-berariazkoak edo zorizko baliabideak) erabiltzea.
- Maniki batzuetan bihotza eta birikak suspertzeko teknikak aplikatzea.

3. Instalazio eta ur-zona naturaletako arrisku-posibilitateak eta uretako erreskatea egiteko jarraitu beharreko prozedurak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Testuinguru fisikoa eta ekintza behar bezala definituta agertzen direneko suposizio bat emanda, segurtasuna optimizatzeko prebentzio- eta/edo jakinarazpen-prozeduren aplikazioa deskribatu eta/edo simulatzea.
- Uretako istripu baten aurrean, jarduteko sekuentzia zehaztea.
- Arriskuan dauden pertsonen sorosteko euskarri gisa erabil daitezkeen materialak zerrendatzea: buien eta soken jaurtiketa...
- Murgilaldi bat egin ahal izateko ezaugarriak eta baldintzak adieraztea.
- Pertsona baten edo gehiagoren uretako salbamendua eskatzen duen egoera simulatu batean:
  - Arriskua ekar dezaketen ur-instalazio natural edo artifizial baten ezaugarriak aztertzea: korrontea, tenperatura, oztopoak...
  - Pasaguneak eta ontziratze eta lehorreratzeko lekuak identifikatzea.

- Ingurunearen baldintzen eta pertsonen gorputz- eta buru-egoeraren arabera, salbamendua egiteko teknika egokia aukeratzea.
- Uretako salbamenduak eskatzen dituen berariazko baldintzak azaltzea, salbamendua egiten deneko ingurunearen arabera (igerilekuak, ur-parkeak, itsasoa, ibaiak, urtegiak, lakuak eta izotza).

#### 4. Uretako salbamenduko maniobrak segurtasun eta eraginkortasunez egitean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Pertsona bat 100 metrotan zehar eramatea 25 metroko teknika desberdina erabilia eta, gehienez ere, 4 minutuko denboran.
- Pertsonaren egoera kontuan hartuta eta ur-ingurune zirkunstantzia desberdinetan, presa eta “zafadura” egokiak egitea.
- Uretan murgildu, 50 metro igeri egin (crawl estiloan), gutxienez 2 metroko sakoneran murgilduta dagoen maniki bat erreskatatu eta, teknika egokia erabilia, eramatea, 3 minutu t’erdiko denboran gehienez ere.
- Ondoko distantziak igeri egitea:
  - 100 metro crawl estiloan eta 1 minutu eta 50 segundoko denboran gehienez ere.
  - 300 metro crawl estiloan, galtzak eta elastikoa jantzita eta 9 minutuko denboran gehienez ere.
  - 300 metro hegatsen laguntzarekin eta 6 minutuko denboran gehienez ere.
- Salbamenduko pilota bat gutxienez 12 metroko distantzia batera eta 2-2,5 metroko zabalera batean mugatutako espazio batera jaurtitzea 1 minutu eta 30 segundoko denboran gehienez ere.

#### c) Edukiak

### I. multzoa: ISTRIPUEN PREBENTZIOA HAINBAT INGURUNETAN

#### Prozedurazkoak:

- Medikuntza- eta kirol-txostenak eta gaitasun-ziurtagiria behatu eta interpretatzearen bitartez gorputz- eta kirol-ekintzen erabiltzailearen egoera fisiko eta funtzionala eta osasun-egoera baloratzea eta lehen eta bigarren mailako arriskuak zehaztea.
- Ur-instalazio eta -espazioetan zaintza-lanak egitea.
- Ekintzari, hau egingo deneko inguruneari eta ekintzaren exijentzia-perfilari egokitutako berariazko segurtasun-neurriak hartzea.
- Sorospen-seinaleak bereizi, igorri eta ulertzea.
- Zaintza-postuen kokapena aukeratzea.
- Alarma-sintomak eta -zeinuak identifikatzea.
- Murgiltze-sindromearen prebentziorako segurtasun-neurriak hartzea: bainatu aurretik, murgiltzeko unean eta bainatzean.
- Hondartza-mota desberdinak, hondartzen segurtasun-arloko seinaleztapena eta dituzten eta eduki ditzaketan zaintza- eta salbamendu-zerbitzuak identifikatu, bereizi eta zehaztea.
- Ur-ingurunean erabili ohi diren salbamendu-materialak identifikatzea eta erabilera, maneiua, kontserbazioa eta mantentzea bereiztea.
- Lehen laguntzetako botikin bat antolatzea.
- Esku-hartze medikoa ezinezkoa edo desegokia deneko kasuak bereiztea eta horren arabera jokatzeko.
- Egoerak hala eskatzen duenean, beharrezkoak diren medikuntza-zerbitzuak erabili eta erreklamatzeko.
- Txostenak prestatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Uretako sorospena: kontzeptua, posibilitateak eta mugak.
- Uretako sorospenaren alderdi etiko eta sozialak.
- Sorospenari lotutako alderdi juridikoak.
- Salbamendua eta sorospena Euskadin.
- Uretako soroslearen lanbide-perfila.
- Istripuen prebentziorako baliozko aholkuak:
  - Ur-ingurunean: zaindutako zonetan bainatzea...
  - Ekintza fisikoak –oro har– garatzean: ekintzaren exijentzia-perfila, erabiltzailearen perfila.

- Uretako soroslearen jardunaren alderdi orokorrak biktima erreskatatzeko lanetan, bere egoera orokorraren ebaluazioa egitean (hasierako ebaluazioa) eta kasu bakoitzean beharrezkoak diren neurriak hartzean (lehen laguntzak).
- Ur-ingurune salbamenduaren estaldura: hondartza-mota desberdinak, igerilekuak, ur-parkeak.
- Hondartzen, igerilekuen eta ur-parkeen seinaleztapena eta bertako araudia.
- Itoaldi eta asfixiaren eta hidrokuzioaren prebentziorako neurriak.
- Arrisku-faktoreak hidrokuzioaren aurrean. Tenperaturari eta zirkulazio-banaketari lotutako kausak. Uretatik berehala irtetera behartzen duten sintomak.
- Lesio edo traumatismo garrantzitsuen kausak, sintomak eta jarraibideak: akidura, hipotermia orokorra, krisi kardiakoa, alterazio gastrointestinalak eta beste batzuk.
- Zaintza eta abisurako ekipamendua eta materiala.
- Larrialdi-zerbitzuak: toki-organismo eta -erakundeak eta orokorrak. Jarraitu beharrek arauak.
- Sorospen-seinaleak eta esanahia.
- Ohiko arrisku eta istripuak hainbat inguruetan: ibaian, itsasoan, igerilekuan, ur-parkean, urtegian...
- Berriazko lesioen kausak, sintomak eta tratamenduak ondokoetan:
  - Ur-ingurunean eta inguruetan: azaleko zauri eta ebaki txikiak, kontusioak, eguzkiaren eta tenperaturaren ondorioak, artikulazio eta hezurretako lesioak, karranpak...
  - Kiroldogietan eta ingurune naturaleko ekintzetan: artikulazio eta hezurretako lesioak, karranpak, mendi-gaitza, apendizitisa, pneumonia, pozoidurak, elurretako oftalmia, alterazio gastrointestinalak...
- Lehen laguntzetako botikina: sendaketa-materiala eta tresneria, sendagaiak —analgesikoak, lasaigarriak, antimikrobiarrak, sendagai gastrointestinalak...—, arretak eta dosiak. Berrikusi eta eguneratzeko irizpideak.
- Medikuntza-hornidura pertsonala irteera eta txangoetarako. Talde txiki eta handientzako botikinak.

#### Jarrerazkoak:

- Prebentzioaren balorazio positiboa.
- Bere burua besteen zerbitzurako eskaintzeko gogoazaltzea eta posibilitate eta muga pertsonalak bere gain hartzea.
- Higiene- eta osasun-arauekiko errespetua.
- Zuhurtasuna pertsonen eta taldeen buruzko informazioa eta datuak jaso eta tratatzean.
- Pertsonak eta ingurunea behatzeko interesa.
- Zorroztasuna sendagaiak aukeratzean.
- Lehen laguntzetako botikina mantentzeko eta behar bezala erabiltzeko interesa.
- Objektibotasuna eta zorroztasuna “Arriskutsua izan daitekeen Norbanakoa” baloratzean eta alarma-sintomak eta -zeinuak identifikatzean (ekintzaren aurretik, ekintzan eta ekintzaren ondoren).
- Osasun-laguntzako edo erreskateko zerbitzuekin lankidetzan, talde-lanean parte hartzeko eta laguntzeko interesa.
- Osasun-laguntzako edo erreskateko zerbitzuen oharrekiko konfiantza.
- Segurtasuna biktimen ebaluazioaren balorazioetan eta portaera pertsonalean.
- Ekintza baterako inguruneak dakartzan arriskuen aurrean koherentzia azaltzea.
- Norberaren babesarekiko interesa eraginkortasun-maila galdu gabe arrisku-maila txikiagotzeko.

## II. multzoa: URETAKO ERRESKATEA

#### Prozedurazkoak:

- Itxurazko arrisku-mailari jarraiki eta programatutako irteeretan bisitatutako eta bainatzeko, ur-jokoak praktikatzeko... ur-instalazioen eta ingurune naturalen analisiaren ondorioz, zaintza-puntuak proposatzea eta instalazioak sailkatzea.
- Prebentzio-zerbitzurako hainbat ur-instalazioetako (igerilekuak, ur-parkeak, hondartzak...) gutxieneko giza baliabideak eta baliabide materialak proposatzea.
- Hainbat begiztatze-suposiziotan, arazoa detektatzea, egoera aztertzea eta erabakiak hartzea.
- Arriskuan dauden pertsonen eta hauen egoera, portaera eta zeinuen balorazio orokorra egitea.
- Hurbileko elementuen ingurunearen baldintzak, lehorreko euskarrietarako distantzia, uraren egoera eta abar behatu eta aztertzea.
- Arriskuan dauden pertsonengandik informazioa lortzeko prozedurak aplikatzea.

- Egoeraren diagnosis egitea eta erreskatearen estrategia zehaztea. Bidezkoa izanez gero, salbamendu-materiala prestatzea.
- Arazoa konpontzeko aukeratutako ekintzak burutzea: uretan sartzeko lekua eta modua aukeratzea, uretan sartzea eta murgiltzea (bidezkoa izanez gero).
- Arriskuan dauden pertsonengana hurbiltzeko teknikak aplikatzea eta, horrela, igeriketa aplikatuko teknikak eta igeriketa-estilo praktikoak eta ekonomikoak erabiltzea. Biktima ontzirantz edo lehorrerantz eramatea (salbamendu-txalekoaren, buiaren eta abarren laguntzarekin). Uretatik irtetea. Erreskatearen azken ebaluazioa egitea.
- Material osagarria maneiitzea eta bere prebentzio-mantentzea egitea.
- Tresneria osagarria erabiltzearen komenigarritasuna ebaluatzea.
- Lehorreko edo gainazaleko salbamendurako prozedura desberdinak erabiltzea ondoko teknikak erabilia: gako-pertika bidez erreskatatzeko teknika, soka edo flotagailua jaurtitzeko teknika...
- Igeriketa bidezko salbamendurako hainbat prozedura orokor eta berariazko erabiltzea ingurunearen arabera (igerilekua, ibaia, itsasoa, izotza...).
- Biktima uretatik ateratzeko eta lasaitzeko prozedura eta teknika egokia erabiltzea zirkunstantzien arabera: konorterik gabeko biktima, konortearekin, zenbait pertsonaren artean eta abar.
- Istripua identifikatzea, biktima traumatikoa uretan maneiitzea eta erreskate-prozedura aplikatzea.
- Urpean igeri egiteko, apnean igeri egiteko eta presioaren ondorioak txikiagotzeko teknikak aplikatzea.
- Ez esku hartzea eskatzen duten egoerak eta egin behar ez diren ekintzak identifikatzea.
- Manikia eramateko eta heltzeko metodoak eta teknikak erabiltzea (garondo-bekokitik, lokietatik, besoa bizkarrean jarrita, besapeetatik...) bi soroslerekin eta/edo sorosle bakararekin eta istripua izan duten bi pertsonarekin.
- Defentsak eta presen kontrako “zafadura-teknikak” erabiltzea: burutik edo lepotik helduz gero libratzeko “zafadurak”, eskuetatik edo eskumuturretatik helduz gero libratzekoak, bularretik helduz gero libratzekoak... eta unibertetsala.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Uretako istripuak: prebentziozko lan-teknikak eta prebentzio-sistemak.
- Zerbitzua betetzeko estrategiak eta helburuak.
- Erabiltzaileak eta ekintzak zaindu eta ikuskatzeko teknikak: uretako distresaren eta itotzearen zeinuak, arriskua duten erabiltzaileen kontrola, ekintzen kontrola, eskaneatzea, RID faktorea.
- Instalazio estatiko eta dinamikoetarako zaintza-sistema egokiak.
- Uretako salbamenduaren faseak: begitatztea, erreferentzia-puntuak, arropa eta oinetakoei edo uraren ezaugarriari (uhertasuna, korronea...) buruzko kontsiderazioak.
- Uretan sartzeko sistemak, biktimarengana hurbiltzeko jarraibideak, hurbiltzeko igeriketaren ezaugarriak, biktimarekin kontaktatzea (gainazalean, hondoan...).
- Salbamenduko materialaren motak, sailkapena eta ezaugarriak. Funtzioa eta erabilera. Mantentzea eta oinarritzko konponketak. Zorizko materiala. Salbamenduko ontzia.
- Erreskatea egiten deneko instalazio edo lekuaren arabeko erreskate-materiala: salbamendu-uztaia, pertika, erreskate-tutua eta abar igerileku eta ur-parkeetan, eta erreskate-lata eta -tutua, salbamendu-taula eta abar hondartzetan.
- Murgiltzearen prebentzio-alderdiak. Printzipio fisikoak.
- Murgilketak. Formak. Urpeko material sinplearekin, urpeko material konplexuarekin eta materialik gabe. Murgilketak egiteko printzipioak. Urpekariaren urrezko arauak.
- Barotraumatismoak. Kontzeptua. Jaistean gertatzen diren gorabeherarik ohikoenak. Igotzean izaten diren istripuak.
- Gasen toxikotasuna sakoneraren ondorioz.
- Nitrogenoaren deskonpresioak eragindako istripuak.
- Ur-instalazioen (igerilekuak, ur-parkeak, hondartzak eta abar) ezaugarriak. Ekintzak, erabiltzaileak, ingurunea, ingurumen-faktoreak, baliabide materialak eta giza baliabideak (Gurutze Gorriaren gomendioak).
- Ur-ingurunearen ezaugarriak: ur gazia, ur geza, petrolioa duen ura, ur kloratua...
- Bainatzeko zonetarako eta ur- eta kirol-ekintzetarako xedapenak. Araudi orokorra.
- Ur-ekintzen seinale erregulatuak. Itsasoko segurtasun-arauak.
- Ur-parkeetan betetako postuaren arabeko berariazko funtzioak: irteerako soroslea, helduerako soroslea, bitartekoa, olatudun igerilekuetako soroslea...
- Egoera berezietan (“irristagailuetan” gelditutako edota harrera-igerilekuetan gelditutako ikasle edo bezeroekin, zoladuretan gertatutako erorketak) beharrezkoak diren jarraibideak.



- Bisitari minusbaliatu edo, oro har, ezintasunak dituztenenganako arreta-berezitasunak.
- Salbamenduko material bidezko erreskate-teknikak.
- Hainbat inguruneren berezkoak diren uretako salbamenduaren baldintzak.
- Igerilekuak: ingurunea, materiala, jarduna eta arretak.
- Ur-parkeak: oinarritzko ezaugarriak.
- Hondartzak. Motak. Hondartzetako seinaleztapena. Zaintza- eta salbamendu-zerbitzuak. Ebakuazioak, miaketak, Ur-inguruneari lotutako ekologia.
- Itsasoko, ibaietako, urtegietako, lakuetak eta izotzetako salbamendua: meteorologia, ingurunea, jarduna eta antolamendua, arretak, salbamendu-arloan indarrean dagoen araudia.
- Autosalbamendua. Urperaketa, ontzia uztea, “gizakia uretan”, iraupen luzeko flotazioa, “automobila uretan”.
- Pertsona “atoian” eramatearen oinarritzko helburuak. Eramateko sistemak edo metodoak.
- Pertsona eramateko metodoak eta eramandako pertsonaren segurtasuna metodoaren eta soroslearen arteko egokitzapena, azkartasuna eta erresistentzia bermatzeko. Pertsona eramateko metodoek jarraitu beharreko printzipioak. Propultsioa eta arretak metodoa aukeratzean.
- Biktima ur-ingurunetik ateratzeko sistemak. Uretatik irteteko sistemak. Printzipio orokorrak. Irteerak motak lekuaren arabera (igerilekua, hondartza, ontzia...).
- “Zafadurak”. Ezaugarriak. Sorosleak agertu beharreko jarrera.
- Presa, “zafadura”, kontrapresa. Istripua izan duenak harrapatzea saihesteko norabideak.

#### Jarrerazkoak:

- Salbamendu-materiala eraginkortasun- eta higiene-baldintzetan kontserbatzeko interesa.
- Jarduteko protokoloetan adierazitako arauak eta gomendioak betetzeko interesa.
- Osasun-laguntzarako edo erreskaterako zerbitzuekiko konfiantza eta lankidetzak.
- Segurtasuna “dakiena” eta “egiten dakiena” aplikatzean (zirkunstantzien arabera eta kontrako baldintzetan).
- Entzute eta interpretazio egokia.
- Amultsutasuna eta adeitasuna arriskuan dauden pertsonen tratua.
- Portaera pertsonalaren kontrola kontrako egoeretan eta egoera tragikoetan.
- Zorroztasuna higiene- eta osasun-arauak behatzean, norberaren eta beste osasuna baloratzean eta erreskatatutako pertsonen lekualdaketa eta ebakuazioa egiteko lanetan ingurumena estimatu eta baloratzean.
- Koherentzia salbamendu-ekintzetarako boluntarioen jarduna koordinatzean eta arriskuan dagoen hainbat pertsonari aldi berean laguntza ematean.
- Zorroztasuna ekintzak lehenestean eta erabakiak hartzean (arriskuan dauden pertsonen dagokienez), erreskatatutako pertsonen lekualdaketa- edo ebakuazio-beharretan, salbamendua aurreikusitako baldintzetan egin ezin denean.
- Segurtasun-arauekiko errespetua eta zorroztasuna arau horiek exijitzean eta okerreko ekintzak gaitzestean.
- Keinuetan zuzentasuna erakustea eta pertsonentzat zuzena, garbia eta lasaigarria izatea.
- Desplazamenduan eta erreskatean azkartasuna eta eraginkortasuna baloratzea.

### III. multzoa: LEHEN LAGUNTZAK

#### Prozedurazkoak:

- Soroslearen jarduna istripu baten kasuan.
- Istripuaren larritasuna baloratzea eta jarduteko komenigarritasunari eta jarduketan lehenespeneri buruzko erabakia hartzea.
- Istripuak larrialdi-sistemen bidez jakinaraztea.
- Zeinu eta sintoma orokorrak miatu eta identifikatzea eta gaixoaren edo istripua izan duenaren balorazio orokorra egitea.
  - Sintomak eta bestelako datu interesgarriak abiapuntutzat hartuta, gaixoari edo istripua izan duenari buruzko informazioa lortzea.
  - Hasierako balorazioa egitea.
  - Bizi-konstanteen azterketa egitea, istripua izan duenarekin komunikatzea...
- Diagnostika egin ondoren burutu beharreko ekintzak zehaztea.

- Lehen laguntzetako protokoloak aplikatzea: istripua izan duen pertsona kokatu eta prestatzea, osasun-materiala aukeratu eta prestatzea eta, protokoloen arabera, larrialdi-sendaketak egitea edo esku hartzea.
- Zauriak identifikatu eta baloratzea eta horien aurrean jardutea:
  - Eskuak higienikoki garbitzea.
  - Zauriak garbitzea.
  - Aposituak eta hesgailuak jartzea.
  - Inmobilizazio-hesgailuak jartzea.
- Odoljario baten larritasuna, faktoreak eta abar baloratzeko irizpideak aplikatzea.
- Gaixo batengan edo istripu bat izan duen pertsonarengan desplazamendu-modu normalak eragozten dituzten zeinuak eta sintomak identifikatzea: garezur eta entzefaloko traumatismoak, buru, aurpegi eta lepoko lesioak, bizkarrezurreko lesioak, traumatismo torazikoak, sabeleko traumatismoak, politraumatismoak.
- Traumatismo mekanikoen eta lokomozio-aparatuko lesioen kasuan, itxaron- eta lekualdaketa-jarrerak zehaztea.
- Ferulak egitea eta behar bezala finkatzea (eskuko hatzetan, eskuan, besaurrean, besoan, sorbalda-luxaziorako behin-behineko euskarria, klabikularen behin-behineko euskarria, oina eta orkatila...).
- Orno zerbikaletarako lepokoak eta ferula pneumatikoa jarri, doitu eta ixtea.
- Guraize-ohatila doitu, ireki eta jartzea eta uhalak jartzea.
- Haustura, zaintiratu, luxazio eta muskulu-lesioetan, erredura, intsolazio, bero-sinkope, izozketa, hipotermia, hidrokuzio, toxikazio, ziztada, hozkada eta anafilaxietan (traumatismo fisiko eta kimikoetan) eta odoljarioetan, zeinuak eta sintomak identifikatzea eta larritasuna baloratzea.
- Suposiziopeko biktima batzuk lekualdatzeko jarrera egokian ipintzea. Lekualdaketa simulatzea eta, horretarako, teknika eta gaixo-mota desberdinak erabiltzea. Gorabehera handiko lurretan (eskailerak, eremu malkartsuak eta abar) egiteko lekualdaketa simulatzea.
- Lekualdaketa-maniobrak egiteko eskura dauden baliabideak identifikatzea.
- Traumatismo fisiko eta kimikoetan jarduteko protokoloak aplikatzea.
- Kanpoko odoljario baten kasuan egin beharreko ekintzak identifikatzea. Kaltetutako zona ipini, presionatu eta altxatzea. Konpresio-puntuak aplikatzea eta “antishock” jarreran jartzea.
- Gaixoak edo istripuren bat izan dutenak jaso eta lekualdatzeko ohatilak edo antzeko tresnak material konbentzionalekin edo zorizko baliabideekin egitea (Sokazko ohatila bat, eskiak dituen eserleku inprobisatu bat, eskiak dituen ohatila inprobisatu bat, kakola inprobisatu bat, makulu inprobisatu bat, aulki bidezko garraioa eta abar egitea).
- Bihotz- eta arnas erreanimazioaren kasuan egin beharreko ekintzak identifikatzea. Arnasa egiaztatzeko jarrera simulatzea (“ikusien-entzun-sentitu”). Bihotz- eta birika-erreanimazioarako jarreran ipintzea. Pultsu karotideoa egiaztatzea. Bihotz- eta birika-erreanimazioarako teknika desberdinak aplikatzea. Kanpoko masaje kardiakorako teknika aplikatzeko konpresio-puntuak kokatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Jarraibide orokorrak istripu baten aurrean: babestu-jakinarazi-sorotsi.
- Bihotz- eta birika-erreanimazioarako tresneria. Elementuak, erabilera eta maneiua –Guedel kanulak, anbuia edo baloi suspertzailea, oxigenoterapiarako maleta, jariakin-zurgagailu elektrikoa–.
- Gaixoaren hasierako ebaluazioaren faseak: lehen miaketa eta lehentasun-plana, kontzientzia-egoeraren ebaluazioa, aire-bidearen kontrola, arnasketaren balorazioa, zirkulazioaren balorazioa eta odoljario akutuaren kontrola, suspertze-fasea, bigarren miaketa (burua, lepoa, toraxa, sabela, gorputz-adarrak) eta behin betiko tratamendua.
- Bizi-konstanteak –pultsua, tentsioa, tenperatura eta arnasketa-maiztasuna– neurtzeko teknikak. Erreferentziazko balio normalak.
- Larrialdi-zerbitzuak: organismo eta erakunde orokorrak eta tokikoak. Larrialdi-sistemekiko komunikazioan kontuan hartu beharreko alderdiak. Informazioaren ezaugarriak eta motak.
- Istripuren bat izan dutenak zaintzeko lehentasunak ezartzeko irizpideak.
- Lokomozio-aparatuaren lesioen kausak: zuzeneko traumatismoak, zeharkakoak, tortsio-indarrak eta haustura patologikoak.
- Hezurretako lesioak (hausturak), artikulazioetako lesioak (zaintiratuak eta luxazioak), muskuluetakoa lesioak (kontusioak, muskulu- eta tendoi-urraturak eta tendoi-hausturak).
- Eragilearen izaeraren arabera traumatismoak: mekanikoak, fisikoak, kimikoak.

- Traumatismo fisikoak. Hotzak, beroak eta elektrizitateak eragindako lesioak. Zeinuak eta sintomak, sortzeko mekanismoak eta jarduteko protokoloak izozketa, hipotermia, hidrokuzio, erredura, intsolazio, bero-sinkope eta elektrokuzioen aurrean.
- Traumatismo kimikoak: zeinuak eta sintomak, sortzeko mekanismoak eta jarduteko protokoloak anafilaxia, toxikazio, ziztada eta hozkaden aurrean.
- Presio-aldaketak eragindako nahasteak. Nahaste hipobariko eta hiperbarikoak. Kontzeptua, kausak, sailkapena, sintomak eta jarduketa-arauak: mendi-gaitza, biriketako edema, gas-bolumenaren aldaketak eragindako lesioak, gasen portaeraren aldaketak sortutako alterazioak, gasaren toxikotasunak sortutako alterazioak eta abar.
- Kontzientziaren alterazioak, asfixiak eta bihotz- eta arnasketa-gelditzeak. Kontzeptua, kausak, sailkapena, sintomak eta jarduketa-arauak lipotimia, sinkope, shock, koma, asfixia (itotako asfiktikoa eta hidrokuzioz itotakoa), arnasketa-gelditze eta bihotz-gelditzeen aurrean.
- Azaleko lesioak. “Zauri” kontzeptua. Kausak, motak. Zaurien prebentziorako kontuan hartu beharreko alderdiak. Zaurien tratamenduko printzipio orokorrak.
- Infekzioa. “Asepsia” eta “antisepsia” kontzeptuak.
- Egoera berezien aurrean (anputazioak, organo-protusioa eta iltzatutako objektuak) beharrezkoak diren jarraibideak.
- Traumatismo handiak. Balorazio- eta jarduketa-protokoloak garezur eta entzefaloko traumatismoak eragiten dituzten istripuetan. Erreskatean eta garraioan kontuan hartu beharreko irizpideak.
- Buru, aurpegi eta lepoko lesioak –begi, sudur eta belarrietako gorputz arrotzak–. Bizkarrezurreko lesioak, traumatismo torazikoak, sabeleko traumatismoak eta politraumatismoak. Balorazio- eta jarduketa-protokoloak.
- Tresna bidezko immobilizazioa. Orno zerbikaletarako lepokoa, ferula pneumatikoak, guraize-ohatila, bizkarrezurrerako taula eta abar.
- Hesgailuak: ezaugarri orokorrak, argibideak, motak eta teknikak.
- Kargak eta pisuak altxatzearen kontzeptu biomekanikoa.
- Itxaron-jarrerarako maniobren, jarduketa-protokoloaren eta gaixoa edo istripua izan duen pertsona jaso eta lekualdatzeko protokoloaren ezaugarriak haustura-, zaintiratu-, luxazio- edo odoljario-sintomen arabera.
- Garraioaren printzipio orokorrak: larrialdiarekin edo larrialdirik gabe.
- Zaurituak altxatea: alderdi orokorrak, jasotzeko printzipioak eta teknikak. 4, 3 eta 2 ohatilarekin altxatzeko metodoak eta ohatila bat husteko metodoak.
- Bihotz- eta arnas erreanimazioa. Kontzeptua. Xedea. Jarduketa-protokoloa. Bihotz- eta birika-erreanimazioan gehien sortzen diren arazoak. Soluzioak. Aire-bideen butxadura, jarduketa-eskema. Bihotz- eta birika-erreanimaziorako metodoak.
- Odoljarioak: kontzeptua, motak eta sailkapena. Odoljarioen azterketa, zeinuak eta sintomak. Odoljarioak kontrolatzeko jarduketa-protokoloak (presio digitala, konpresio-hesgailuak, konpresio-puntuak, torniketea). Odoljario-shocka. Kontzeptua, sintomak, jarduketa-protokoloa.

#### Jarrerazkoak:

- Autodiziplina, jarrera positiboa eta gaitasun operatiboak.
- Arazoak ebazteko prozesuen sistematizaziorako joera.
- Zorroztasuna laguntzen lehentasuna ezartzean, erabakiak hartzean eta ebakuazio- eta lekualdaketa-prozesuetan.
- Ordena eta metodoa lanean eta miaketa eta ezarritako jarduketa-protokoloen araberako lehen laguntzak sekuentziatu eta antolatzean.
- Lehen laguntzak eta sendaketak aplikatzean segurtasuna eta higiena baloratzea.
- Aldi berean hainbat istriputan laguntza eman beharra suertatzen den kasuan lehen laguntzak emateko giza baliabideak –profesionalak eta boluntarioak– gidatu eta koordinatzeko interesa.
- Lanari lotutako betebeharrakiko konpromisoa.
- Zorroztasuna lehen laguntzetako materiala eraginkortasun- eta higiene-baldintzetan kontserbatzean.
- Errespetua eta zorroztasuna berehalako osasun-arretarako protokoloetan adierazitako arauak eta gomendioak betetzean.
- Talde-lanean parte hartzea eta lankidetzan aritzea.
  - Osasun-laguntzako zerbitzuekiko edo erreskate-zerbitzuekiko lankidetzan.
  - Osasun-laguntzako zerbitzuen edo erreskate-zerbitzuen oharrekiko konfiantza.
- Norberarenganako konfiantza. Jarduketa bakoitzaren segurtasun eta eraginkortasunarekiko zuhertasuna eta interesa.

- Zauritua edo istripua izan duen pertsona ulertzen saiatzea eta tratamendu konstruktiborako joera erakustea.
- Lesioa izan duen pertsonaren sentimenduekiko errespetua.
- Zaurituaren edo istripua izan duen pertsonaren erruduntasun-sentimenduak txikiagotzearen, izua eta amorrua murriztearen, sentimenduen kanporatzea eta onarpena erraztearen, erantzun errealistak eta zintzoak eta zentzuz esan gabe uztekoak eskaintzearen, zaurituaren ongizatea ura, janaria eta beroa eskainita eta lesioak, muga fisikoa eta analgesia zainduta handitzearen, laguntza, kontsolamendua eta esperantza eskaintzearen eta lasaitasuna, irmotasuna, gaitasuna eta profesionaltasuna transmititzearen garrantziarekiko sentikortasuna.
- Abilezia eta zuhurtasuna ustez konorterik gabe dauden pertsonen aurrean hitz egitean.
- Seriotasuna eta kontzientzia pertsonak bere sexuaren arabera inmobilizazio- eta mendetasun-egoeretan dituen behar berezien aurrean.
- Norberaren eta besteen osasunarekiko, ingurumenarekiko eta segurtasunarekiko errespetua.
- Ingurumenarekiko errespetua gaixoak eta lesio edo istripuren bat izan duten pertsonak lekualdatu eta ebakutzeko lanetan.

#### IV. multzoa: URETAKO SALBAMENDUA ETA SOROSPENA KIROL GISA: SARRERA

##### Prozedurazkoak:

- Manikia eramateko eta heltzeko metodoak eta teknikak erabiltzea (garondo-bekokitik, lokietatik, besoa bizkarrean jarrita, besapeetatik...) bi soroslerekin eta/edo sorosle bakarrarekin eta istripua izan duten bi pertsonarekin.
- Defentsak eta presen kontrako “zafadura-teknikak” erabiltzea: burutik edo lepotik helduz gero libratzeko “zafadurak”, eskuetatik edo eskumuturretatik helduz gero libratzekoak, bularretik helduz gero libratzekoak... eta unibertsala.
- Urpean igeri egiteko, apnean igeri egiteko eta presioaren ondorioak txikiagotzeko teknikak aplikatzea.
- Berariazko igeriketa-teknikak aplikatzea: crawl estiloa aurrealdeko arnasketarekin, bular-igeriketa uretako arnasketarik gabe, aldi bereko ostikada murgiltzeko unean eta besoen aldi bereko trakzioa.
- Manikia jasotzeko metodoa erabiltzea eta manikia eramateko metodo bat sustatu eta erabiltzea.
- Erresistentzia eta trebetasuna hobetzeko berariazko entrenamenduak egitea.
- Desplazamendu-abiadura hobetzeko hegatsak erabiltzea.
- Salbamendu- eta sorospen-proba batzuen berariazko mugimen-trebetasunak aplikatzea.
- Hainbat objektu maneiatu eta hainbat distantziatara jaurtitzea.

##### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- “Atoian” eramatea:
  - Oinarrizko helburuak.
  - Eramateko sistemak edo metodoak.
  - Pertsona eramateko metodoak eta eramandako pertsonaren segurtasuna metodoaren eta soroslearen arteko egokitzapena, azkartasuna eta erresistentzia bermatzeko.
  - Pertsona eramateko metodoek jarraitu beharreko printzipioak. Propulzioa eta arretak metodoa aukeratzean.
- Sorospena kirol gisa. Proba indibidualak eta taldekoak, adin-kategorien arabeko probak. Oinarrizko araudia. Organismoak.
- Salbamendu-igeriketa. Igeri egiteko teknikak eta estiloak. Uretako salbamenduan duten baliagarritasuna. Crawl estiloa, bular-estiloa, ower estiloa.
- Apnean urperatzea. Ekipoa. Murgilketa.
- Soroslearen berariazko beroketa eta entrenamendua programatzean kontuan hartu beharreko faktoreak.
- Entrenamendu-motak: teknikoak, taktikoak, fisikoa eta psikologikoak.
- Uretako ariketak, arriskuak: hipotermia, karranpak, hiperaireztapena.

##### Jarrerazkoak:

- Entrenamendu fisiko jarraitua egiteko behararen balorazio positiboa.
- Trebetasunak menperatzeko interesa.
- Forma fisiko ona lortu eta mantentzeko interesa.

- Egindako lanaren onarpenerako lagungarria izango den irudi eta jarrera profesional bat eskaintzeko gustua.

## 8. lanbide-modulua. TALDE-DINAMIKA ETA -ANIMAZIOA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Animazioan eragina izan dezaketen faktore psikosozilogikoak aztertzea.
2. Animazioa lanbide gisa aztertzea eta bere esparruen testuinguruetan kokatzea.
3. Taldeen barne-dinamika aztertzea eta animatzailearen rol, harreman eta arazo bereizgarriak eta hura dinamika horretan integratzeko modua deskribatzea.
4. Talde-animaziorako prozedurak eta/edo teknikak zehaztu eta aplikatzea zirkunstantzia bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak eginez.
5. Taldeekin komunikatzeko teknikak eraginkortasunez erabiltzea argibideak eta informazioak emateko, ideiak edo iritziak trukatzeko eta zereginak banatzeko, mezuak euren hartzaileei egokituta.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Animazioan eragina izan dezaketen faktore psikosozilogikoak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gizakia garatzeko etapen funtsezko ezaugarriak zerrendatu eta deskribatzea.
- Nortasunaren osatze eta garapenaren oinarri psikologikoak azaltzea.
- Pertsonen eta taldeen behar indibidualak, sozialak eta bizi-kalitateari lotutakoak baloratu ahal izateko behaketa- eta balorazio-prozedura egokiak deskribatu eta aplikatzea eta galdera-sortak erabiltzea.
- Jarrerak lantzeari eta horiek aldatzeari buruzko oinarriko funtsak azaltzea.
- Emozio biziko zeinuak eta jarrerak eta krisi-egoerak identifikatzea eta horiek indartzeko edo berriro bideratzeko estrategiak proposatzea.
- Egungo gizarteko faktore jakin batzuek kolektibo desberdinen eta, bereziki, jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintzen animazioari lotutako talde potentzialen gizarte-portaera eta -harremanetan duten eragina azaltzea.
- Kolektibo jakin batzuen (zaharrak, gazteak, haurrak, baztertuak, langabetuak, ezintasunak dituztenak) ezaugarri komunak eta berezitasun psikologikoak azaltzea.
- Gaur egungo gizartearen barruan dauden arrisku, abentura eta ihesbideko osagaien garrantzia justifikatzea eta jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintzen animazioan jokabide arriskutsuei, patologikoei edo legez kanpokoei aurrea hartzeko mugak ezagutzea.
- Aisialdiak eta turismoak gizartean duten garrantzia baloratzea eta gorputz- eta kirol-ekintzekin duten erlazioa azaltzea.

2. Animazioa lanbide gisa aztertzean eta bere esparruen testuinguruetan kokatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Animazioa zehaztea eta hura gara daitekeeneko esparruen eta erakundeen testuinguruetan kokatzea.
- Animazio-eredu desberdinak konparatzea.
- Animazio profesionala boluntarioek egiten dutenarekin alderatzea eta perfilak, rolak eta funtzioak deskribatzea.
- Gizarte-hezkuntzaren esparruan animatzailearen esku-hartzea testuinguruan kokatzea eta hezkuntza ez-formalaren arloan hezitzaile gisa dituen aukerak aztertzea.
- Animazioak gatazkak konpontzeko garaian eta/edo gaur egungo bizimoduaren ondoriozko beharrei erantzuteko garaian egiten duen ekarpena azaltzea.
- Aisialdiak mendebaldeko kulturaren —oro har— eta euskal kulturaren —bereziki— izandako eboluzioa, aisialdiari eta denbora libreari buruzko pedagogiaren printzipioak eta lanbide horrek bereziki EAEn izan duen hurbileko historia deskribatzea.
- Animazioaren testuinguruan eta lanbide-perfilaren hurbileko errealitateari erantzuteko, proiektuen diseinurako esku hartzeko jarraibideak ezartzea.

3. Taldeen barne-dinamika aztertzean eta animatzailearen rol, harreman eta arazo bereizgarriak eta hura dinamika horretan integratzeko modua deskribatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lidergoaren ideia zehaztea eta horretan jarduteko estiloak alderatzea.
- Talde-topaketetan animatzaileari eskatzen zaizkion rolak, funtzioak, zereginak eta nolakotasunak zehaztea.
- Ekintza jakin batzuen animazioa eta ekintzen bidez egiten den talde-animazioa bereiztea eta animatzailearen esku hartzeko hiru mailak (edukia, saio edo bileraren garapena, alderdi sozio-afektiboa) zehaztea.
- Talde bateko kideen ereduzko rol posibleak deskribatzea eta horien ekarpenak positibo bihurtzeko eta haien integrazioa eta elkartasuna optimizatzeko estrategiak azaltzea.
- Talde barruko komunikazio-prozesuaren elementuak eta funtzionamendua deskribatzea.
- Talde simulatu batekin, proba soziometriko bat aplikatzea, emaitzak prozesatzea, soziograma lantzea eta ondorioak azaltzea .
- Talde baten inplementazioa deskribatzea eta, egoera simulatuetan, haren funtzionamendua behatzeko galdera-sortak, prozedura eta/edo teknikak aplikatzea.

4. Talde-animaziorako prozedurak eta/edo teknikak zehaztu eta aplikatzean (zirkunstantzia bakoitzean beharrezkoak diren egokitzapenak eginez), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Arazoak/gatazkak konpontzeko estiloak, dagozkion etapak eta animatzaileak horietako bakoitzean bete beharreko rola alderatzea.
- Taldeen animaziorako teknikak eta prozedurak inplementatzeko prozesuak deskribatzea eta horiek simulazioetan aplikatzea, erabaki eta esku-hartze bakoitza justifikatuta.
- Behar bezala zehaztutako talde-dinamikako kasu baten analisisian oinarrituta, esku hartzeko proposamena justifikatzea.
- Behar bezala zehaztutako talde baten barruan arazoak planteatzen dituzten suposizio eta kasu zehatzen aurrean, erabakiak hartzeko etapen aplikazioa simulatzea eta egindako aukerak justifikatzea.
- Simulazioan talde-dinamikako teknikak eta animazio-prozedurak aplikatzea.
- Animatzailearen jarrera enpatikoak eta toleranteak duten garrantzia justifikatu eta baloratzea eta jarrera horiek zehatzen dituzten jokabideak deskribatzea.

5. Taldeekin komunikatzeko teknikak eraginkortasunez erabiltzea (argibideak eta informazioak emateko, ideiak edo iritziak trukatzeko eta zereginak banatzeko, mezuak euren hartzaileei egokituta), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Mezuan erabilitako komunikazio-mota eta komunikazio egokia lortzeko hartutako estrategiak identifikatzea.
- Talde barruko komunikazio-prozesuaren elementuak eta funtzionamendua deskribatzea.
- Komunikazio-prozesu baten etapak sailkatu eta zehaztea eta mezuaren ulermena eragotzi, mugatu edo indargabetzen duten interferentziak, oztupoak eta zailtasunak identifikatzea.
- Animazio-ekintzei eta hauek garatzen direneko inguruneari buruzko fitxak, “informazio-dosierak”, posterrak... egitea, beharrezkoa den informazioa barne hartuko dutenak eta parte hartzailearen interesa piztuko dutenak hain zuzen ere.
- Animazio-ekintzei buruzko informazio osagarria emateko, baliabide grafikoak eta ikus-entzunezkoak aukeratu eta erabiltzea.
- Animazio-ekintza desberdinei buruzko informazioa eman dezaketen kanpoko baliabideak identifikatzea.
- Egoerari egokitutako hitzeko edo keinuzko komunikazio-teknikak aukeratu eta erabiltzea.
- Mezuaren testuingurua, xedea eta edukia behar bezala jasoko dituen suposizio batean, baliabide egokiaren aukeraketa justifikatzea eta bere transmisioa simulatzea.

c) Edukiak

## I. multzoa: TALDE-DINAMIKAREN ETA -ANIMAZIOAREN FUNTSAK

### Prozedurazkoak:

- Animazioari eta dinamizazioari estuki loturik dauden alderdi psikologiko eta soziologikoak aztertzea.
- Pertsonak eta taldeek jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintzei dagokienez dituzten jarrerak eta behar indibidualak, sozialak eta bizi-kalitatekoak baloratzea.
- Dauden taldeen aniztasuna aztertzea.
- Moldagabeziako hainbat egoeraren aurrean alternatiba estrategikoak aukeratzea.
- Esku hartzeko prozesuak eta metodoak aztertzea.
- Dauden gidari- eta dinamizatazailereduak eta dinamizazio-ereduak aztertzea.
- Esku-hartzea zehaztea suposizio praktikoetan:
  - Krisi-egoeretan.
  - Emozio handiko zeinu nabarmenen aurrean.
  - Moldagabeziako suposizioak abiapuntutzat hartuz.
  - Baldintza neutroetan.
- Esku hartzeko eta talde-gidaritzako proiektu bat garatzea:
  - Parte-hartzaileen ezaugarriak identifikatuz (kultur maila eta sozioekonomikoa, gaitasun fisikoa, jarrera...).
  - Taldeko barne- eta kanpo-dinamikak interpretatuz.
  - Lidergo-estiloa aztertuz.
  - Planifikatuz eta programatuz.
  - Taldekideek hartu beharreko portaera-jarraibideak finkatuz.
  - Programaren edukia eta denboralizazioa aurkeztuz.
  - Zalantzak ebartziz, iradokizunak onartuz eta eskariak bere gain hartuz.
  - Azalpenak eta bidezkoak diren erakustaldiak eginez.
  - Ekintza parte-hartzaileak kontuan izanik garatuz, ekintza burutzen deneko ingurunea behatuz, beharrak eta motibazioak detektatuz, gogobetetze-mailak egiaztatuz eta emaitzak ebaluatuz.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Taldea:
  - Erreferentziazko taldeak eta norberaren taldea.
  - Nortasuna, eboluzio-etapak eta taldeak.
  - Ezaugarriak, talde-tipologia eta pertsonaren eta taldearen elkarreragina: rola, lidergoa, komunikazioa, lankidetzeta eta mendetasuna, gaitasuna, autokontzeptua, jarrera...
- Psikologia eta soziologia taldeen animazioan eta dinamikan.
  - Ikuspegi antropologikoak eta oinarri etikoak.
  - Gizarte-pedagogia esku hartzeko eredu gisa.
  - Talde-psikologia.
  - Aisiaren, astialdiaren, turismoaren eta gorputz- eta kirol-ekintzen soziologia mendebaldean, Estatuan eta EAEn.
- Arriskua, abentura eta ihesbidea egungo gizartean.
- Motibazioa: beharren hierarkizazioa, parte-hartzea, jarrera-aldaketa...
- Gizarte-moldaera:
  - Garapen pertsonala. Behar pertsonalak eta sozialak.
  - Motibazio-teknikak.
  - Moldagabezia-egoerak: familia eta haurtzaroa; gaztaroa; pertsona helduak edo hirugarren adina; ezintasun eta gaixotasun kronikoak; gaizkileak eta presoak; langabetuak eta lanik egiten ez dutenak.
  - Aniztasunerako alternatiba estrategikoak.
  - Helburu taktikoak.
  - Gizarte-eskaintza.
- Astialdia, bizi-kalitatea eta garapen pertsonala:
  - Nozioak. Definizioak. Esparrua. Ezaugarriak. Eboluzioa.
  - Gaitasun-maila desberdineko erakundeak.
  - Astialdiaren animazio eta dinamizazioaren antolamendua eta egitura jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintzen garapenean.
  - Hurbileko eta etorkizuneko posibilitateak.

- Funtzioak:
  - Gizarte-funtzioak:
    - \* Sozializazioa.
    - \* Ludikoa eta jolas-izaerakoa.
    - \* Hezkuntzari lotutakoa.
    - \* Ortopedikoa.
    - \* Berritzailea.
  - Kultur funtzioak:
    - \* Animazioa.
    - \* Sorkuntza.
    - \* Hedapena.
    - \* Publikoa.
- Toki-mailako gizarte eta hezkuntzako esku-hartzeari buruzko proiektu baterako oinarriak.
- Esku hartzeko prozesuak eta metodoak.
- Taldeak animatu eta dinamizatzeko ereduak.
- Aniztasunaren tratamendua.
- Talde-animatzailearen ezaugarriak eta gorputz- eta kirol-ekintzetako animatzailearen berezitasunak:
  - Eskatutako lanbide-perfila eta hurbileko etorkizuneko eboluzioa: tipologia, ezaugarriak, funtzioak...
  - Jarrera eta portaera azpimarragarriak.
  - Nahitaezko prestakuntza.
  - Onartu ohi diren lan-eredu eta -estiloak: jarduna, ekimena, parte-hartzea, autonomia, sormena...
  - Baztertu ohi diren lan-eredu eta -estiloak: permisibitatea, axolagabetasuna, ekimenik eza, segurtasunik eza, autokrazia...
- Egungo eta etorkizuneko errealitate demografikoa eta soziokulturala EAE barruan; gorputz- eta kirol-ekintzen animazioaren esparruan duen eragina.

#### Jarrerazkoak:

- Objektibotasuna talde jakin batek izan ditzakeen beharrak eta hobekuntzak ezartzerakoan.
- Eskura dauden baliabideak aprobetxatzearen aldeko jarrera.
- Ordena eta metodoa zereginak banatzean.
- Esku hartzeko planak zuhurtasunez lantzea, taldearekiko harremanak ahaztu gabe.
- Aniztasunarekiko eta portaera indibidualerekiko interesa eta errespetua.

## II. multzoa: TALDE-DINAMIZAZIORAKO ETA -ANIMAZIORAKO TEKNIKAK

#### Prozedurazkoak:

- Taldeak aztertze eta ondorengo hauetan aplikatzeko teknika egokiak finkatzea:
  - Aztertu behar den taldearen zehaztapenean.
  - Taldekideen rolen, funtzioen eta erlazioen finkapenean.
- Komunikazio-teknikak aztertu eta aplikatzea igorri beharreko mezua zehaztu ondoren, jasotzailea, solaskidea... identifikatuz, komunikazio-estrategia eta -estiloa aukeratuz, erabili beharreko baliabideak finkatuz eta informazioa igorritz.
- Komunikazio-egoera desberdinetan baliabide teknologiko egokiak erabiltzea.
- Komunikazio-arazoen aurrean zuzenketa-bideak aztertu eta baloratzea.
- Planteatutako ekintza edo proiektuari egokitutako animazio- eta dinamizazio-teknikak konbinatu eta aplikatzea, taldeko kideei harrera eginez, komunikazio-teknikarik egokiak erabiliz, iradokizunak eta kezak kontuan izanik, bidezkoak diren azalpenak eskainiz...
- Teknika egokiak aukeratzea gatazkak konpontzeko helburuarekin.
- Gatazken ebazpena simulatzea eta, horretarako, suposizioak abiapuntutzat hartzea eta talde-dinamikako teknikak aplikatzea, gatazka egon badagoela egiaztatzea, berau sortu duen arrazoia interpretatzea, ebazteko alternatibak aztertzea eta bidezkoak diren neurriak eta erabakiak hartzea.
- Datuak biltzeko teknikak aztertzea.
- Komunikazio-prozesuetatik eratorzen diren datuak eta informazioa antolatzea.
- Bidezkoak diren dokumentuak eta testuak lantzea eta, horrela, hauen helburua identifikatzea, beharrezkoa duten informazioa era antolatuan gaineratzea, dokumentu bakoitzaren eskema eta



informazioaren erabilgarritasuna ezartzea, edukia idaztea, aurkezteko modua zaintzea, berrikusi eta zuzentzea eta abar, guztia egungo baliabide teknologikoak erabiliz.

- Negoziazio-teknikak aplikatzea eta, horrela, egoeraren diagnostikoa egitea, helburuak finkatzea, proposamenak aurkeztea eta negoziazioa neurtzea.
- Datuak ebaluatu eta interpretatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Taldeak aztertzeke teknikak:
  - Behaketa.
  - Galde-sorta.
  - Elkarrizketa.
  - Teknika soziometrikoak.
  - Taldeen prestakuntza.
- Komunikazioa:
  - Komunikazio-motak.
  - Komunikazio-prozesu zehatzetan esku hartzen duten elementuak.
  - Ekintzari eta ereduzko enpresari egokitutako komunikazio-kanalak.
  - Komunikazio-prozesu baten etapak.
  - Arazoak komunikazioan: oztopoak, interferentziak eta distorsioak.
  - Komunikazioa eta ekintzan aplikatutako teknologiak.
  - Alternatiben baliabideak, denbora eta kostua hala ahozko komunikazioan nola idatzizkoan.
  - Informazioaren eta komunikazioaren kontrola.
- Komunikazio-teknikak: asanbladak; bilerak; sinposioa; mahaingurua; panela; elkarrizketa; eztabaida publikoa...
- Dinamizazioa:
  - Funtzioen antolaketa eta banaketa.
  - Lankidetzeta eta konfiantza.
  - Jardueren estimulazioa, motibazioa eta sormena.
- Talde-dinamizaziorako teknikak: eztabaida zuzendua; mintegia; brainstorming; dramatizazioa; prozesu eragilea; foroa; asanblada...
- Gatazkak:
  - Gatazka-motak jolas-izaerako gorputz- eta kirol-ekintzak garatzean.
  - Jatorrizko arazoak.
  - Konpontzeko faseak eta bideak hauetariko bakoitzean.
  - Pare-hartzea.
  - Behaketarako eta autoanalisirako gidoia.
- Gatazkak ebazteko teknikak.
- Datu-bilketarako teknikak: elkarrizketa, inkesta, zundaketa.

#### Jarrerazkoak:

- Zorroztasuna lantzen den errealitatearen behaketa kritikoan.
- Jarrera baikorra komunikatzeko eta elkarren arteko komunikazioa erraztuko duten komunikazio- eta zabalkuntza-dohainak lantzeko.
- Ordena eta metodoa ekintza zuzentzerakoan, beharrak eta zirkunstantziak kontuan izanik.
- Ardura jarraibideak eta aginduak jaso eta burutzerakoan.
- Arazoen eta hutsegiteen ebazpenaren sistematizazioarekiko eta emaitzen egiaztapenarekiko interesa.
- Objektibotasuna eta inpartzialtasuna pertsonekin jarduterakoan.

## 9. lanbide-modulua. GORPUTZ- ETA KIROL-EKINTZEN METODOLOGIA DIDAKTIKOA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Mugimenezko zeregin desberdinak burutzearen konplexutasuna aztertzea eta ikaskuntza errazteko sekuentziak ezartzea.
2. Gorputz- eta kirol-ekintzak programatzeko prozesua ezagutzea eta programak zehaztea.
3. Gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta sustatzeko prozesua eta berau optimizatzeako esku-hartze didaktikoa aztertzea.
4. Gorputz- eta kirol-ekintzen irakaskuntza eta ikaskuntza ebaluatzeako prozesua aztertu eta burutzea.

## b) Ebaluazio-irizpideak

1. Mugimenezko zeregin desberdinak burutzearen konplexutasuna aztertzean eta ikaskuntza errazteko sekuentziak ezartzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Mugimenezko zereginak burutzeko prozesuan esku hartzen duten mekanismoak deskribatzea (pertzepzioa, erabakia, burutzapena).
- Mugimenezko zeregin baten zailtasunean eraginik handiena duten faktoreak eta zeregina burutzean pertzepzio-, erabaki- eta burutzapen-mekanismoek duten esku-hartzea azaltzea.
- Mugimenezko ekintzak ikasteko exigentzien arabera sailkatzeako sistema nagusiak azaltzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzen testuinguruko hainbat mugimenezko zeregin esanguratsuren aurrean:
  - Pertzepzioan, erabakiak hartzean eta/edo burutzapenean ekintzak egitea edo ikastea zailtzen duten faktoreak identifikatzea.
  - Zailtasunaren faktoreak, elementuak eta osagaiak hierarkizatzeko zailtasun-perfil bat lantzea.
- Zailtasun-perfiletik abiatuta, zailtasuna murriztu eta ikaskuntza optimizatuko duten irakaskuntza-progresioak eta praktikarako estrategiak behar bezala justifikatuta proposatzea.

2. Gorputz- eta kirol-ekintzak programatzeko prozesua ezagutzean eta programak zehaztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gorputz- eta kirol-ekintza baten programazioa interpretatzeko kontuan hartu beharreko oinarriko irizpideak deskribatzea.
- Enpresa- edo erakunde-mota bakoitzaren idiosinkrasiari hobekien egokitutako gorputz- eta kirol-ekintzaren helburu eta funtzioak azaltzea.
- Egungo gizarteak gorputzaz dituen ikusmolde desberdinak kontrastatzea eta gorputz-praktikekin erlazionatzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzen irakaskuntza eta animazioaren helburu orokorrak zerrendatzea.
- Kontuan hartu beharreko egoera-faktoreak zerrendatzea eta programazioan dituzten inplikazioak deskribatzea.
- Erabiltzailearen ezaugarri fisiko, psikiko eta sozialek programazioan duten eragina azaltzea.
- Behar bezala definitutako helburu orokor batzuetan oinarrituta, helburu didaktikoak egiaztagarri, neurgarri, egingarri, zehatz eta motibagarri izateko moduan zehaztea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta sustatzeko metodoak eta estiloak azaldu eta kontrastatzea.
- Jokoa eta honek animazioan duen erabilera hainbat esparrutako helburuak lortzeko baliabide gisa zehaztea, mugimenezko trebetasunen ikaskuntza eta taldeen barruko afektibitate- eta harreman-alderdiaren optimizazioa bereziki azpimarratuz.
- Behar bezala zehaztutako mugimenezko zeregin bat emanda, berau ikasten lagunduko duten jokoak aukeratu eta garatzea.
- Taldeen ikaskuntzak eta dinamika optimizatuko dituzten esku-hartze didaktikoko estrategiak ezartzeko garaian kontuan hartu beharreko alderdiak eta oinarriak azaltzea.
- Norabideak eta irizpideak azaltzea:
  - Proposatutako helburu bakoitzari ekintzak esleitzeko.
  - Programa burutzeko ekintzak sekuentziatzeko.
  - Programako ekintzak denboralizatzeko.
  - Erabili beharreko metodoak eta prozedurak aukeratzeko.
  - Erabili beharreko baliabide materialak aukeratzeko.
  - Programaren prozesua eta emaitza ebaluatzeako.
- Erabiltzaileen ezaugarri eta interesak eta eskura dauden instalazioak eta materiala identifikatuko dituzten suposiziopeko datu batzuetan oinarrituta, ondokoak proposatzea:

- Programaren helburu orokorrak.
- Garatu beharreko ekintzak eta hauen denboralizazioa.
- Metodo, prozedura eta baliabide didaktikoak.
- Beharrezkoak diren baliabide materialak.
- Ebaluazio-prozedurak.
- Saioen planak, saio bakoitzerako ondokoak zehaztuta: helburuak, sekuentziatutako ekintzak eta baliabide didaktiko eta materialak.

3. Gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta sustatzeko prozesua eta berau optimizatzeko esku-hartze didaktikoa aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Ikaskuntzaren printzipioak eta gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta/edo sustatzeko dituen inplikazioak deskribatzea.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuan esku hartzen duten elementuak zerrendatzea.
- Irakasle-animatzailearen rola definitzea eta bere esku-hartzearen norabideak deskribatzea.
- Lidergo-motak kontrastatzea eta gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta sustatzeko estiloekin erlazionatzea.
- Animatzaile eta praktikatzailearen, animatzaile eta taldearen eta erabiltzaileen arteko elkarreraginaren eredu desberdinak azaldu eta kontrastatzea eta irakatsi eta sustatzeko estiloekin erlazionatzea.
- Lan-taldeak antolatu, kontrolatu eta gidatzeko eta zereginak antolatzeako kontuan hartu beharreko oinarri teorikoak eta faktoreak azaltzea.
- Egoera simulatuetan, mezuak adierazteko dauden bideak eta mezua erabiltzaileen mailara egokitzeo baliabideak erraztasunez eta eraginkortasunez erabiltzea.
- Erabil daitezkeen "feedback" motak bereiztea eta gorputz- eta kirol-ekintza sustatu eta irakasteko egoeretan atzeraelikadura justifikatzea.
- Erabiltzaileak, ekintza, helburuak, instalazioak eta materiala identifikatuta agertzen direneko irakatsi eta/edo sustatzeko suposizio batean, esku-hartzea xehetasunez deskribatzea eta hartutako erabakiak justifikatzea.
- Behar bezala identifikatutako kasu praktiko batean, animazio- edo irakaskuntza-saio bat simulatzea eta kontingentziak konpontzeko hartutako erabakiak justifikatzea.

4. Gorputz- eta kirol-ekintzen irakaskuntza eta ikaskuntza ebaluatzeko prozesua aztertu eta burutzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Gorputz-ekintza bat ebaluatzeko behar bezala zehaztutako plan bat interpretatu eta inplementatzea.
- Ebaluazio-motak eta gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta sustatzean ebaluatu beharreko funtsezko alderdiak adieraztea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta sustatzean ikaskuntzak eta talde-elkarreragina ebaluatzeko metodoak adieraztea.
- Taldekideak erabiltzaileak direla simulatuta eta emandako norabideei jarraiki, behar bezala zehaztutako gorputz-ekintza bat ebaluatzeko prozesu osoa burutzea.

c) Edukiak

## I. multzoa: MUGIMENEZKO ZEREGINEN ANALISI DIDAKTIKOA

Prozedurazkoak:

- Mugimenezko zereginak aztertzea.
- Mugimen-ikasketaren oinarriak aplikatzea.
- Pertzepzioan, erabakiak hartzean eta burutzapenean mugimenezko zereginak egin edo ikastea zailtzen duten faktoreak aztertzea.
- Zereginaren zailtasuna baloratzea.
- Pertzepzioan, erabakiak hartzean eta burutzapenean dauden aldagaiak kontuan hartuta, zereginaren zailtasuna aldatzea.
- Zereginen osagaiak hierarkizatuta agertuko dituen zailtasun-perfil bat lantzea.

Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Mugimenezko zereginak. Zentzu-mugimenezko katea. Katea osatzen duten mekanismoen kontzeptua eta zehaztapena:
  - Kontzientzia eta kontzentrazioa.
  - Motibazioa eta errefortzuak.
  - Hasierako informazioa eta emaitzen ezaguera.
  - Hasierako mugimen-maila.
  - Errepikapena eta atxikipena.
  - Transferentzia: motak.
  - Bestelako faktoreak.
- Zereginaren zailtasuna. Zailtasun-mailan eragina duten aldagaiak. Sailkapena:
  - Mugimenezko zereginak eta pertzepzioa.
  - Mugimenezko zereginak eta erabakiak hartzea.
  - Mugimenezko zereginak eta burutzapena.
- Zeregina ikasteko zailtasuna zereginak sailkatzeko irizpide gisa.

#### Jarrerazkoak:

- Zorroztasuna ikaskuntza zailtzen duten aldagaien tratamenduan.
- Gaitasun-mugak bere gain hartzea.
- Zailtasunaren mailaketaren balorazioa irakatsi eta ikasteko prozesuan zereginak sailkatzeko irizpide gisa.
- Aniztasunarekiko errespetua.

## II. multzoa: IRAKASKUNTZA- ETA PROGRAMAZIO-PROGRESIOAK

#### Prozedurazkoak:

- Ikaskuntza optimizatzeko irakaskuntza-progresioak eta estrategiak proposatu eta justifikatzea.
- Programazioaren oinarriak osatzen dituzten faktoreen arteko erlazioak identifikatzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzak eta hauen erabilerak eta helburua erabiltzaileen ezaugarri eta beharrekin erlazionatzea.
- Helburu orokor batzuetatik abiatuta, berariazko helburu eta helburu operatibo egingarri, egiaztagarri, neurgarri, zehatz eta motibagarriak definitzea.
- Programaren helburu orokorrak proposatu eta justifikatzea.
- Praktika, edukia, denboralizazioa eta sekuentziazioa proposatu eta justifikatzea.
- Materialaren erabilera eta antolaera proposatu eta justifikatzea. “Lan-giroak” diseinatzea.
- Unitate didaktiko koherenteak egitea.
- Programak eta unitate didaktikoak pertsonalizatu eta egokitzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Irakaskuntza-progresioak. Lantzeko irizpideak:
  - Zeregina banatzeko modua.
  - Burutzeko zailtasuna eta ordena.
  - Akats-probabilitateen murriztapena eta motibazioa.
- Programazioa. Kontzeptua, funtzioak eta faseak.
- Programazioa zehazten duten faktoreak eta egitura:
  - Taldearen ezaugarriak.
  - Lortu beharreko helburuak.
  - Eskura dauden baliabide materialak.
  - Burutu beharreko ekintzen diseinua eta sekuentziazioa.
  - Erabili beharreko metodologia didaktikoa.
  - Antolamendua.
  - Denboralizazioa.
  - Kontrola eta ebaluazioa.
- Gorputza eta gorputz- eta kirol-ekintzak gaur egun:
  - Gorputz- eta kirol-ekintzak: motak.
  - Programazioaren erabilerak, beharrak eta erantzunak:
    - \* Osasuna.
    - \* Agresibitatea kanporatzeko aukera.

- \* Estetika.
- \* Aisia-Jolasa.
- \* Gizarte-harremanak.
- \* Prestakuntza eta kultura.
- Instalazioak.
- Bestelako alderdi interesgarriak.
- Erabiltzaileen ezaugarriak –fisikoak, psikikoak, sozialak– eta hauek programazioan duten eragina.
- Ingurunearen eta instalazioen ezaugarriak eta hauek programazioan duten eragina. Aukeratzeko eta egokitzeko irizpideak eta metodoak.
- Helburu motak (orokorrak, berariazkoak eta operatiboak). Ezaugarriak eta erlazioa.
- Helburuen formulazioa eta erabilerak programazioan.
- Unitate didaktikoa. Kontzeptua eta programatutako helburuekiko erlazioa.

#### Jarrerazkoak:

- Zorrozatasuna progresioak diseinatzean eta beren eraginkortasunaren aintzatespena.
- Gorputz- eta kirol-ekintzen balioaniztasuna eta aplikazioetan duten eraginkortasuna baloratzea.
- Helburu didaktikoak finkatzean ordena eta metodoa aplikatzea eta programazio funtzionalaren helburutzat hartzea.
- Denbora aprobetxatzeko interesa eta eraginkortasunaren bilaketa.
- Osasun, bizi-kalitate eta segurtasunarekiko errespetua.
- Ekimena, sormena eta pentsamolde lehiatsua.
- Norberarenganako konfiantza.
- Beste batzuekin –taldekideekin, irakasleekin, profesionalekin...– teknikei, ekintzei, ariketei eta abarri buruzko ideiak trukatzeko gustua.
- Etengabeko prestakuntzarekiko eta sektoreko behar aldakorretarako egokitzapenarekiko interesa.

### III. multzoa: METODOLOGIA DIDAKTIKOA. TEORIA ETA PRAKTIKA

#### Prozedurazkoak:

- Irakaskuntza eta animaziorako metodoak eta baliabide metodologikoak esperimendu eta kontrastatzea.
- Taldearen, definitutako helburuen, eskura dauden baliabideen eta ezarritako programaren arabera, metodoak eta baliabide metodologikoak proposatzea.
- Mugimenezko zeregin zehatzak ikasten lagunduko duten jokoak eta ekintzak diseinatzea.
- Lidergo-estiloak eta irakaskuntza-estiloak esperimendu, kontrastatu eta erlazionatzea.
- Irakasteko eta sustatzeko estiloari dagokionez, mugimenezko zereginetan elkarreragin-mailen dinamika esperimendatzea.
- Jakinarazi beharreko informazioa zehaztea.
- Praktikan komunikazio-bide desberdinak erabiltzea eta beren baliagarritasuna justifikatzea.
- Harreman/komunikazioan beharrezkoak diren trebetasuna, oportunitasoa eta eraginkortasuna lortzeko estrategia, prozedura eta teknika desberdinak aukeratu eta aplikatzea.
- Mezuak bidaltzea eta jaso eta ulertu direla egiaztatzea.
- Atzeraelikadura afektiboa animaziorako errefortzu gisa erabiltzea. Bere abantailak justifikatzea.
- Animazio- edo irakaskuntza-saioak simulatzea eta kontingentziak konpontzeko hartutako erabakiak justifikatzea.
- Helburu zehatzak lortzeko saio koherente eta eraginkorrak programatzea.
- Ikasitakoa integratu eta globalizatuko duten gorputz- eta kirol-ekintzen programak lantzea.
- Ekintzak antolatzea.
- Baliabide konbentzional eta informatikoekin, saioen fitxak diseinatu, egin eta mantentzea:
  - Fitxaren helburua zehaztea.
  - Fitxaren edukia zehaztea.
  - Erabili ahal izateko datuak eta informazioa antolatzea.
  - Fitxa diseinatu eta egitea.
  - Fitxa kontrolatu eta zuzentzea.
  - Fitxak ustiatu eta maneiatzea: sailkapena, aukeraketa, mantentzea, eguneratzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lan-taldea: osaera, ezaugarriak, mugak, posibilitateak, helburuak.
- Irakasteko metodoak —ezaugarriak eta aplikagarritasuna—.
  - Okerrik gabeko ikaskuntza.
  - Saiakuntza/oker bidezko ikaskuntza.
- Baliabide metodologikoak:
  - Estrategia analitikoak eta orokorrak.
  - Irakaskuntza-estiloak eta taldearen antolaketa.
- Gorputz- eta kirol-ekintzak irakatsi eta sustatzeko erabilerak eta aplikazioak.
- Jokoa. Kontzeptua eta ezaugarriak.
- Jokoa mugimenezko zereginak irakasteko metodologia gisa. Planteamendu ludikoaren abantailak:
  - Jokoa: dinamizatzaileraginkorra. Motibazioa.
  - Gizarte- eta afektibitate-alderdiak.
- Mugimenezko zeregin zehatzak ikasten lagunduko duten ekintzak eta jokoak diseinatzeko irizpideak.
- Saioaren egitura. Faseak eta intentsitateak.
- Ekintza- eta zeregin-motak saioaren faseei lotzeko irizpideak.
- Helburu operatiboa eta saioa.
- Irakaskuntza sistematikoa. Kontzeptua.
- Irakatsi eta ikasteko prozesuan esku hartzen duten elementuen elkarreagina.
- Informazioa. Mezuaren beharrezko ezaugarriak.
- Mezua adierazteko bideak:
  - Ikusmen-bidea.
  - Entzumen-bidea.
  - Bide kinestesiko-ukipenekoak.
  - Bide mistoa.
- Gidaritza eta esku-hartzea. Kontzeptuak, estiloak eta helburuak.
- Lidergo-estiloak eta irakaskuntza-estiloak. Erlazioak.
- Elkarreagin-mailak:
  - Animatezailearen eta praktikantezailearen artean.
  - Animatezailearen eta taldearen artean.
  - Parte-hartzaileen artean.
- Elkarreaginak irakasteko estiloekin duen lotura.
- Atzerelikadura edo “feedback”. Kontzeptua eta motak:
  - Informazio-bidearen arabera.
  - Informazioa eskuratzeko unearen arabera.
  - Informazioaren jasotzailearen arabera.
- Mugimenduaren kontrola, emaitzaren ezaguera eta motibazioa.

#### Jarrerazkoak:

- Irakaskuntza-estiloa programatutako helburuak lortzeko faktore erabakigarri gisa baloratzea.
- Parte-hartzaile edo erabiltzaileak, gorputz- eta kirol-ekintzak eta irakaskuntza-estiloak duten garrantzia baloratzea.
- Zorroztasuna saioa egituratu eta lantzean.
- Jokoak mugimenezko zeregina ikasteko elementu onuragarri gisa duen balioa bere gain hartzea.
- Erantzukizuna funtzioak garatzean.
- Amultsutasuna, tolerantzia, errespetua eta adeitasuna tratu pertsonalean.
- Komunikatzaile on gisako autobalorazioa eta norberarenganako konfiantza.
- Zorroztasuna gidaritzan eta esku-hartzean erabiltzailearen gogobetetzea bermatzeko.
- Errefortzuek dakarten dinamizazio eta bultzadaren estimazio positiboa.
- Etengabeko prestakuntzarekiko eta sektoreko behar aldakorretarako egokitzapenarekiko interesa.

#### IV. multzoa: EBALUAZIOA

##### Prozedurazkoak:

- Behar bezala zehaztutako gorputz- eta kirol-ekintza baten ebaluazio-plana interpretatu eta inplementatzea. Erabili beharrezko ebaluazio-irizpideak zehaztu eta inplementatzea.
- Programaren prozesua eta emaitza ebaluatzeko beharrezkoa den informazioa biltzeko tresnak diseinatzea (informazioa tresna horiek erabiltzeko ere beharrezkoa izanik).

- Irakaslea eta taldea kokatzea eta lekualdatzea.
- Ekintza behatu eta kontrolatzea.
- Testak eta ebaluazio-probak aukeratzea.
- Ebaluaziorako protokoloak, materialak eta gainerako eskakizunak aztertzea.
- Ebaluazio-txostenak interpretatu eta lantzea.
- Testak eta ebaluazio-probak diseinatu eta egokitzea.
- Behaketaren eta ebaluazioaren emaitzak erregistratzea.
- Emaitzak eta desbiderapenak aztertzea.
- Behaketaren eta ebaluazioaren ondoriozko hutsegite edo gorabeheren aurrean neurri zuzentzaileak jakinarazi eta justifikatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Ebaluazioa. Kontzeptua. Ezaugarriak. Helburuak. Ebaluatu beharreko faktoreak eta elementuak. Motak: hasierako ebaluazioa, etengabeko ebaluazioa, azken ebaluazioa.
- Ebalua daitezkeen programazioaren alderdiak, behaketarako irizpideak:
  - Ekintzaren garapenaren oinarritzko kontrola.
  - Parte-hartzearen kontrola.
  - Kontingentziaren kontrola eta istripuen aurreikuspena.
  - Materialaren erabileraren kontrola.
- Ebaluazio-metodoak:
  - Testak edo ohiko probak. Motak. Ezaugarriak. Baliotasuna. Fidagarritasuna. Objektibotasuna. Estandarizatzeko aukera.
  - Behaketa, informazioaren erregistroa eta ondorioen estrapolazioa.

#### Jarrerazkoak:

- Zorroztasuna eta objektibotasuna behaketaren erregistroan eta testaren garapenean.
- Ebaluazioa azken etapa gisa eta programazioa optimizatu eta egokitzeko kontrol-mekanismo gisa baloratzea.
- Sistematika emaitzak egiaztatzean.
- Komunikazioak faktore motibagarri eta elementu zuzentzaile gisa duen garrantzia baloratzea.
- Irrotasuna eta zorroztasuna osasunari eta aniztasunerako egokitzapenari lotutako desbiderapenen jarraipen eta kontrolean.
- Kontu handia komunikazioan.
- Txukuntasuna eta zuhurtasuna fitxak, txostenak eta dokumentazio orokorra lantzean.
- Etengabeko prestakuntzarekiko eta sektoreko behar aldakorretarako egokitzapenarekiko interesa.

## 10. lanbide-modulua. EZINTASUNAK DITUZTEN PERTSONENTZAKO EKINTZA FISIKOAK

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Urritasun fisikoa, psikikoa eta zentzumenezkoa duten pertsonen ezaugarriak aztertzea, gorputz- eta/edo kirol-ekintzari loturik.
2. Espazio jakin baten baldintzak aztertzea, egon daitezkeen oztupo arkitektonikoei irtenbide bat emateko egokitzapenak eta jarraibideak proposatzeko xedez.
3. Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintzak planifikatu eta zehaztea, hauen praktikarako beharrezkoak diren egokitzapenak kontuan izanik.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Urritasun fisikoa, psikikoa eta zentzumenezkoa duten pertsonen ezaugarriak aztertzean, gorputz- eta/edo kirol-ekintzari loturik, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Urritasun-mota desberdinen ezaugarriak azpimarragarrienak deskribatzea.
- Urritasun-motaren bat duten pertsonen esfortzuarekiko egokitzapenaren, beroketaren eta errehabilitazioaren zehaztasunak adieraztea, bai eta gorputz- eta kirol-ekintzaren praktikarako kontraindikazioak ere.
- Ezintasunak dituzten pertsonekin burututako animazioan kontuan izan behar diren alderdi eta motibazio bereziak adieraztea.
- Ezintasunak dituzten pertsonen praktikak dituzten berariazko kirolak aztertzea, bai eta beren urritasunen arabera beharrezkoak diren egokitzapenak ere.
- Ezintasun fisikoa, psikikoa eta zentzumenezkoa duen pertsona baten ezaugarriak behar bezala definitzen dituen suposizio praktikoa baten aurrean:
  - Mugitzeko dituen posibilitateak baloratzea: autonomia eta/edo lagundua.
  - Beharrezkoak izango diren berariazko zaintzak adieraztea.
  - Minusbaliotasun bakoitzean egon daitezkeen arriskuak eta ager daitezkeen larrialdi posibleak konpontzeko modua adieraztea.
- Urritasun jakin batzuk simulatzen direneko egoera baten aurrean, pertsona leku batetik bestera lekualdatzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintza bat garatu eta praktikatzean talde baten barruan ezintasunen bat duen pertsona baten normalizazio osoak eta integrazioak duen garrantzia baloratzea.

2. Espazio jakin baten baldintzak aztertzean, egon daitezkeen oztopo arkitektonikoei irtenbide bat emateko egokitzapenak eta jarraibideak proposatzeko xedez, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Oztopo arkitektonikoei dagokienez indarrean dagoen legeriaren alderdirik azpimarragarrienak adieraztea.
- Behar bezala zehaztutako gorputz-ekintza jakin batzuen praktikarako suposiziopeko eszenatoki batean, txosten bat lantzea ondorengoa deskribatuz:
  - Aurkitu diren oztopo arkitektonikoak.
  - Ezintasunak dituzten pertsonen ingurunean jarraitu behar dituzten jarraibideak eta ohiturak ingurune hau ezagutu eta menperatzeko.
- Oztopo arkitektonikoak dauden suposizio-egoeretan, ezintasunak dituzten pertsonen aurreikusita dauden helburuak lortzeko beharrezkoak diren egokitzapenak azaltzea.

3. Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintzak planifikatu eta zehaztean, hauen praktikarako beharrezkoak diren egokitzapenak kontuan izanik, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Aldez aurretik planifikatuta dagoen ekintza baten aurrean, urritasunak dituzten parte-hartzaileek ekintza hori burutzeko eta erabat integratzeko ezinbestekoak diren alderdiak aldatzea.
- Ezintasunak dituzten pertsonak barne hartzen dituen talde baten ezaugarriak eta burutu beharreko ekintzak definitzen dituen suposizio batean, eszenatokia eta materiala aukeratzea, bere ezaugarriak eta aukerak xehatuz.
- Ezintasunak dituzten pertsonentzako egokitutako gorputz- eta kirol-ekintzen antolaketan eta normalizazioan organismoek edo erakundeek esku hartzeko dituzten posibilitateak identifikatzea.

c) Edukiak

## I. multzoa: EZINTASUNA DUEN PERTSONA ETA GORPUTZ- ETA KIROL-EKINTZA

Prozedurazkoak:

- Urritasun-motak bereiztea eta ezaugarritzea.
- Ezintasunak dituzten pertsona-taldeak aztertzea:
  - Autonomia-mailak oro har, eta higie pertsonalari loturik bereziki, identifikatzea.
  - Gorputz- eta kirol-ekintzen praktikan egon daitezkeen zailtasunak identifikatzea.
- Lanbide-perfilaren xede diren ekintzei aplikatzekoak zaizkien mugimendu-ereduen eta kirol-trebetasunen balorazio-probak garatzea.



- Medikuntza- eta kirol-fitxak eta -txostenak interpretatzea.
- Aurkezten diren ezintasunekin bat datozen berariazko kirol-ekintza eta -modalitateak eta egokituak aukeratzea.
- Ezintasunak dituen pertsona baten berezitasunetara egokitzeko diseinu praktikoa, ondokoa barne hartuz:
  - Beharrezkoak diren berariazko zaintzak.
  - Minusbaliotasun bakoitzari loturik dauden arrisku potentzialak.
  - Ohiko arriskuen aurrean hartu behar diren prebentziozko neurriak.
  - Larrialdietako jardunak.
- Ezintasun desberdinetarako kontraindikaturak dauden gorputz- eta kirol-ekintzak aztertzea.
- Ezintasunak dituen pertsona gorputz- eta kirol-ekintzak maiz, jarraitasunarekin, modu seguruan eta gizartearen integratuz burutzeko duen posibilitateaz jabetzeko dauden teknikak eta taktikak aztertzea.
- Fitxak eta txostenak lantzea eta kasuen analisitik lortutako datuak erregistratzea.
- Ezintasun bakoitzarekin bat etorriko den komunikazio- eta azalpen-egokitzapena –keinuzkoa, grafikoa, ahozkoa...– egitea.
- Urritasunak dituzten pertsonentzako berariazko materialaren (material protesikoa eta ortesikoa) mantentzea eta egokitzapena burutzea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Urritasuna, ezintasuna eta minusbaliotasuna.
- Honako hauen definizioa, motak eta maila:
  - Urritasun psikikoak: jatorri genetikoa dutenak; sortzetiko jatorria dutenak; eskuratutakoak.
  - Zentzumenezko urritasunak: entzumenarenak; ikusmenarenak.
  - Urritasun fisikoak: mugimenduarenak; eskuratutakoak.
  - Alterazio neurologikoak: periferikoak; zentralak.
  - Alterazio muskularrak: distrofia muskularra, miotonia, miopatia metabolikoak...
- Integrazioa eta normalizazioa. Definizioa eta ondorioak.
- Ezintasun, minusbaliotasun edo urritasun bakoitzerako egokiak diren norabideak eta jarduteko jarraibideak.
- Ezintasunak dituen pertsonaren esfortzuarekiko egokitzapenaren zehaztasunak.
- Gorputz- eta kirol-ekintza egokituak eta hauek burutu behar dituzten taldeak.
- Ezintasunak dituzten pertsonen beren ezintasunaren arabera praktika ditzaketan berariazko gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Ezintasunak dituzten pertsonekin garatu beharreko gorputz- eta kirol-ekintzetan kontuan hartu beharreko faktoreak.
- Ekintza ludikoak eta ezintasun-motak. Posibilitateak. Mugak.
- Komunikazioa ezintasun-kasu bakoitzean.
- Ezintasunen medikuntza- eta kirol-baloraziorako parametroak.
- Urritasunari gaineratutako osasun-arazoak. Arriskuak eta larrialdiak.
- Ekintza fisikoak ezintasunak dituzten pertsonengan dituen onura fisikoak, psikologikoak eta sozialak.
- Joko sentikortzaile, integratzaile eta berariazkoak.

### Jarrerazkoak:

- Ezintasuna duen pertsonaren jarrera baikorra gorputz- eta kirol-ekintzen praktikan integratzeko. Gorputz-eta kirol-ekintzaren balorazioa ezinduaren osasuna, bizi-kalitatea eta besteekiko harremanak hobetzeko bide gisa.
- Naturaltasuna ezintasunak dituzten pertsonetikiko tratuan.
- Ezintasuna duen pertsona baten ezaugarri positiboen balorazioa.
- Ezintasunak dituzten pertsonen gorputz- eta kirol-ekintzak praktikatzeko dituzten aukerak posible, erreal eta segurutzat hartzea.
- Kirol-ekintzetako parte-hartzaileen ezintasunetatik eratorritzen diren zailtasunak gainditzeko interesa agertzea.
- Ezintasunen esparruan terminologia tekniko eta berariazkoa zehatz-mehatz erabiltzea.

## II. multzoa: EKINTZAK ETA EGOKITZAPENAK EZINTASUNAK DITUZTENEKIN GARATU BEHARREKO GORPUTZ- ETA KIROL- EKINTZETAN

### Prozedurazkoak:

- Espazio konbentzionaletan eta konbentzionalak ez direnetan gorputz- eta kirol-ekintzak praktikatzeko dauden oztopo arkitektonikoak eta naturalak aztertu eta baloratzea.
- Dauden oztopoak kentzeko eta oztopo berriak ezabatzeko beharrezkoak diren egokitzapenen estimazioa egitea.
- Tituluari loturiko ekintzen garapenari dagokionez, oztopo arkitektonikoak ezabatzeari buruzko legeriaren azterketa eta interpretazioa egitea.
- Kirol-zentro, estadio txiki, igerileku, ikastetxe eta, azken batean, ezintasuna duen pertsonak nahi dituen gorputz- eta kirol-ekintzak garatu ahal izango ditueneko gainerako lekuetan sartzeko oztopo arkitektonikoak gainditzeko neurri egokiak aplikatzea.
- Gaindiezinak diren muga egokitzapena, ezintasanak dituzten pertsonen sarrera erraztuz.
- Ezintasanak dituzten pertsonen taldeentzako kirol-ekintzak programatzea.
- Ezintasanak dituzten pertsonentzat egokitutako materialak landu, aukeratu eta erabiltzea.
- Ezintasun-mota desberdinetara moldatu eta egokitutako talde-dinamikako teknikak aplikatzea.
- Ezintasunen bat duen pertsona batentzat gorputz-ekintza baten aukeraketa arrazoitua egitea, motibazioa, posibilitate pertsonalak, baliabideak, ingurunea eta taldea kontuan izanik.
- Erakunde desberdinek tituluaren lanbide-perfilari dagokionez eskaintzen dituzten zerbitzuak hobetzeko proposamenak lantzea, ezintasanak dituzten pertsonen parte hartu ahal izan dezaten eta integra daitezen.
- Gorputz- eta kirol-ekintza baten eta talde normalizatu baten barruan ezintasanak dituzten pertsonen integrazioa ebaluatzea.
- Baliabideak eta espazioak ezintasunen bat duen pertsonaren beharretara egokitzea.
- Ekintzetara eta ezintasunetara egokitutako fitxak lantzea.
- Gorputz- eta kirol-ekintzetan ezintasun bakoitzari egokitutako teknikak aplikatzeko progresioak lantzea.
- Taldeko gainerakoek ezintasuna duen pertsona baten aurrean agertzen duten jarrera kontrolatzea.

### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Espazio konbentzionaletan eta konbentzionalak ez direnetan ohikoak eta gorputz- eta kirol-ekintzen praktikan beharrezkoak diren oztopo arkitektonikoak eta naturalak. Motak. Mugak.
- Oztopoak kendu eta/edo minimizatzeke posibilitateak. Helburuak. Kostua. Bideragarritasuna.
- Oztopo arkitektonikoen ezabaketari buruzko lege-esparrua. Alderdiri garrantzitsuenak. Minusbaliotasuna duen pertsonarengan duen eragina.
- Ezintasanak dituzten pertsonen taldeekin edo hauek barne hartzen dituzten taldeekin egin beharreko gorputz- eta kirol-ekintzetako monitorearen zeregina.
- Gorputz-ekintza jakin bat ezintasanak dituzten pertsonen talde bati edo hauek barne hartzen dituen talde bati esleitzeko garaian kontuan izan behar diren alderdiak. Berariazko baliabide eta bitartekoak.
- Ezintasanak dituen pertsonak gorputz-ekintzak burutuko dituen ikastetxean jarraitu behar diren azturak, arauak eta jarraibideak.
- Ezintasanak dituen pertsonarentzako berariazko kirol-organismoak.
- Ezintasunera egokitutako talde-dinamikarako aldagaiak eta teknikak.

### Jarrerazkoak:

- Posibilitate psikiko eta mugimenezkoak errespetatu eta onartzea, aniztasunaren aberastasuna baloratu.
- Autokontrola eta naturaltasuna ezintasanak dituzten pertsonen arretan eta dinamizazioan izaten diren zailtasun gehigarrien aurrean.
- Talde batean ezintasunen bat duen pertsona bat barne hartzeko jarrera baikorra azaltzea.
- Talde batean ezintasanik ez duten kideek ezintasanak dituztenen aurrean agertutako jarrerak bere gain hartzea.
- Ezintasunen bat duen pertsonak eta bere taldeak kirol-ekintza garatzean higiene eta segurtasunari buruzko araudia errespetatzea.
- Kontingentzien aurrean erabakiak hartzeko prestasuna.
- Erakunde, elkarte, bidai agentzia... desberdinetatik ezintasanak dituzten pertsonentzako gorputz- eta kirol-ekintzen joerak eta hauek eskaintzeko moduak behatzeko interesa.
- Ardura jasotako aginduen aurrean eta hauek interpretatu eta burutzean.

## 11. lanbide-modulua. LAN-PRESTAKUNTZA ETA -ORIENTABIDEA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Prebentzio- eta/edo babes-ekintzak zehaztea, titulazioan aipatzen diren ekintzek sortzen dituzten arrisku-faktoreak eta osasunarentzako eta ingurumenarentzako ondorioak txikiagotuz.
2. Egoera simulatuetan, istripuaren lekuan oinarritzko osasun-neurriak berehala aplikatzea.
3. Lan-kontratazioaren modalitateak eta norberaren konturako langile gisa lan-munduratzeko prozedurak aztertzea.
4. Lanbide-ibilbideak ezartzea, norberaren gaitasunak eta interesak identifikatuz eta eskueran dagoen informazio publikoa erabiliz.
5. Lanaren lege-esparrua interpretatzea eta lan-harremanetatik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak bereiztea.
6. Estatuko eta EAEko egitura sozioekonomikoa identifikatzea, titulazioak aipatzen duen produkzio-sektorearen neurria, osaera eta aurreikusitako bilakaera bereziki aztertuz.
7. Sektoreko enpresa esanguratsu baten oinarritzko antolamendu-egitura identifikatzea.
8. Sektoreko ereduako enpresa baten memoria ekonomikoaren parametro azpimarragarriak interpretatzea.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. Prebentzio- eta/edo babes-ekintzak zehaztu eta titulazioan aipatzen diren ekintzek sortzen dituzten arrisku-faktoreak eta osasunarentzako eta ingurumenarentzako ondorioak txikiagotzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektorean garatzen diren industria-prozesuetatik eratorzen diren ingurumenarentzako ondorioak azaltzea.
- Bere lan-esparruan ohikoenak diren arrisku-egoera eta/edo -faktoreak identifikatzea.
- Sektorean ohikoak diren gaixotasun profesionalak, osasunari egindako kalteak eta/edo lan-istripuak deskribatzea.
- Aipatu diren lan-jardueren burutzapenean sortzen diren ohiko gaixotasun profesionalak, osasunari egindako kalteak eta lan-istripuak sailkatzea.
- Prebentzio- eta/edo babes-jarduneko teknika orokorrak bere lan-esparruan ohikoak diren arrisku-egoera eta/edo -faktoreekin erlazionatzea.
- Bere lan-esparruan ohikoenak diren arriskuei dagozkien prebentzio- eta/edo babes-jarduerak proposatzea.
- Lehen laguntzearako botikina egoera egokian edukitzea.
- Enpresaren barruan eta kanpoan segurtasunaren alorrean eskumena duten organoak identifikatzea.
- Ohiko prebentzio- eta/edo babes-elementuak egiaztatzea, ezarrita dauden arauak kontuan izanik.
- Lana burutzerakoan ingurumenari egindako kalteak saihestu edo txikiagotzeko har daitezkeen neurriak proposatzea.

2. Egoera simulatuetan, istripuaren lekuan oinarritzko osasun-neurriak berehala aplikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lanbidearen burutzapenean ohikoak diren lesio eta/edo istripuen aurrean jarduteko prozesua edo protokoloa azaltzea.
- Lesioak bizitzarentzat duten arriskuaren arabera sailkatzea.
- Lesionatu bat baino gehiago dagoenean edo pertsona batek lesio bat baino gehiago duenean, esku-hartzean lehentasuna nork duen identifikatzea. Hau egiteko irizpidea honakoa izango da: lehendabizi bizitzarentzat arrisku handiena duen lesioari arreta eskaintzea.
- Aurreko kasuan agertzen diren lesioen arabera aplikatu behar diren neurrien sekuentzia identifikatzea.

- Osasun-teknikak gauzatzea (erreanimazioa, immobilizazioa, eramatea...), ezarrita dauden protokoloak aplikatuz.
- Bidezko organismoetara deitzea zaurituta dauden pertsonak eraman eta zaintzeko.
- Istripuren bat egonez gero, azkar eta eraginkortasunez jardutea.

### 3. Lan-kontratazioaren modalitateak eta norberaren konturako langile gisa lan-munduratzeko prozedurak aztertzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Norberaren konturako langile gisa jarduteko eratze-prozesuan inplikaturik dauden erakundeak adieraztea, burutu behar diren tramiteak azalduz.
- Norberaren konturako langile gisa zergei eta Gizarte Segurantzari dagokionez dauden betebeharrak deskribatzea.
- Bere produkzio-sektorean (indarrean dagoen legeriaren arabera) dauden lan-kontratazioaren modalitate desberdinak identifikatzea.
- Kontratazio-modalitate desberdinak konparatzea, bakoitzaren ezaugarriak adieraziz (iraupena, soldata edo beste edozein aldagai azpimarragarri kontuan izanik).
- Sektoran normalki egiten diren kontratuak formalizatzea, dagozkien eredu ofizialetan.
- Norberaren konturako langile gisa jartzearen ondoriozko zergei eta Gizarte Segurantzari loturiko betebeharrak buruzko dokumentazioa betetzea inprimaki ofizialetan.
- Langile autonomo gisa jartzeko egon daitezkeen finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta/edo bestelako abantailak ezagutzea.
- Norberaren konturako langile gisa jartzeko beharrezko dokumentazioa betetzea inprimaki ofizialetan.
- Norberaren konturako lana eta besteren konturako lana alderatzea, lan-munduratzeko modu posible gisa.

### 4. Lanbide-ibilbideak ezartzean, norberaren gaitasunak eta interesak identifikatuz eta eskueran dagoen informazio publikoa erabiliz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lortutako gaitasun, jarrera eta ezagutzetatik eratorritako lanbide-balioa identifikatzea.
- Bere esparruan dagoen lan-eskariaren baldintzak interpretatzea, lortutako lanbide-balioarekin erlazionatuz.
- Lan-munduratzeko aukerak izan ditzakeen zonako prestakuntza-erakundeak eta enpresa-ehunari buruzko informazio-iturriak erabiltzea, enplegu-erakundearekin dituen iguripenei lotuta enpresaren datuak eta informazioa lortuz.
- Prestakuntza-premia osagarriak ondorioztatzea, dituen enplegu-aukerak zabaltzeko eta/edo behin enplegua lortu ondoren aberastasun profesionala lortzeko.
- Prestakuntza-ibilbideak ezartzea antzemandako beharren arabera.
- Enplegua lortzeko teknikak prestatzea eta, horretarako elkarriketak egitea, testak betetzea eta abarri buruzko simulazioak egingo dira.
- Enplegu batean aurkezteko eta/edo eskaria egiteko dokumentuak lantzea.

### 5. Lanaren lege-esparrua interpretatzean eta lan-harremanetatik ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak bereiztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Lan-zuzenbidearen oinarriko iturriak azaltzea (Konstituzioa, Langileen Estatutua, Europako Batasunaren Artezartuak, Hitzarmen Kolektiboa eta abar), dagozkion eskubideak eta betebeharrak bereiziz.
- Negoziazio kolektiboko prozesu bat, suposiziopean, deskribatzea, negoziatu ohi diren aldagai garrantzitsuenak adieraziz: soldata, segurtasuna eta higiena, produktibitatea eta abar.
- Besteren konturako langileentzako Gizarte Segurantzari eta INEMi (edo bere funtzioak bere gain hartzen dituen EAEko organismoari) lotutako prestazioak eta betebeharrak identifikatzea, suposizio desberdinen arabera.
- Besteren konturako langile batentzako soldata-agiriak formalizatzea, suposizio desberdinetan oinarrituz.
- Hartzekoen likidazio batean agertzen diren kontzeptu desberdinak interpretatzea.

- Suposizio desberdinetan oinarrituz hartzekoen likidazioak kalkulatzeko.
- Inprimaki ofizialetan errenta-aitorpen sinpleak betetzea, lortutako errendimendu desberdinak identifikatuz eta zerga-zorra kalkulatzeko.

6. Estatuko eta EAEko egitura sozioekonomikoa identifikatzean, titulazioak aipatzen duen produkzio-sektorearen neurria, osaera eta aurreikusitako bilakaera bereziki aztertuz, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Magnitude makroekonomiko nagusiak (BPG...) interpretatzea eta hauen artean dauden erlazioak azaltzea.
- Produkzio-sektore desberdinak sailkatzea, bai eta hauek euskal ekonomian duten garrantzi erlatiboa ere.
- Bere produkzio-sektorearen egituraketa deskribatzea, hau da, bere tamaina, enpresen tamaina, kopurua eta mota, populazio aktiboa, okupazio-tasa eta abar, ezaugarri bereizgarrien bat ote dagoen adieraziz.
- EAEko sektorearen informazioa eta egituraketa Estatuko gainontzekoarekin erlazionatzea, lan-munduratzeko posible baterako zonei buruzko datuak lortzeko moduan.
- Sektorean aurreikusten den eboluzioa, hazkundea, egon daitezkeen aldaketa teknologikoak eta abar adieraztea.

7. Sektoreko enpresa esanguratsu baten oinarritzko antolamendu-egitura identifikatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektoreko kudeaketa-eredu esanguratsuen deskribapena egitea.
- Sektoreko enpresa esanguratsu baten funtzio-arloen azalpena egitea.
- Sektoreko enpresa baten oinarritzko organigrama interpretatzea, azpian dauden agente- eta komunikazio-erlazioak eta abar azalduz.
- Suposizio baten pean, enpresa baten egituraren bere lanbideari loturiko funtzioak kokatzea.
- Bere lanbideari datxekion jardueren garapen normalean enpresa bateko funtzio-arlo desberdinekin sor daitezkeen erlazioak adieraztea.
- Bere jarduerak burutzerakoan enpresako beste sekzio batzuekin sortzen diren koordinazio-beharrak azaltzea.

8. Sektoreko ereduazko enpresa baten memoria ekonomikoaren parametro azpimarragarriak interpretatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Sektoreko enpresa bateko balantze baten eta galdu-irabazien kontu baten partida nagusiak azaltzea.
- Aztergai dugun sektoreko enpresa baten suposizio batean finantza-egoera zehazten duten oinarritzko ratioak (finantza-autonomia, kaudimena...) kalkulatu eta interpretatzea.
- Sektoreko enpresa baten oinarritzko aurrekontuen egituraren eta hauek barne hartzen dituzten kontzeptuen deskribapena egitea.
- Sektoreko enpresa baten oinarritzko aurrekontuak interpretatzea.
- Aurrekontuak lantzerakoan laguntzea.
- Egon daitezkeen finantzaketa-bideak bereiztea (autofinantzaketa, leasing...).

c) Edukiak

I. multzoa: SEGURTASUNA ETA OSASUNA

Prozedurazkoak:

- Segurtasun eta higienezaren alorrean eskuduntza duten organismoak identifikatzea.
- Arriskuen prebentzioa: prozedurak.
- Lehen laguntzetarako botikina edukitzea.
- Lesioen arriskuaren arabera esku hartzea: lehenbaitzak identifikatzea eta aplikatu beharreko neurriak sekuentziatzea.
- Osasun-teknikak gauzatzea.

- Zaurituen ebakuzioa eta laguntza: antolaketa
- Lanbide-jardueraren ondorioz ingurumenari eragiten zaizkion kalteak gutxitzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lanbide-gaixotasunak, osasunari egindako kalteak eta lan-istripuak: arriskuaren araberako sailkapena.
- Lesioak: bizitzarentzat duten arriskuaren araberako sailkapena.
- Lehen laguntzak.
- Ingurumena eta industria- edo zerbitzu-prozesuak.
- Laneko babes- eta/edo prebentzio-teknikak.

#### Jarrerazkoak:

- Ingurumen-kontingentzietarako erantzunak emateko ekimena.
- Talde-lanean jardutea istripuen eta osasunari egindako beste kalte batzuen prebentzioan lorpenak izateko.
- Lanbidearen burutzapenean arduraz jokatzeko ingurumena babesteko.
- Egon daitezkeen istripuen aurrean erantzun azkarra eta eraginkorra ematea.
- Segurtasun- eta higie-ne-arauak errespetatu eta betetzea.
- Prebentzioa osasunarentzako kalteak saihesteko baliabiderik eraginkorrena bezala baloratzea.

## II. multzoa: LAN-ESPARRUA

#### Prozedurazkoak:

- Eskuratutako gaitasun, ezagutza eta jarreretatik eratorritako balio profesionala identifikatzea.
- Bere eremuko lan-eskariaren eskakizunak interpretatzea eta prestakuntza-beharrak ezagutzea.
- Enplegua lortzeko teknikak eta dokumentuak prestatu eta lantzea.
- Enpresa-ehunari eta prestakuntza-ahalbideei buruzko informazio-iturriak erabiltzea.
- Bere hasierako prestakuntzaren prestakuntza-ibilbide osagarriak ezartzea.
- Dagozkion eredu ofizialetako kontratu-modalitate desberdinak formalizatu eta alderatzea, horien ezaugarrien arabera.
- Interpretazioa, kalkulua eta formalizazioa: hartzekoen likidazioa. Oinarrizko alokairuaren ordainagiria.
- Inprimakiak betetzea eta inplikaturako erakundeen zerrenda: norberaren konturako langile gisa ezarri eta funtzionatzea.
- Norberaren kontura ezartzeko finantzaketa-iturriak, dirulaguntzak eta/edo abantailak ezagutzea.
- Norberaren konturako lana eta besteren konturakoa elkarrekin alderatzea.
- Beste pertsonetikiko eta erakundeetikiko lan-munduratzetik eratortzen diren betebeharrak eta eskubideak interpretatu eta betetzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Lan-zuzenbidearen oinarrizko iturriak: konstituzioa, arteztarau komunitarioak, langileen estatutua eta hitzarmen kolektiboa.
- Kontratazio-modalitateak, indarrean dagoen legeriaren arabera.
- Betebehar fiskalak eta gizarte-segurantzakoak norberaren konturako lanean.
- Negoziazio kolektiboa.
- Gizarte-segurantzaren eta INEMen sariak eta haiekiko betebeharrak norberaren konturako lanean.

#### Jarrerazkoak:

- Beste pertsonetikiko eta erakundeetikiko lan-munduratzetik eratortzen diren betebeharrak betetzea.
- Lan-harremana erregulatzen duten arauak errespetatzea.
- Behin enplegua lortu ondoren, prestakuntza osagarriaren eta/edo etengabekoaren beharra bere egitea.
- Lanarekiko konpromisoa.

## III. multzoa: EKONOMIA-ESPARRUA

#### Prozedurazkoak:

- EAEn eta Estatuaren gainerakoan dagokion sektorea aztertu eta alderatzea.
- Dagokion sektorean aurreikusitako eboluzioa balioestea.
- Enpresa-egitura eta garatu beharreko jardueri lotutako funtzioen kokapena interpretatzea.
- Oinarrizko organigramak lantzea.
- Lanbide-jarduera garatzean enpresaren beste sekzioekin koordinatzeko beharra antzematea.
- Aurrekontuak lantzen laguntzea.
- Sektoreko ereduak enpresa baten oinarrizko ekonomia- eta finantza-ratioak kalkulatu eta interpretatzea.
- Lanbide-jardueren garapenari buruzko oinarrizko aurrekontuak interpretatzea.

#### Gertakariak, kontzeptuak eta printzipioak:

- Magnitude makroekonomiko nagusiak eta horien arteko erlazioa.
- Produkzio-sektoreak eta horien ekarpena Euskal Herriko eta Estatuaren gainerako ekonomian.
- Titulazioari dagokion produkzio-sektorea: konfigurazioa eta aurreikusitako eboluzioa.
- Dagokion sektoreko ereduak enpresa baten funtzio-arloak eta horien arteko erlazioak.
- Sektorearen kudeaketa-eredu adierazgarria.
- Balantzearen galera- eta irabazi-kontuaren partida nagusiak sektoreko ereduak enpresa batean.
- Enpresa baten oinarrizko aurrekontuak: egitura eta kontzeptuak.
- Finantzaketa-motak: oinarrizko eskemak.

#### Jarrerazkoak:

- Laneko bileretan bat etortzeko konpromisoa eta interesa.
- Enpresaren beste sekzioek garatzen duten lanarekiko errespetua.
- Bestelako sailekin koordinatzeko beharra bere egitea.

## 12. lanbide-modulua. KALITATEA ETA ETENGABEKO HOBEKUNTZA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. “Kalitatearen” kontzeptua, esanahia eta bilakaera historikoa aztertzea, tituluari dagokion lanbide-sektore edo -eremuari dagokionez bereziki.
2. Kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak eta hauen funtzioak eta alderdirik bereizgarrienak aztertzea, lanbide-jarduera edo -burutzapenari lotuz.
3. Lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako prozesu edo funtzio esanguratsuetan kalitatea etengabe hobetzeko proiektu edo ekintzetan parte hartzea.

### b) Ebaluazio-irizpideak

1. “Kalitatearen” kontzeptua, esanahia eta bilakaera historikoa aztertzean (tituluari dagokion lanbide-sektore edo -eremuari dagokionez bereziki), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Kalitatearen kontzeptuaren bilakaera historikoa deskribatzea, tituluari dagozkion jarduerak esanguratsuei eta sektoreari lotuta.
- Erabateko Kalitateko eredu baten oinarrizko funtsak eta printzipioak identifikatzea.
- Europako Erabateko Kalitateko ereduaren bereizgarriak diren funtsezko alderdi eta elementuak identifikatzea.

2. Kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak eta hauen funtzioak eta alderdirik bereizgarrienak aztertzean (lanbide-jarduera edo -burutzapenari lotuz), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Bere lanbide-eremuari dagokionez, kalitatea ziurtatzearen helburuak identifikatzea, arauen beharrak ondorioztatuz.
- Kalitatea ziurtatzeko arauen (Europakoak bereziki) edukia interpretatzea.
- Prozesuetan kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak bere lanbide-eremuko jarduerarik esanguratsuenekin lotzea.

3. Lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako prozesu edo funtzio esanguratsuetan kalitatea etengabe hobetzeko proiektu edo ekintzetan parte hartzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Suposizio erreal edo simulatueta:
  - Esku-hartze eta hobekuntzarako aukera-arloak identifikatzea.
  - Oinarrizko kalitate-erremintak erabiltzea.
  - Lanbide-harremanen hobekuntzan eta jardueren garapenean inplikatzeko azturak hartzea.
  - Etengabeko hobekuntzan oinarritutako soluzioetan esku hartzea.
  - Etengabeko hobekuntzan oinarritutako eta bere lanbide-eremu edo -sektoreari lotutako soluzio edo planak ezartzearen emaitzak ebaluatzea.

### c) Edukiak

- Kalitatearen kontzeptuaren bilakaera historikoa aztertzea, tituluari dagozkion jardura esanguratsuei eta sektoreari lotuta.
- Erabateko Kalitateko eredu baten oinarrizko funtsak eta printzipioak identifikatzea.
- Europako Erabateko Kalitateko ereduaren bereizgarriak diren funtsezko alderdiak eta elementuak identifikatzea.
- Bere lanbide-eremuari dagokionez, kalitatea ziurtatzearen helburuak identifikatzea, arauen beharrak ondorioztatuz.
- Kalitatea ziurtatzeko arauak (Europakoak bereziki) interpretatzea.
- Kalitatea ziurtatzeko aplikatu daitezkeen arauak eta gorputz- eta kirol-ekintzen sektoreko prozesu eta jarduerarik esanguratsuenekiko loturak identifikatzea.
- Tituluari dagozkion lanbide-gaitasunaren prozesu edo jardura esanguratsu baten edo batzuen datuetatik eta gainerako aldagai deskribatzaileetatik abiatuta eta guztia sektoreko balizko enpresa batean kokatuta:
  - Esku-hartze eta hobekuntzarako aukera-arloak identifikatzea.
  - Oinarrizko kalitate-erremintak erabiltzea.
  - Harremanetan eta jardueren garapenean hobekuntza pertsonaleko jarrerak eta azturak hartu eta ezartzea.
  - Bere mailan, etengabeko hobekuntzan oinarritutako soluzioetan esku hartzea.
  - Etengabeko hobekuntzan oinarritutako eta bere lanbide-eremuari lotutako soluzio edo planak ezartzearen emaitzak ebaluatzea.

## 13. lanbide-modulua. LANTOKIKO PRESTAKUNTZA

### a) Amaierako gaitasunak

Lanbide-modulu hau amaitzean ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

1. Bere ikuskatzailearen norabideei jarraiki, enpresa edo erakundearen ezaugarri eta funtzioen araberrako esku-hartzea izango duten ekintzen programazioa zehaztea.
2. Egokitzapen fisikoko gorputz- eta kirol-ekintzak, indibidualak, taldekoak eta tresna bidezkoak zuzendu eta dinamizatzea.
3. Esleitutako taldearekin autonomiaz eta erantzukizunez jokatzeko eta enpresako lan-taldean integratzea.
4. Administrazio-, merkaturatze- eta kudeaketa-funtzioetan jardutea eta laguntza ematea, enpresako arduradunaren ikuskerapean.

### b) Ebaluazio-irizpideak



1. Bere ikuskatzailearen norabideei jarraiki enpresa edo erakundearen ezaugarri eta funtzioen arabera esku-hartzea izango duten ekintzen programazioa zehaztean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Enpresaren berezko helburuak eta zerbitzugintza-prozesuak eta eskaintzen diren gorputz- eta kirol-ekintzak identifikatu eta deskribatzea.
- Ekintzen programazioak interpretatzea, uneko garapena bereziki kontuan hartuta.
- Kirol-instalazio eta -materialaren aukeraketa justifikatzea.
- Erabiltzaile-taldeen ezaugarriak eta motibazio-maila bereiztea.
- Parte-hartzaileak beren abilezia-mailaren eta egoera fisikoaren arabera sailkatzea.
- Bezeroaren eta/edo taldearen ezaugarri eta interesei egokitutako ekintzak aukeratu eta/edo asmatzea eta, horretarako, dokumentazio tekniko erabiltzea eta garapen alternatiboak aurreikustea.
- Garatu beharreko ekintzaren programazioa lantzea eta saio bakoitzerako ondokoak zehaztea:
  - Helburu operatiboak.
  - Landu beharreko edukiak eta beren denboralizazioa.
  - Beharrezkoak diren baliabideak eta materiala.
  - Helburuak hobeto lortzea bermatuko duten metodoak.
  - Burutu beharreko ekintzak eta zereginak (ariketak, jokoak eta abar), sekuentziatuta eta denboralizatuta.
  - Ekintza osagarriak.
- Programak, saioak eta ekintzak behar bezala dokumentatzeko eta bezeroei behar bezalako informazioa emateko fitxak, txostenak eta beharrezkoak diren dokumentu guztiak lantzea.
- Ezintasunak dituzten pertsonen gorputz- eta kirol-ekintzetan eta, oro har, programetan parte hartzeko burutu beharreko jarduketak eta egokitzapenak finkatzea.

2. Egokitzapen fisikoko gorputz- eta kirol-ekintzak, indibidualak, taldekoak eta tresna bidezkoak zuzendu eta dinamizatzean, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko ditu:

- Instalazioa erabiltzeko baldintza egokietan dagoela egiaztatzea.
- Programatutako jokoak edo ekintza garatzeko beharrezkoa den materiala prestatzea eta parte-hartzaileen artean banatzea.
- Erabiltzaile edo bezeroekiko harremanetan hauek ekintza egiteko motibatuta eta jasotako arretarekin gustura senti daitezen lortzea.
- Erabiltzaile edo bezeroen ezaugarrien arabera, ondokoei buruzko informazioa ematea hizkera eta modu egokian:
  - Saioaren helburuak.
  - Kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuak.
  - Errespetatu beharreko segurtasun- eta higiene-arauak.
- Taldeak dauden baliabideak eta denbora optimizatzeko moduan antolatzea.
- Irakaskuntza-mezua transmititzeko, burutu beharreko zereginerako egokiena izango den modua aukeratu eta erabiltzea:
  - Ekintzari, helburuei, baliabideei eta abarri buruzko hitzezko azalpenak.
  - Proposatutako mugimendu eta ariketen erakustaldia.
  - Laguntzen erabilera.
- Aniztasuna oro har, eta taldean ezintasunak dituztenen ondoriozkoa bereziki, kontuan hartzea.
- Ekintzan behar den material pertsonal eta kolektiboa erabiltzeko baldintza egokietan dagoela egiaztatzea.
- Egokitzapen fisikoko ekintza eta kirol indibidualak, taldekoak eta tresna bidezkoak praktikatzean garatutako ekintza optimizatzeko oinarri zientifiko-didaktikoak aplikatzea.
- Ariketak egitean izandako akatsak zuzentzea eta arrazoiak adieraztea.
- Aukeraketa justifikatzea eta edozein unetan taldeari argibideak emateko tokirik egokiena hartzea.
- Saioa modu atsegin eta dibertigarrian zuzentzea eta taldeko kide guztien parte-hartzea bultzatzea.
- Ekintza garatzen den bitartean erritmoa, denborak, atsedena eta abar markatzea.
- Bezeroari ekintzaren aurretik, ondoren eta bitartean dietetika, higiene eta hidratazioari buruzko aholkuak ematea.

- Instalazioaren, materialaren eta pertsonen inguruan gertatzen diren ezustekoei irtenbidea ematea eta lantokiko arduradunari jakinaraztea.
- Akidura, neke, gogaitasun, motibaziorik eza eta abarren seinaleak eta sintomak detektatzea eta joko eta ekintzen mota, iraupena eta intentsitatea bezero-taldearen dinamikara egokitzea.
- Lesioen bat dutenak zaintzea eta, horretarako, lehen laguntzei buruzko arauak betetzea.
- Bezero edo erabiltzaileen iruzkin eta kontsultei arreta eskaintzea eta erantzutea.
- Parte-hartzaile eta monitoreekiko eta instalazio, material eta baliabideekiko errespetuzko jarrerak bultzatzea.
- Instalazioa ondorengo ekintzak egiteko prest uztea.
- Arduradunari saioaren garapenari eta sortutako gorabeherei lotutako alderdiak jakinaraztea.

### 3. Esleitutako taldearekin autonomiaz eta erantzukizunez jokatzeko eta enpresako lan-taldean integratzeko, ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko dituzte:

- Lanpostura garaiz iristea, baimendutako atsedena hartzea eta jardura ezarritako ordua baino lehen ez uztea, modu egokian justifikatutako arrazoiak ez baldin baditu eta arduradunari adierazi ez baldin badie behintzat.
- Erabiltzaileak iristen direnean harrera egokia egitea eta beharrezkoak diren instalazioak, materialak eta ekipoa behar bezalako arduraz eta aurretiaz prestatzea.
- Jasotako aginduak arduraz eta ekimenez interpretatzea eta burutzea eta esleitutako lanaz arduratzea.
- Laneko arauak eta prozedurak bere gain hartzea eta garatzen diren eta enpresaren parte-hartzea duten jardura osagarrietan (hitzaldiak, informazio-bilerak, ekitaldiak...) parte hartzea.
- Lortutako emaitzak eta aurreikusitakoak aldatzea eta arrazoiak eta ondorioak baloratzea dagokionari desbiderapenen berri emateko, guztia erabakiak hartzean egokiro jokatzeko xedez.
- Lantokiak segurtasunari, instalazioen eta materialaren erabilerari, ezarritako ordutegiari, pertsonen zirkulazioari eta abarri lotutako baldintzei buruzko barne-arauak errespetatzea.
- Lantokiko kideekin eta enpresa edo erakundeko erabiltzaile edo bezeroekin pertsonarteko harreman egokiak eta etengabeak izatea.
- Erabiltzaileen eskaerak eta iradokizunak pertsona egokiengana bideratzea.
- Bere lana jasotako aginduei eta ezarritako prozedurei jarraiki eta segurtasunari, kalitateari eta bezeroen gogobetetzeari lotutako irizpideekin antolatzea.
- Bere jardura enpresa edo erakundeko gainontzeko langileenarekin koordinatzea prozedurak eta zereginen banaketa finkatzeko, edozein aldaketa, behar edo kontingentziaren berri emanez.
- Bere lanak jardueran eta erakundearen helburuen lorpenean izan ditzakeen ondorioak identifikatzea.
- Esleitutako erabiltzaile-taldea enpresak edo erakundeak eskaintzen dituen ekintzetan parte har dezan eta programari atxiki dakion bultzatzea.
- Bere irudi pertsonala eta hizkuntza enpresa edo erakundearen testuingurura eta garatu beharreko ekintzaren ezaugarrietara egokitzea.
- Bere jardura orokorrari, bere jarrerari eta prozeduren garapenari buruz egiten diren oharrak onartzeko prestasuna erakustea.
- Ondo lan egiten duela eta bere lekuan egoten badakiela frogatzea, agindutako helburuak eta zereginak ezarritako lehentasunei jarraiki eta denbora egokian betez.

### 4. Administrazio-, merkaturatze- eta kudeaketa-funtzioetan jardutean eta laguntza ematean (enpresako arduradunaren ikuskapenpean), ikasleak ondoko gaitasunak lortu beharko dituzte:

- Enpresa-mota, bere tamaina, bazkide- eta langile-kopurua, forma juridikoa, eskaintza, dihardueneko merkatua, konpetentzia, jardura-bolumena, bezeroen tipologia, prezioak, sustapenak, antolamendu-egitura eta aipatutako ezaugarrien ondorioz enpresan ezartzen diren funtzioak eta erlazioak aztertzea.
- Enpresak bete beharreko legezko baldintzak eta betebeharrak, beren aldizkakotasuna eta sortzen dituzten arrazoi edo gertakariak identifikatzea, guztia lan-, zerga- eta merkataritza-arloan.
- Enpresako jardura garatzean beharrezkoak diren dokumentuak aztertzea beren antolamendua, izapideak eta aldizkakotasuna bereziki kontuan hartuta.
- Enpresaren jardueran ohikoak diren dokumentuak, liburuak eta abar egun eskuragarri dauden baliabideekin bete eta lantzea eta beren lanketan, erregistroan, antolaketan, mantentzean eta/edo banaketan arduraz eta eraginkortasunaz jokatzeko.

- Dokumentuen izapideetan laguntzea eta kasu bakoitzean jarraitu beharreko zirkuitu dokumentala aztertzea.
- Enpresaren artxiboen kudeaketan arintasunez eta eraginkortasunez laguntzea.
- Ereduzko merkataritza-egoeretan bezero, hornitzaile eta beste hirugarren batzuei zuzenean, telefonoz eta/edo idatziz erantzutea eta, horretarako, komunikazio- eta harreman-teknika egokiak aplikatzea, eraginkorra izatea eta enpresaren irudia transmititu eta zaintzea.

### c) Edukiak

Ikastetxeak “lan-egoeretan” kokatutako jarduera gisa finkatuko ditu edukiak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratutako *Lantokiko prestakuntza* lanbide-modulua diseinatzeko curriculum-esparruaren arabera.

### 3.3. Heziketa-zikloaren sekuentziazioa eta denboralizazioa

#### 3.3.1. Iraupenak

Lanbide-modulua	Oinarrizko iraupena	Iraupen finkoa
1. Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak	100 ordu	120 ordu
2. Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak	200 ordu	240 ordu
3. Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak	200 ordu	240 ordu
4. Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzak	190 ordu	240 ordu
5. Oinarrizko biologikoak eta egokitzapen fisikoaren oinarriak	190 ordu	200 ordu
6. Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa	90 ordu	120 ordu
7. Lehen laguntzak eta uretako sorospena	90 ordu	120 ordu
8. Talde-dinamika eta -animazioa	60 ordu	60 ordu
9. Gorputz- eta kirol-ekintzen metodologia didaktikoa	90 ordu	100 ordu
10. Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintza fisikoak	54 ordu	60 ordu
11. Lan-prestakuntza eta -orientabidea (LPO)	60 ordu	60 ordu
12. Kalitatea eta etengabeko hobekuntza (KEH)	40 ordu	40 ordu
13. Lantokiko prestakuntza (LP)	336 ordu	400 ordu
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.700 ordu</b>	<b>2.000 ordu</b>

1. Ikastetxe bakoitzak curriculum-proiektua bere gizarte- eta ekonomia-ingurunera eta ikasleen ezaugarrietara egokitzeko, ikastetxeek beren esku izango dute guztizko ordutegiaren %15 –kasu honetan 300 ordu– eta ordu-kopuru hau lanbide-modulu desberdinetan banatu ahal izango dute, baldin eta irakaskuntza desberdinak eskaintza oso baten parte badira.

Horrenbestez, modulu bakoitzerako ezarritako oinarrizko iraupena errespetatu egin beharko da eta aurrerago azalduko diren irizpideen arabera gehitu ahal izango da.

2. Irakaskuntzak eskaintza partzial bateko parte badira, iraupen finkoa ezarri da modulu bakoitzerako eta ezin izango da aldatu.
3. Moduluen behin betiko iraupenek, hau da, ikastetxeak berak esleitu behar duen denbora banatu ondoren, heziketa-zikloak irauten dituen 2.000 orduak osatu beharko dituzte guztira.
4. Ikastetxeetako curriculum-proiektu desberdinetan oreka egokia gordetzeko asmoz, eskaintza osoko modalitatea jarraitzen duten irakaskuntzek ondoko zehaztapena

errespetatu beharko dute: lanbide-moduluek ezin izango dute oinarritzko iraupena 64 ordu baino gehiagotan gehitu, *Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak, Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak, Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzak* eta *Oinarri biologikoak eta egokitzapen fisikoaren oinarriak* moduluek izan ezik, hauek, bidezko hartzen bada, 96 ordutan gehitu ahal izango dira-eta.

5. Ikastetxean bertan garatu beharreko *Lantokiko prestakuntza* lanbide-moduluko fase desberdinen iraupenek ez dute ikastetxeak modulu honetarako ezartzen duen behin betiko iraupenaren %10 gainditu behar.

### 3.3.2. Sekuentziarioa

Heziketa-zikloaren sekuentziarioan

#### 2. Eskaintza partzialean:

- *Lantokiko prestakuntza* modulua heziketa-zikloa osatzen duten gainerako moduluak egiaztatu direnean (ondorio horretarako finkatutako bide desberdinen bidez) soilik eman beharko da.

## 4. Irakasleak

4.1. 4.1. “Gorputz- eta kirol-ekintzak sustatzea” heziketa-zikloko lanbide-moduluetan irakaskuntza-atribuzioa duten irakasleen espezialitateak

a) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Gorputz-hezkuntza” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak.
- Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Oinarri biologikoak eta egokitzapen fisikoaren oinarriak.
- Lehen laguntzak eta uretako sorospena.
- Talde-dinamika eta -animazioa.
- Gorputz- eta kirol-ekintzen metodologia didaktikoa.
- Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintza fisikoak.

b) Bigarren Irakaskuntzako irakasleen kidegoan “Lan-prestakuntza eta -orientabidea” espezialitatea duten irakasleek ondoko lanbide-modulu hauek irakats ditzakete:

- Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa.
- Lan-prestakuntza eta -orientabidea.
- Kalitatea eta etengabeko hobekuntza.

c) Heziketa-ziklo bereko beste lanbide-moduluren bat irakasten duten a) atalean adierazitako espezialitatea duten irakasleek ondoko modulua ere irakats dezakete:

- Lantokiko prestakuntza.

4.2. Titulazioen baliokidetasunak irakaskuntzan aritzeko

4.2.1. “Lan-prestakuntza eta -orientabidea” espezialitateari dagozkion lanbide-moduluak irakasteko, doktore-, ingeniari-, arkitekto- edo lizentziatu-tituluen eta ondoko tituluen arteko baliokidetasuna ezartzen da irakaskuntzan aritzeko:

- Enpresa-zientzietan diplomatua.
- Lan-harremanetan diplomatua.
- Gizarte-lanean diplomatua.
- Gizarte-hezkuntzan diplomatua.
- Kudeaketa eta administrazio publikoan diplomatua.

## 5. Irakaskuntza hauek emateko gutxieneko baldintzak

### 5.1. Espazioak

Apirilaren 30eko 777/1998 Errege Dekretuko 19. artikulua arabera, “Gorputz- eta kirol-ekintzak sustatzea” goi-mailako Lanbide Heziketako heziketa-zikloak ondoren adierazitako gutxieneko espazioak eskatzen ditu dekretu honek definitzen dituen irakaskuntzak emateko.

Prestakuntza-espazioa	Azalera (20 ikasle)	Erabilera-maila (%)
Gimnasioa.....	90 m <sup>2</sup>	20
Kirol anitzetarako pista.....	44 x 22 m	40
Gela balioanitza .....	40 m <sup>2</sup>	30
Igerilekua (1).....	25 m-ko luzera	10

(1) Espazio berezi honek ez du nahitaez ikastetxean kokatuta egon behar.

Erabilera-mailak ikasle-talde batek oinarrizko irakaskuntzak irakasteko espazioa zenbat orduz okupatzea aurreikusten den adierazten du; alabaina irakaskuntza hauen guztizko iraupenarekiko ehunekoetan adierazten da. Horrenbestez, ikastetxeek curriculum osoa ezartzeko definitzen dutenerako orientagarria da.

“Erabilera-mailak” onartutako marjinan, heziketa-ziklo bereko edo beste ziklo batzuetako edo beste hezkuntza-etapa batzuetako beste ikasle-talde batzuek okupatu ahal izango dituzte ezarritako prestakuntza-espazioak.

Dena dela, prestakuntza-espazioei lotutako ikasteko jarduerak (erabilera-mailak adierazitako okupazioarekin) antzeko beste prestakuntza-jarduera batzuetarako erabilitako gainazalean ere burutu ahal izango dira.

Identifikatutako prestakuntza-espazio desberdinak ez dira zertan itxitura bidez bereizi behar.

## 6. Sarbideak eta/edo ibilbideak

Heziketa-ziklo honetan onartua izateko, batxilergoko ondoko modalitate hauek izango dute lehentasuna:

- Batxilergoko edozein modalitate.

#### 6.1. Unibertsitate-ikasketetarako sarbidea:

- Gorputz- eta kirol-jardueraren zientzietan lizentziatua.
- Maisu-maistra (espezialitate guztiak).
- Fisioterapian diplomatua.
- Gizarte-hezkuntzan diplomatua.
- Lan-harremanetan diplomatua.
- Gizarte-lanean diplomatua.
- Erizaintzan diplomatua.
- Turismoan diplomatua.

### **7. Konbalidazioak eta korrespondentziak**

#### 7.1. Lanerako Lanbide Heziketarekin konbalida daitezkeen lanbide-moduluak

- Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak.
- Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Lehen laguntzak eta uretako sorospena.
- Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintza fisikoak.
- Astialdiko eta gizarte-heziketako enpresa txikien antolamendua eta kudeaketa.

#### 7.2. Lan-praktikarekin korrespondentzia izan dezaketen lanbide-moduluak

- Animaziorako jokoak eta jolas-ekintza fisikoak.
- Gorputz- eta kirol-ekintza indibidualak.
- Taldeko gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Tresna bidezko gorputz- eta kirol-ekintzak.
- Ezintasunak dituzten pertsonentzako ekintza fisikoak.
- Lan-prestakuntza eta -orientabidea.
- Lantokiko prestakuntza.